<p>BEDERATZIGARRRENA.- EUSKALTZAINDIK ez baditu betetzen onartu dituen baldintzak, edo haien muga gainditzen badu, Bizkaiko Foru Aldundiak edozein unetan suntsiarazi ahal izango du lagapen hau, eta egokitzat jotzen duen erabilera eman ahal izango dio espazio horri.</p>	<p>NOVENA.- En caso de incumplimiento de las condiciones asumidas por EUSKALTZAINDIA o de extralimitación de las mismas, BFA-DFB podrá dar por resuelto en cualquier momento la presente cesión, dando al espacio cedido el destino que estimare oportuno.</p>
<p>Eta azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.</p>	<p>Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, firman el presente documento, por duplicado ejemplar en el lugar y fecha indicado en el encabezamiento.</p>


José Luis Bilbao Eguren
Ahaldun Nagusia


Andrés Urrutia Badiola
Euskaltzainburua



Agiriak

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Euskaltzaindia. Batzar agiriak

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Osoko bilkura

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lizundia, Jose Luis,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Adolfo Arejitak ahala Jabier Kaltzakortari (11:30ak arte); Jose Irazu «B. Atxaga»k

ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Patxi Goenagari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan hasi da 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorrikoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela ezagutu eta gero, urtarileko Osoko batzarri hasiera eman dio eta eguneko egitaraua aurkeztu du. Osoko bilkura 12:30ean amaituko dela gogorarazi du, ondoren, Karmele Rotaetxe andrearen hilberri-txostena jendaurrean irakurtzeko.

1. Aurreko Osoko bilkuraren (2013-12-20) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

P. Goenagak 3. orrialdean paragrafo bat errepikaturik azaltzen dela nabarmendu du. Ondorioz, errepikaturik ageri den paragrafoa ezabatu egin da.

A. Iñigok 4. orrialdeko «Irailaren 26an, Osoko eta Ageriko bilkurak Nafarroan egingo dira.» pasartearen azken esaldia ordeztea eskatu du. Ondoko hau da proposatu duen testua: «A. Iñigok jakinarazi du Nafarroa Oinez dela eta, 2000. urteaz geroztik Nafarroako Ikastolen Federazioa eta urte bakoitzean Oinez antolatzea tokatzen zaion ikastola direla Euskaltzaindiari bertaratzea eskatzen diotenak. 2014ko Oinezi dagokionez, informatu du oraingoz ez dela eskaerarik jaso, ez Nafarroako Ikastolen Federazioaren aldetik, ezta Zangozako ikastolaren aldetik ere. Horregatik dio, harremanetan jartzen direnean eta egiten duten eskaeraren arabera zehaztu ahal izanen dela nolakoa izaten ahal den Euskaltzaindiaren presentzia». Testua ordeztea onartu da Osoko bilkuran.

M. Azkaratek, 6. orrialdeko bigarren paragrafoan, dimisioa eman duten Gramatika batzordeko kideen artean, bi izen falta direla nabarmendu du, I. Amundarain eta B. Fernandez kideenak, hain zuzen. Horien izenak ere jasotzea onartu da.

P. Goenagak 6. orrialdeko «A. Urrutiak jakinarazi du...» pasartearen azken zatia («... adierazpen zirriborroa Osoko bilkuraren karpeterari erantsi zaio.») ezabatzea eskatu du. Halaxe egitea erabaki da Osoko bilkuran.

J. L. Lizundiak 6. orrialdeko 5. paragrafoan bere ahoan jarrikoa ez dela zuzen jaso adierazi du. Horiek horrela, pasarte era honetara geratu da: «J. L. Lizundiak dio hori egitea ez dagokiola Zuzendaritzari, eta bestalde bozketa ez zela horrela egin behar, beraz, ez dator bat.

B. Oihartzabalek zail dakusa iritzia aldatzea. Aho batez egiten ez bada, ez du uste adierazpen hori egitea komenigarria denik.». Eginiko iruzkina onartu da.

B. Oihartzabalek, Idazkaritzara bidaliriko ohar idatzi baten bidez, 6. orrialdeko azken esaldiari oharra egin dio. Esaldia beste pasarte batengatik ordeztea eskatu du. Hona hemen: «B. Oihartzabalek esan du berdintasuna legezko mailari dagokiola; haatik, lantzen diren gaiei edo egiten lanei dagokiolarik, desberdinak izan daitezkeela euskaltzainak, gehienetan bakoitzak bere espezialitatea baitu. Haren ustez, orain arte hori kontuan hartua izan da, eta ez litzateke errealista orain, lanak antolatzerakoan, hori hala ez balitz bezala egitea.». Eginiko iruzkina ere onartu da.

Ondorioz, bestelako oharrak ez dagoenez gero, onartu da 2013ko abenduaren 20ko Osoko bilkurako bilera-agiria, egin zaizkion oharrak txertatu ondoren.

2. Ageriko bilkuretako (2013-01-25, 2013-11-29 eta 2013-12-20) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz.

2013ko urtarrilaren 25ean eginiko Ageriko bilkurako bilera-agiriak iruzkinik jaso ez duenez gero, bere horretan onartu da. Era berean, 2013ko azaroaren 29ko

Ageriko bilkurako bilera-agiriari dagokionez, A. Toledok Karlos Otegi euskaltzain urgazlea urgazleen multzoan jasotzeko eginiko eskaria onartu da. Amaitzeko, 2013ko abenduaren 20ko Ageriko bilkurako bilera-agiriak iruzkinik jaso ez duenez gero, bere horretan onartu da.

3. Euskaltzaindiaren 2014. urteko behin-behineko aurrekontua aurkeztu.

Aurreko bileran egitekoa zena, baina kudeatzailearen gaixotasunagatik ezin egin, aurkeztu du oraingoan J. Zabaletak, eta 2014ko aurrekontuaren hasierako proposamena, 10 orriko txosten batean, paperean banatu du euskaltzainen artean. Era berean, proposamen hori pantailan proiektatu da. Hor 1) Diru-sarrerak, 2) Gastuak eta 3) Gastu eta Irabaziak atalak azaldu dizkie euskaltzainei. Diru-sareren aurreikuspena orain arteko informazioaren arabera egin da.

Ekarpen gehienak baieztaturik daude, eta, edonola ere, aurreikuspen errealistak egin dira. Sarrerak handitzeko aukerak ez dira oso ugariak, baina badirenak landu beharko dira, bai Herri Aginteen aldetik, bai erakunde pribatuen partaidetza sustatuz eta Fundazioaren sorrerarekin. Zuzendaritzak ustezko ekarpen berriok kudeatu eta aldian-aldian Osoko bilkurari informazioa emanez.

2009-2014 arteko epealdian izandako diru-sareren bilakaera ere erakutsi du, grafiko batean. Ondoren, galdu eta irabazien sarrerak erakutsi ditu, xeheki desglosatuz. Gauza bera egin du gastuekin ere, hor pertsonal gastuak, ondasun arrunt eta zerbitzuak, argitalpenak, ibilgetuen amortizazioa, fidantza gastuak, eta egitasmoak xeheki azalduz. Azkenik, Galdu eta Irabazietan aurrekontu orekatuak izan behar direla esan du, hots, gastuak = diru-sarrerak. Halere, gastuak diru-sarrerak baino 100.000 euro handiagoak direnez, egokitzapenak egin beharko dira gastuetan, sarreretan edo bietan, eta Zuzendaritzak urtean zehar lan egin beharko du, ez baita zeregin erraza izanen.

Azkenik, 2014ko aurrekontua behin-behinekoz onartzea eskatu dio Zuzendaritzak Osoko bilkurari. Halaxe egin da Osoko bilkuran, behin betiko onarpenera eman arte. Halaber, aurrekontua findu eta hobetzeko asmoz, ekarpenak egiteko aldia ireki da. Horiek horrela, ekarpenak egiteko epea otsailaren 21ean amaitzen da. E. Osak eskatu du ekarpenak zehatz egiteko, aurkezturiko txostenaren orrialdearen aipamena eginez.

4. Euskaltzaindiaren «Historia» egitasmoak emanikoa aurkeztu.

Hasteko, J. L. Lizundiak Iasmina Gorroño egitasmoan jardun duen teknikaria batzar-gelara sartzeko eskatu du. Ondoren, egitasmoaren gidoia pantailan agertu

eta orri batean ere testua banatu da euskaltzainen artean. J. L. Lizundiak laburki aurkeztu ditu proiektuaren nondik norakoak: hastapenak, aholkulari izan direnak eta barruraturiko helburua, hots, Akademiaren historia, 1918tik 2004ra bitartekoa, egitea. Lanak izango dituen kapituluak eta edukiak, eta, horretarako, nolako dokumentazio idatzia eta ahozko lekukotasunak erabiliko diren aipatu ditu. Ondoren, hitza I. Gorroñori eman dio, eta beronek materialen kudeaketaz eta lan metodologiaz hitz egin du. Akademiaren jardunaldiari dagokionez, R. M. Azkuerengandik hasita, ondorengo euskaltzainburuen agintaldietan egindako pauso nabarmenenak gogoratu ditu, bai eta garai horietako euskaltzain aipagarrienak ere: F. Krutwig, K. Mitxelena, L. Villasante, Txillardegia, G. Aresti, kasu. Batzar eta jardunaldi erabigarrienak ere aipatu ditu (Arantzazu eta Bergarakoak, adibidez).

Era berean, Euskaltzaindiak bere historian zehar izandako egoitzak eta ordezkariak gogoratu ditu, lan egiteko barne banaketaz, sail ezberdinez, jardunaldi nagusi, ospakizun, mendeurren, sarrera-hitzaldi, omenaldiez, etab., bai eta batzorde eta azpibatzerdeen lan berezietan ere. Egin duen aurkezpena, idatziz euskaltzain guttietan helaraziko zaiela esan du.

Ondoren, euskaltzainei galderak egiteko aukera eman zaie, hala nahi izanez gero, itaunak egin ditzaten. Tx. Peillenek frantsesezko dokumentuez galdetu du, ea non diren jakin nahirik. A. Urrutiak, bere aldetik, trantsizio aldiaren Euskaltzaindiaren onarpenarekin loturiko jatorrizko dokumentuak Alcalá de Henaresen egon daitezkeela esan du. Izan ere, hantxe dago ministerioko artxiboa. P. Zabaletak esan du, oro har, gerraurreko aipamenak oso laburrak izaten zirela, eta mereziko lukeela ikertzea. Inguruabar horretan, Arturo Campionek utziriko ondarea, egun Nafarroako Gobernuaren esku dagoena, eta gaur arte ukitu gabe dagoena arakatzea interesgarria izan daitezkeela azpimarratu du. J. L. Lizundiak arrazoia eman dio.

Amaitzeko, euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie bai J. L. Lizundiari eta bai I. Gorroñori ere, eta galdetu du ea material horiek Azkue Biblioteka eta Artxibora noiz transferituko diren. Ondorioz, material horren transferentzia egitean, idazkariordearen eta kudeatzailearen esku-hartzea eskatu du.

5. Baionako Osoko bilkuran abiatutako gogoetaldia.

Euskaltzainburuak adierazi duenez, Baionan eginiko Osoko bilkuran harturiko erabakiak betetzeko asmoz, Zuzendaritzak Gramatika batzordeko buruari eta idazkariari, Hiztegi Batuko lantaldeko arduradunari eta Onomastika eremuko buruari ohar bana bidali die gogoetaldiaren berri emanez. Guztiek onartu dute gogoetaldian parte hartzea, eta bakoitzetik parte hartuko dutenak ere finkatu dituzte. A. Urrutia

euskaltzainburua, X. Videgain buruordea eta A. Arejita Iker sailburua joango dira bileretara, Zuzendaritzaren izenean.

Gramatika batzordetik hastea erabaki da Zuzendaritzan. Hortaz, otsailaren 4an, bilkura egingo da eta gogoetaldiari hasiera emango zaio. Egiten diren urratsen berri aldiro emango zaio Osoko bilkurari.

Era berean, Ibon Sarasolak 2013. urtearen bukaera arte Euskaltzaindiarekin *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak* izeneko egitasmoa zuzentzeko izan duen kontratua hemendik aurrera ez berritzeko asmoa Zuzendaritzari idatziz adierazi ondoren, egitasmo horren zuzendaritza berritu behar izan dela esan du euskaltzainburuak. Horretarako, Zuzendaritzak, 2014ko urtarrilaren 22an eginiko bilkuran, 2014. urtean, Andoni Sagarna euskaltzain osoa eta Gipuzkoako ordezkaria dena proposatzen du egitasmoaren zuzendari izateko. Halaber, A. Sagarnari laguntzeko, Hiztegi Batuko lantaldeko burua den Miriam Urkia euskaltzain urgazlea arduradun gisa eta, 2013ko martxoa arte, Hiztegi Batuko lantaldeko arduradun izan den Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgazlea aholkulari lanetan jardutea ere proposatu du. Amaitzeko, egitasmoan orain arte aritu diren teknikariek ere lanean segituko dute. Proposamen guztiak berretsiak izan dira Osoko bilkuran.

6. Esku artekoak.

6.1. HABE erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. Jarraipen batzordean Euskaltzaindiak izango dituen bi ordezkariak izendatu ditu Zuzendaritzak, 2014ko urtarrilaren 9an eginiko bilkuran. Honako hauek: Joan Mari Torrealdai euskaltzaina eta liburuzaina, eta E. Osa idazkariordea.

6.2. Aurkezpenak. Otsailaren 15ean, larunbata, goizeko 10:30ean, Mauleko Herriko Etxean, Jean-Baptiste *Battitu* Coyosek paraturiko *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* liburuaren aurkezpena egingo da.

6.3. Hurrengo bilkura. Otsailaren 28an, goizeko 10:00etatik aurrera, Osoko bilkura egingo da Donostian, Foru Aldundian.

7. Azken ordukoak.

7.1. Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan. S. Aleman, A. Iñigo, P. Salaberri eta P. Zabaleta Nafarroako euskaltzainek, berek sinaturik, testu bat aurkeztu dute, Nafarroako gurasoak beren haurrak D ereduan matrikula ditzaten bultzatzeko eta eredu horretan ari direnen lana eskertzeko. Matrikulazio-aldia ireki berri denez gero, komenigarri iritzi diote jendearen aurrean euskarazko irakaskuntzaren aldeko agiri bat azaltzeari. Testua A. Iñigok irakurri du.

P. Salaburu oinarriz testuaren alde dago. Baina uste du holako egoerak, edo are txarragoak, badirela beste tokietan ere, eta beharbada hori azertu beharko da. Ipar Euskal Herria aipatu du. Halere, ez dauka garbi. A. Urrutiak uste du Euskaltzaindiak Nafarroako gurasoei zorionak helarazi beharko lizkiekeela, beren orain arteko jarreragatik adorea emateko. J. L. Lizundiak, bere aldetik, esan du gogorarazi beharko litzatekeela Euskaltzaindiari herri aginteez aitoruriko zeregin, Errege Dekretuak eta indarrean dagoen araubidean jasotzen dena, zein den. Sagrario Alemanek zalantza izan du, ea testuan Nafarroa ala Euskal Herri osoa aipatzea komeni ote den. E. Osak uste du hoberena litzatekeela Nafarroa bakarrik aipatzea. Gizarteari zuzendua denez gero, ahalik eta erarik sinpleenean eta adierazkorrenean.

P. Zabaletak «...euskarazko irakaskuntza Gaztelania irakasgaiarekin...» aipamena jasotzea komeni den zalantza agertu du. Horrexetarako, Kataluniako murgiltze-ereduari buruz atera den epaia izan du hizpide. M. Azkaratek esan du, Euskal Herrian ez bezala, Katalunian ez dagoela soilki gaztelaniaz (A eredu) ikasteko aukerarik, eta beraz, P. Zabaletaren erreparoa ez genukeela eduki behar.

Beraz, testua honela utzi da: «Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan: Nafarroako irakaskuntzan iragarri da datorren 2014-15 ikasturtean izena emateko epea. Urtero bezala, gurasoek aukera izanen dute beren umeak D ereduari matrikulatzeko, bai irakaskuntza publikoan, bai ikastolen sarean. Izan ere, ikastetxe horiek aukera paregabea eskaintzen diote Nafarroako gizarteari, gurasoei bereziki, nafar guztiona den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, beren seme-alabak mundu zabalera begira hezi ahal izateko.

Euskara babestea, gizartearen maila guztietara zabaltzea eta erabilera sustatzea Euskaltzaindiaren zeregin berariazkoak dira. Hori horrela, Akademiak Nafarroako haurren gurasoak xede horiekin bat egitera gonbidatzen ditu eta beren seme-alaben heziketarako D eredu (euskarazko irakaskuntza gaztelania irakasgaiarekin) hautatzera animatzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkie eredu hori hautatzen duten gurasoei, bai eta eskerrak eta babes osoa ere, irakaskuntza publikoan zein ikastolen sarean urte luzez, zeregin horri osoki emanak eta emaitza bikainak lortuz lanean aritu diren eta ari diren irakasleei eta gainerako langileei».

Gaurko Osoko bilkuraren ondoren K. Rotaetxeren hilberri txostena irakurri behar denez gero, testua datorren astean, astelehenean zabalduko dela adierazi da.

7.2. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako soberakinez. J. M. Torrealdai bibliotekari akademikoak Akademiaren bibliotekako soberakinak, hots, liburu eta

material errepikatuak, euskaltzainen artean banatzeko eskaintza egin du. Horretarako, interesdunek aski dute beren identifikazio zenbakia idaztea txartel batean. Epea otsailaren 28ra artekoa da.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, eguerdiko 12:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n

Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren
hilberri txostena

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil zen Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kalzakarta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Pello Salaburu, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain urgazleak: Xabier Altzibar, Rikardo Badiola, Sebas Gartzia, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea eta Jacinto Iturbe.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Jose Miguel Rincón Karmele Rotaetxeren alarguna, eta haren senide eta hurbi-lekoak Jon Rotaetxe, Miren Bareñano, Ana Allende eta Maite Ariza.

Ana de Castro Rubalcaba Bizkaiko Foru Aldundiko Euskarazko zuzendari nagusia.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza Xabier Altzibar euskaltzain urgazleari eman dio, Karmele Rotaetxe 2013. urtean hildako ohorezko euskaltzainaren hilberri txostena irakurri dezan.

Karmele Rotaetxe Bilbon jaio zen, 1932ko urtarrilaren 17an. Espainiako Gerraren ondorioz, familia Frantziara erbesteratu zen, eta han eman zuen haurtzaro eta

gatzaroaren zati bat. Aurreneko ikasketak ere han egin zituen, eta inoiz ez zion ikasteari utzi. Batxiler ikasketak amaitu, unibertsitatera joateko dirurik ez, eta lanean hasi behar izan zuen. Azkenean, 30 urte zituela, 1962an, Deustuko Unibertsitatean hasi zen Frantses Filologia ikasten eta frantsesa irakasten.

Tesina Simon de Beauvoir-i buruz egin zuen, eta hautuak Rotaetxeren nortasunaz zertxobait azaltzen du. Izan ere, Xabier Altzibarrek azaldu bezala, aita Coloma jesuitari buruzko tesina egiteko proposatu zioten, berak ezetz esan eta *Simone de Beauvoir*, *nobelagile* izeneko lana burutu zuen. «Simone de Beauvoir aukeratzea –azpimarratu du Altzibarrek– ez zen batere ohikoa garai haietan, ohikoa ez zen legez emakume batek unibertsitatean ikastea: bospasei baino ez ziren izango ikasle emakumeak Deustuko unibertsitatean. Karmelerena izan zen lehenengo tesina Frantses Filologian, eta Bikain kalifikazioa jaso zuen. Bere erabaki ausartarekin Karmelek unibertsitatea aurrerabidean jarri zuen eta erakutsi emakumeak ez zirela bigarren mailakoak».

«Euskarak eta irakaskuntzak aldatu zuten Karmeleren bizitza», esan du X. Altzibarrek gaurko mintzaldian. Gurasoak ez ziren euskaldunak, eta Rotaetxe euskaldundu zen buruz eta bihotzez; harrezkero, euskararen irakaskuntza eta ikerkuntzan eman du bizitza osoa, eta horretan langile nekaezina izan da hil arte. Patxi Altunarekin batera, euskara irakasten hasi zen Deustuko Unibertsitatean, euskarazko lehen eskolak izan zirelarik.

Irakaskuntza, berriz, euskal kulturarekin lotu zuen. Gauzak horrela, Karmele Rotaetxe euskal kultura ekitaldietara joaten zen, ez zuen huts egiten, eta orduan bezala 30 urte geroago ere ez, Xabier Altzibarren hitzetan.

1977an, Koldo Mitxelena zuzendutako *Estudio estructural del euskera de Ondarroa* izeneko tesiari esker doktoretza lortu zuen, Salamancako Unibertsitatean.

1977tik aurrera, euskara klaseak ematen hasi zen, Bilboko Unibertsitate Autonomoan. Ondoren, Leioako Kazetaritza Fakultatean lan egin zuen, euskara eskolako koordinatzaile. 1979an, Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea abian jarri zen eta bertan jardun zuen Rotaetxek. 1987an, gainera, Hizkuntzalaritza Orokorreko katedra eskuratu zuen. Gasteizko Filologia Fakultatean ia 20 urtetan irakasle izan zen. 2001. urteaz geroztik, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle emeritua zen.

K. Rotaetxe –esan du Altzibarrek– ikertzailea izan da, batez ere. Ikerturiko gai nagusiak euskal hizkuntzalaritza, tipologia eta soziolinguistika arlokoak dira eta gai

horietan jardun du etengabe 30 urtez. Era berean, gure hizkuntzaren ordezkari nabarmenatariko bat izan da kanpoko ikerketa foroetan, X. Altzibarren aburuz.

Tesi zenbaiten zuzendari, nazioarteko hizkuntzalari-elkarte, kongresu eta proiektuetan partaide, Eusko Ikaskuntzako kide, eta europar proiektu batzuetan partaide izan zen. Ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak 2004ko azaroaren 26an, Gasteizen eginiko Osoko bilkuran. Testuinguru horretan, Euskaltzaindian egindako lan batzuk gogora ekarri ditu Xabier Altzibarrek: Euskaltzaindian Euskalariekin Harremanak delako batzordean kontseilari izan zen (1981-1983), Dialektologia batzordeko kide (1981-1989), Euskalkien Ikerketa azpibatzerdekoa (1989-1995) eta Sustapen batzordeko aholkularia azken 6 urteetan (2007-2013). Gramatika batzordeko kidea izan zen 28 urtez (1981-2009), eta Gramatika batzordean 6 liburuki lantzen eta argitaratzen parte hartu zuen.

Hala, bada, «makume azarri eta behargina izan da, kultura ekintzailea eta irakaskuntzan bidegilea, eta euskararen azterketari maila zientifikoa eta ikuspegi kritikoa ematen ahalegindu izan da beti», Altzibarrek esan duenez.

Hori izan zen Karmele Rotaetxe, Xabier Altzibarren iritziz.

Agur-hitzak euskaltzainburuak esan ditu. Bere esanetan, Karmele Rotaetxe «urte luzeetan euskalgintzaren lekukoa eta partaide izan da. Euskara bera izan du bere bizitzaren ikur nagusia. Eta bera gogoratzen dugunean, belaunaldi oso bat gogoratzen dugu Bilbon... eta Euskal Herri osoan. Bere burua euskaldundu zuen belaunaldi bat, euskararen alde lan nekaezina egin duena eta euskarari aurrerabidea eman dion belaunaldia».

Euskaltzainburuaren hitzekin bukaera eman zaio Euskaltzaindiak Bilbon gaur egin duen Ageriko bilkurari, eguerdiko 13:20 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, 2014ko otsailaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala A. Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Xabier Kintanari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Batzarra Donostiako Foru Diputazioan hasi da 10:00etan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela ezagutu eta gero, otsaileko Osoko batzarrari hasiera eman zaio, eguneko aztergaien arabera.

1. Osoko bilkurako (2014-01-31) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

J. L. Lizundiak 2. orrialdean, aurreko bilera-agiria dela eta, bere izenean datorrena, honela jar dadin eskatu du: «J.

L. Lizundiak dio hori egitea ez dagokiola Zuzendaritzari, eta bestalde bozketa ez zela horrela egin behar, beraz, ez dator bat». Halaber, hortik aurrera datorrenarekin aparteko paragrafo bat egin dadin eskatu du, ez baitu berak esandakoarekin zerikusirik. Iruzkina onartu da.

P. Goenagak bi ohar aurkeztu ditu: batetik, 3. orrialdeko 3. paragrafoak dio: «Azkenik, 2014ko aurrekontua behin-behingo onartzea eskatu dio Zuzendaritzak Osoko bilkurari. Halaxe egin da Osoko bilkuran.» Bere ustez, azken esaldiak dioena ez dago ondo jaso, ez baitago argi behin-behineko edo behin betiko onarpena eman zaien aurrekontuei. Bestetik, Onomastika batzorde ahaldunduak, 2013ko azaroaren 29an aurkezturiko *Pertsona izenen gomendioaren* harira, euskaltzainek oharrak egiteko lana hartu zuten gero, eta, Hego Euskal Herrian, Espainiako Justizia Ministerioak legean egindako aldaketa baten bitartez, arauaren sexu bereizketarako irizpidea ezerezean utzi duenez gero, araugaiaren habe nagusietako bat ezerezean geratu da. Horiek horrela, gertatutakoari buruzko oharra bilera-agirian jaso beharko litzatekeela esan du. A. Urrutiak berretsi du lege-aldaketak dioena eta eskerrak eman dizkie ohargileei.

P. Goenagaren lehen oharrari buruz iritziak egon dira Osoko bilkuran. Azkeanean, P. Salaburuk eta S. Alemanek ondoren datorren testuagatik ordezteko proposatu dute: «Azkenik, 2014ko aurrekontua behin-behingo onartzea eskatu dio Zuzendaritzak Osoko bilkurari. Halaxe egin da Osoko bilkuran, behin betiko onarpena eman arte». Eginiko oharra onartu da Osoko bilkuran.

A. Iñigok bi iruzkin egin ditu; 3. orrialdeko «Arturo Kanpion» jatorrizko «Arturo Campion» izenarekin ordezteko eskatu du; bestetik, 5. orrialdean, 3. paragrafoan «behar» hitza errepikaturik azaltzen denez gero, horietako bat ezaba dadin eskatu du.

J. L. Lizundiak 4. puntuaren amaieran azaltzen den esaldia («Ondorioz, material horren transferentzia egitean, idazkariordearen eta kudeatzailearen esku-hartzea eskatu du. *Halaxe egingo dela onartu da*») ezaba dadin eskatu du. Halaxe egitea erabaki da Osoko bilkuran.

P. Salaburuk «7.1. Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan» atalean, «P. Salaburu oinarriz testuaren alde dago, baina zalantza du Ipar Euskal Herriko egoera zein den kontuan hartuz, ez ote litzatekeen hori ere aipatu behar» esaldiaren ordezkari, honakoa hau jaso dadin eskatu du: «P. Salaburu oinarriz testuaren alde dago. Baina uste du holako egoerak, edo are txarragoak, badirela beste tokietan ere, eta beharbada hori aztertu beharko da. Ipar Euskal Herria aipatu du». Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

Bilera-agiriarekin amaitzeko, A. Iñigok kezka agertu du osoko bilkuretako bilera-agiriei aldez aurretik idatziz oharrak egiten ez zaizkielako, Osoko bilkuran bertan oharrak eta iruzkinak ahoz aurkezten direlako eta puntu hori etengabe luzatzen delako.

Aztergaien 2. puntua gerorako utzi da. Horiek horrela, 4. puntua 2.a eta 5. puntua 4.a izatera igaro dira.

2. Exonomastika. «Antzinateko pertsona-izenak I, II eta III» aurkeztu.

Euskaltzainburuak hitza Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkari eta euskaltzain urgazleari eman dio. Hasteko, idatziz ekarriko izen-proposamenen zerrendak euskaltzainen artean banatu eta, ondoren, banan-banan azaldu ditu. Lehen zerrendan, Sumer, Akad, Asiria eta Mesopotamiako izenak transkribatzeko metodoa argitu du. Antzinate Klasikoko pertsona-izenak (II) jorratzean, Mediako eta Akemenestar inperioetako errege eta agintari nagusien izenak ikusi dira. Azkenik, Antzinateko Egiptoko izen-zerrenda aurkeztu du, bertako jainko eta faraoien izenen transkripzioa azalduz. Hiru zerrendetan Euskaltzaindiak orain arte onarturiko sistema errespetatu dela argitu du, inguruko kultura-hizkuntza nagusiak ere kontuan izanda, hots, ingeleza, frantsesa, gaztelania eta alemana bereziki. Era berean, Bibliako eta Greziako tradizio egokituak ere aztertu dira, ahalik eta datu gehienak bateratzen ahaleginduz. Oharrak martxoaren 21erako bidaltzea erabaki da.

3. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2014. urteko planak aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak batzorde, lantalde, egitasmo eta zerbitzuetatik jasoriko planak zerrendatu ditu, bai eta falta direnak aipatu ere. Falta diren planak-eta jasotzeko ahalegina egingo da. Hurrengo Osoko bilkurara 2013. urteko errendapenak eta 2014. urteko plangintzak ekarriko dira, maiatzeko Osoko bilkurak onar ditzan, hala egitea erabakitzen badu.

4. Euskaltzaindiaren webguneko zenbait atal mugikorretan kontsultatu ahal izateko, prestaturiko aplikazioaren aurkezpena.

Euskaltzainak Batzar aretotik irten eta beste areto batera joan dira. Hedabideen aurrean egin den aurkezpenean, Alazne Gorrotxategik, beirikuntza paratzeaz arduratu den informatikariak, eginiko bertsioaren nondik norakoak aurkeztu ditu. Funtsan, Euskaltzaindiak bere webgunean jarriak dituen atal erabilienak (Hiztegi Batua, Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Onomastikaren Datutegia) telefono mugikorretatik zuzenean kontsultatzeko bertsioa da aurkeztu dena. Ondorioz, mu-

gikorrek ez dute inolako aplikaziorik-eta eskuratu behar atal horiek kontsultatu ahal izateko.

Aurkezpenaren ondoren, hasierako batzartokira itzuli dira euskaltzainak.

5. Baionako Osoko bilkuran abiatu-rikiko gogoetaldia.

Idazkariordeak informazioa eman du. Gogoetaldi horren barruan, bilera egin dute otsailaren lauan, A. Urrutiak eta X. Videgainek (A. Arejitak ez zuen bilkura-
ra joateko erarik izan) Zuzendaritzaren izenean eta Gramatika batzordearen izenean, berriz, P. Salaburuk eta J. M. Makazagak, batzordeko burua eta idazkaria hurrenez hurren. Bilera honetan zenbait puntu adostu dira. Horren ondorioz, Zuzendaritzak, otsailaren 12an eta 26an eginiko bilkuretan, puntuok begi onez ikusten dituela erabaki zuen, eta gaur ekarri ditu Osoko bilkurara, honek, hala erabakitzen badu, berretsi ditzan. Ondoren, Zuzendaritzak otsailaren 4ko bileraren akta irakurtzea eta otsailaren 4ko bilerako puntuak berrestea proposatu du. Halaxe egitea erabaki da Osoko bilkuran.

Ondorioz, idazkariordeak otsailaren lauko bilera-agiria irakurri du. Osteen, adostutako puntuak irakurri ditu, berretsiak izan daitezzen. Ondorengoak dira Osoko bilkuran irakurri dituen puntuak:

- a) Gramatika batzordeak lan handia egingo du (*EGLU*en eguneratzea eta moldaketa), Euskaltzaindiko beste batzordeek duten autonomia eta koordinazio berarekin.
- b) Gramatika batzordeak lan txikia egingo du (*EGLU*en laburpena, proposamenak, eta abar), Euskaltzaindiko beste batzordeek duten autonomia eta koordinazio berarekin. Bi kasuetan Gramatika batzordeak zehaztuko ditu edukiak eta Osoko bilkuran aurkeztuko. Osoko bilkurak erabakiko du gero, lan hori Euskaltzaindiaren izenean argitaratu nahi badu, nola kudeatu materialen eztabaida.
- c) Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak beste liburu bat egitea bultzatuko du, batzorde ahaldundu suntsikor baten bidez. Liburu horrek (izenburua *Euskara Batuaren Eskuliburu*a izan dezakeena), hasierako fase batean, Euskaltzaindiak emanak dituen arauak, gomendioak eta irizpenak (morfologiakoak, sintaxikoak, ortografiakoak, onomastikakoak, hiztegikoak) era didaktiko eta dibulgatiboan jasoko lituzke.
- d) Zuzendaritzak Osoko bilkurari proposatzen dio puntuok garatuak izan daitezela hurrengo osoko bilkuretan, horretarako behar diren agiriak ekarriz, eta Osoko bilkuraren erabakimenean jarriz.

P. Salaburuk hitza eskatu eta adostu dena iazko Barne Jardunaldietan Gramatika batzordeak aurkeztutako plana dela azpimarratu du. Tartean urte bat galdu dela ere gaineratu du. Era berean, 2000ko martxoaren 30/31ko Osoko bilkurako bilera-agiriak dioena ere irakurri du. Izan ere, bertan Euskaltzaindiak onarturiko arauekin argitalpen bat paratuko zela jaso zen, bai eta honi buruzko epeak eta bestelako argibideak ere. Harrezkero, inolako argibiderik ez dela eman ere gaineratu du.

P. Urribarrenek Gramatika batzordekideek *Euskara Batuaren Eskuliburua* orain onartu dutela esan du. Bere iritziz, azaroan onartu izan balitz ez zen iskanbilarik sortuko, biak bateragarriak ziren eta. J. L. Lizundiak azaroan bi egitasmoak kontrajartzean gaizki egin zela nabarmendu du eta ondo egin dela zuzendu denean. Era berean, bi egitasmoak koordinaturik garatu behar direla ere azpimarratu du.

A. Urrutiak adostutakoa berresten den eta inork botaziorik eskatzen duen galdetu du. Inork botaziorik eskatu ez duenez gero, adostutakoa berretsi da Osoko bilkuran, aho batez.

6. Euskaltzaindiaren 2014. urteko aurrekontua: jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala onartzen bada.

Sagrario Alemanek eta J. Zabaletak euskaltzainek eginiko oharrak (Goenaga, P.; Oñederra, M. L.; Lizundia, J. L.; Salaburu, P.; Torrealдай, J. M. eta Urrutia, A.), bai eta Zuzendaritzak egiten duen proposamena ere aurkeztu dituzte. Horretarakoxe bi dokumentu baliatu dute; batetik, *2014ko aurrekontua. Euskaltzain osoen oharrak*; bestetik, *2014ko aurrekontua, Zuzendaritzak 2014-02-26an aho batez onartua*. Lehenbizikoak euskaltzainek eginiko ohar guztiak jasotzen ditu, bigarrenak, Zuzendaritzak aurrekoak kontuan harturik egiten duen proposamena.

2014ko aurrekontua, Zuzendaritzak 2014-02-26an aho batez onartua deituriko dokumentuan, aurrekontuak izan dituen egokitzapenak, diru sarreretan eta gastuetan, azaldu eta azpimarratzen dira. Diru sarreretan atala aurrekoan aurkeztutakoa baino 19.746,41 euro handiagoa da. Era berean, aurrekontu orekatua izango da, euskaltzain osoek egindako ekarpen batzuetan jasotako kezka eta eginiko proposamenak kontuan hartuz.

Irizpideei dagokienez, Zuzendaritzak, euskaltzain batzuen ekarpenak-eta aintzatzat hartuz, batzordeetako, lantaldeetako eta Osoko bilkuretako batzar-dietak ordaintzea proposatzen du. Irizpide honek, sarreretan eta irteeretan atalen artean aurreko proposamenean zegoen diferentzia (begiz jotako defizita) areagotzen duenez, aurrekontu orekatuak aurkeztu ahal izateko, egokitzapen txiki batzuk aparte utzirik, munta handiko bi egokitzapen egitea proposatu du Zuzendaritzak.

Batetik, ikertzailearen estatutua garatu ondoren, egitasmoetako teknikari batzuei ikertzaile-kontratua eskaintzeko prozesua bizkortzea. Horrek, Balio Erantsia-
ren gaineko Zergan aurreratzea eta egitasmoetan inbertitu ahal izatea ekarriko du. Ikertzaile-kontratua abian jarri ahal izateak Euskaltzaindiko ikertzailearen estatu-
tua martxoko Zuzendaritzaren bileran lantzea eta Osoko bilkuran aurkeztea eska-
tuko du.

Bestetik, Hiztegi Batuko lantaldearen lanak egiteko, bai eta Zientzia eta Teknika egitasmoa garatzeko ere, aurreikusiriko aurrekontuak doitzea proposatu da. Lehenbizikoari dagokionez, bilera baterako prestalanak aurreikusi dira. Egitasmoa-
ren kasuan, ordea, orain arte aurreikusiriko aurrekontuaren erdia jasotzea erabaki da. Horiek horrela, lantaldearen gainerako lanak eta egitasmoaren aurrekontuaren bigarren zatian begiz jotako planak garatuko dira, Euskaltzaindiak bitarteko gehi-
garriak eskuratzen dituen neurrian. Ondorioz, baldintzaturik geratuko da hauen garapena. Nolanahi ere, Zuzendaritzak konpromisoa hartu du bi egitasmo hauek normaltasunez garatzeko bitartekoak eskuratzen ahalegintzeko.

J. L. Lizundiak, egitasmoen atalean, 2013an geroratutako «Euskaltzaindiaren Historia» egitasmoa 2014. urtean berriz martxan jartzeari buruz egin duen proposamenaren inguruan inolako azalpenik, ez eta argibiderik ere ez duela jaso nabarmendu eta protesta egin du. Era berean, 2014. urteko aurrekontuak bozka daitezen eta isilpeko botoa eman dadin eskatu du.

S. Alemanek erantzun dio esanez zuzenean erantzun ez bazaio ere, Zuzendaritzak eginiko proposamenean agertzen ez denez gero, eginiko ekarpena ez dela Zuzendaritzak markaturiko lehentasunetan barruratu. Izan ere, 2014. urteko irizpideetan lanpostuak eta egitasmoak bere horretan mantentzea proposatu da, beraz, ez da bestelako egitasmorik, ez eta geroratutakorik ere, abian jartzea aurreikusi.

J. L. Lizundiak desadostasuna agertu du eta oharrak egin dituzenez gero, erantzuna zor zaiola nabarmendu du.

Puntu honekin amaitzeko, isilpeko botazioa egin dadin eskatu denez gero, 2014. urteko aurrekontuei behin betiko onarpena emateko bozketa egin da. Emaitza honakoa izan da: 22 bai, 2 ez eta boto 1 zuri.

7. Esku artekoak.

7.1. J. B. Coyosen liburu berria Maulen aurkeztua. Martxoko Osoko bilkuran banatuko da *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* liburu berria, Euskaltzaindiak argitaratua, jada Mauleko Herriko Etxean otsailaren 15ean aurkeztua.

7.2. Hurrengo bilkurak. Martxoaren 28an, goizeko 09:30ean Osoko bilkura egingo da Bilbon, egoitzan. Ageriko bilkura ere egoitzan bertan egingen da, 2013. urtean urgazle izendatu zirenei diplomak-eta emateko.

Eta besterik ez dela, 13:40an Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, 2014ko martxoaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Ar-
kotxak ahala Joan Mari Torrealdairi;

Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres
Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala An-
dres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala
Andres Urrutiari

Batzarra Bilbon, Euskaltzaindiaren
egoitzan goizeko 09:30ean hasi da, ez-
kerreko zutabearen ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskal-
tzain guztiak agurtu eta etorririkoan
zerrenda eta ahalak irakurri ditu. On-
doren, quoruma badela egiaztatuta,
Euskaltzaindiaren martxoko Osoko ba-
tzarrari hasiera eman zaio.

Hasteko, Osoko bilkuraren ostean, eus-
kaltzain urgazle berriei diploma eta ikurra
emateko 12:00etan egingo den Ageriko
bilkuraren xehetasunak azaldu ditu idaz-
kariordeak. Kantak eta musika, Euskal-
tzaindiko idazkariaren eta euskaltzainbu-
ruaren hitzaldi bana barruratzen ditu
ekitaldiak. Diplomak eta ikurrak emateari
dagokionez, batzordeburu, taldekide eta
zuzendaritzako kideek emanen dituzte.

Eguneko egitaraua aurkeztu ostean, aztergaiak jorratzeari ekin zaio Osoko bilkuran.

1. Osoko bilkurako (2014-02-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

M. L. Oñederrak 4. orrialdeko 6. puntuko lehen paragrafoan, Euskaltzaindiaren 2014. urteko aurrekontuei oharrak-eta egin dizkieten euskaltzainen izenak parentesien artean jasotzeko proposatu du. Halaxe egitea onartu da Osoko bilkuran.

J.-B. Battittu Coyosek 5. orrialdeko 7. puntuan (esku artekoak) berak paraturiko liburuaren izenburua ez dela zuzen jaso nabarmendu du. Ondorioz, zuzentzea erabaki da.

Bestelako oharrak egon ez denez gero, egin zaizkion bi oharrak txertatu ondoren, bilera-agiria onartu da.

2. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2013. urteko errendapenak eta 2014. urteko planak aurkeztu.

Idazkariordeak jasotako errendapenak aurkeztu ditu. Herri Literatura batzordearena falta dela ere adierazi du. Urteko planak egiteko baliatzen den fitxa erabili da errendapenak egiteko. Fitxa honetan, batzorde, lantalde edo egitasmo bakoitzaren azalpen laburra, bakoitzean ari diren kideak, bai eta egindakoak eta adierazleak edo lorturiko emaitzak ere jasotzen dira. Zerbitzuei dagokionez, aurten egin da hauei buruzko errendapen-fitxa, lehenbiziko aldiz.

Plangintzari dagokionez, batzordeek, lantaldeek, egitasmoek eta zerbitzuek aurkezturiko urteko egitasmoak azaldu dira, bai eta horietan jardungo dutenen izenak jaso ere, XVIII. Barne Jardunaldien ondoren berrituriko Aurkitegiaren arabera. Plangintzei dagokienez, Herri Literatura batzordearen, Gramatika batzordearen eta *Euskara Batuaren Eskuliburua* egitasmoaren urteko planak aurkeztea falta da. Azkeneko biek ez dute eduki asti nahikorik planak hezurramitzeko. Ondorioz, maiatzeko Osoko bilkuran aurkeztea aurreikusi da.

Aurkezturiko txostenek orrialde asko dituztenez gero, euskaltzainei euskarri elektronikoa eskuratuko zaizkie, errazago begiratzeko modua izan dezaten. Paper euskarrian ere bidaliko zaizkie, hala eskatzen duten euskaltzainei.

Argibideak eskatzeko edo proposamenak egiteko aldia maiatzaren 12an, astelehenan, amaitzea erabaki da Osoko bilkuran. Idazkariordeak, bidaltzen direnak ahalik ondoen ordenatzeko eta egin beharrekoak errazteko, orrialdea azpimarratzea eta oharrak edo proposamenak aparteko dokumentu batean bidaltzea ere eskatu du.

3. Exonomastika.

3.1. «Antzinateko pertsona-izenak I, II eta III». Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Euskaltzainburuaren ausentziaz, X. Videgain buruordeak Alfontso Mujika agurtu du. Beronek X. Kintanagandik jasoriko oharrak azaldu ditu, pertsona historiko batzuen izenen grezierazko ohiko egokitzapenekin batera, horiexen jatorrizko hizkuntzaren transkripzioa ere jartzeko, Europako kultur hizkuntza gehienetan egiten den bezala, euskara arlo horretan desfasaturik gera ez dadin. Ontzat eman dira.

A. Iñigok izen mota ezberdinak zerrendetan jartzeko moduz ohar bat egin du ahoz, toponimiarako erabiltzen den irizpide berbera historia arloko izenekin ere erabil dadin, koherentziaz jokatzeko. Horrela egitea onartu da, hots, bietan berdin jokatzea.

3.2. «Bibliako pertsona-izenak».

Aurkeztea besterik ez denez gero, «Esku artekoetan» aurreikusitako *Bibliako pertsona-izenak* araugaia puntu honetan aurkez dadin erabaki da.

A. Mujikak azaldu du horko zerrendak eratzeko nolako materialaz baliatu den: Bibliaren orain arteko euskal itzulpenez, euskarazko Historia Santu eta erlijio-liburuez etab. Orain arte Euskaltzaindiak onartu eta argitaraturiko pertsona-izenen zerrendak ere gogoan izan dira, kontraesanak saihesteko. Izen bakan batzuetan gertatzen diren bikoiztasunak ere (Josue/Jesus, Juda/Judas, Joanes, Joan...) seinalatu ditu, beste hizkuntzetan ere holakorik izaten dela gogoratuz, eta bikoiztasun horietarako irtenbideak ere aipatu ditu.

Oharrak maiatzaren 12rako bidaltzea erabaki da.

4. Baionako Osoko bilkuran abiatu-rikoko gogoetaldia.

Pello Salaburu, Jesus Mari Makazaga, Iñaki Amundarain, Miren Azkarate, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Patxi Goenaga, Alan King, Itziar Laka, Céline Mounole, Jose Antonio Mujika eta Beñat Oiartzabal Gramatika batzordekideek 2014ko martxoaren 14an idatzi bat erregistratu dute Euskaltzaindiaren Erregistro orokorrean. Idatzi honetan 2013ko abenduaren 2an sinaturiko dimisio-gutunean jasotakoa gogorarazi dute («Dena dela, baldin aurrerantzean Gramatika Batzordearen lan egiteko modua errespetatzen bada, beti egin izan den gisan, prest egongo gara erraza izan ez den erabaki hau berriz aztertzeko») eta Euskaltzaindiak Gramatika batzordearen hasierako proposamena (hau da, gramatika handia eta txikia, biak, ba-

tzordeak egitea), eta hura betetzeko baldintzak, onartu dituela iritzita, dimisioa erretiratzen dutela jakinarazi dute.

Idatzi honen kopia bana banatu zaie euskaltzainei.

5. Esku artekoak

5.1. Euskaltzaindiaren ikertzailearen estatutua aurkeztu. 2014ko otsailaren 28an Donostian eginiko Osoko bilkuran onarturiko aurrekontuetan (11. orrialdea) jasotakoa betetzeko asmoz, Zuzendaritzak Euskaltzaindian ikertzailearen figura arautzeko proposamena prestatu du. Langileen ordezkari ei ere esan zaie berau proposatzeko asmoa zuela Osoko bilkuran. Gaur aurkeztu den txostena behin-behinekoa da eta hobetua izan dadin aurkezten da, irekita dago-eta ekarpenak jasotzeko. Beronekin ikertzaile profesional ei aukera bat eman nahi zaie, bizimodu duin eta iraunkorra eskaintzeko Euskaltzaindiaren barruan.

B. Oihartzabalek esan du langileekin kontatzea komeni dela. Hori egitea ezinbestekoa dela erantzun zaio. Nolanahi ere, estatutuak lehendabizi Osoko bilkuran oniritzia jaso behar du, gero langileekin hitz egin ahal izateko. Zuzendaritzak hala uste du. Izan ere, esku artean dagoena zirriborro bat da, ekarpenetara-eta irekia. Era berean, P. Zabaletak esan du estatutu hau onartuz gero, honen arabera jardun nahi dutenei hala aritzea nahi duten galdetuko zaiela.

P. Goenagak galdetu du ea ikerketan aritu nahi dutenek estatutu horretara biltzea derrigorrezkoa izango ote duten. A. Urrutia euskaltzainburuak irekita dagoen marko bat dela berriz azpimarratu du eta ikertzaileek, erabakitzen den markoaren barruan jardutea, aukerakoa izango dutela nabarmendu. X. Videgainek, bere aldetik, galdetu du ea euskaltzain osoak ere ikertzaile izan daitezkeen. Euskaltzainei estatutu horren barruan beste eginkizun bat ematen zaiela eta, horren arabera, Akademiaren ikerketa lanetan, aritu daitezkeela adierazi da.

Iruzkinak eta oharrak aurkezteko azken eguna maiatzaren 12a izatea erabaki da Osoko bilkuran.

5.2. Ohorezko euskaltzainak proposatzeko aldia irekitzea. Euskaltzainburuak Arautegia eta Barne-erregelak kontuan hartuz, ohorezko euskaltzainak izendatzeko asmoz, Zuzendaritzaren proposamena aurkeztu du. Jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, gogorarazi du Arautegiaren 39. artikulua dioena, hots: «Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamendua behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egina, eta Batzarrean onartzea».

M. L. Oñederrak galdetu du urgazle berriak noiz izendatuko diren. Ohorezko euskaltzainak izendatu ostean, prozesu horri ekingo zaiola erantzun zaió.

A. Iñigok zenbat izendatuko diren ere jakin nahi luke. A. Urrutiak ez lirakeela gehiegi izan behar pentsatzen du. P. Uribarrenek uste du, ohorezkoak izendatzeko epea atzeratuz joan denez, gehiago izenda litezkeela.

Proposamenak egiteko azken eguna: maiatzaren 12a, astelehena, izatea erabaki da.

5.3. BBK-k Euskaltzaindiari laguntza eman. BBK-ren Gizarte-ekintzak Hiztegi Batuko lantaldearen 2014. urteko lanak aurrera eramateko, 50.000 euroko laguntza eman dio Euskaltzaindiari. Horri dagokionez, gogora ekarri behar da aurreko Osoko bilkuran, 2014. urteko aurrekontuetan onarturiko irizpidea (8. orrialdea): «Hiztegi Batuko lantaldea: -50.646,08 euro. Lantaldearen lana urtean zehar geratu denez gero, oraingoz, bilera bat prestatzeko aurrekontua esleitu zaió (10.000 euro): Zuzendaritzak lantaldearen aurrekontu osoa lortzeko gogoa eta asmoa du hurrengo hilabeteotan». Beraz, Zuzendaritzak harturiko konpromisoa betetzen saiatu da eta ekarpen hori lortu du, BBK-ren aldetik.

5.4. Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Martxoaren 12an, Jose Antonio Retolaza *Kili-kili* pertsonaiaren eta izen bereko aldizkariaren sortzaile, euskararen aldeko ekintzaile eta ohorezko euskaltzaina hil zen Bilbon, 84 urte zituela. Hilberri txostena, Luis Baraiazarra Txertudi ohorezko euskaltzainak paratzea proposatzen du Zuzendaritzak, 2014ko martxoaren 24an eginiko bilkuran.

Zuzendaritzak eginiko proposamena ondo ikusi da Osoko bilkuran.

5.5. Eusko Ikaskuntzaren eta Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria. Sari honetarako hautagaiak aurkezteko epea aurtengo apirilaren 30ean amaitzen dela gogorarazi da. Hortaz, Zuzendaritzak 2014ko martxoaren 19an eginiko bilkuran, Jean-Baptiste Orpustan jauna, ohorezko euskaltzaina, proposatzea erabaki du. Ontzat eman da.

5.6. Euskaltzaindiaren eta Sabino Arana Fundazioaren artean lankidetzahitzarmena izenpetu da, martxoaren 20an. Elkarlana euskararen normalizaziorako eta euskal kulturaren zabalpenerako proposatuko diren egitasmoen inguruan gauzatuko da. Egitasmo hauetan, Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak eta proposaturiko gomendioak zabaltzeko konpromisoa hartzen dute bi erakundeok. Hitzarmen honen ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen *Lexikoa-*

ren *Behatokia* egitasmoa elikatzeke asmoz, Sabino Arana Fundazioak argitaraturiko euskarazko testu-masa osoa Akademiaren eskuetan jarriko du.

5.7. Euskaltzaindiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko urteko lankidetzaren hitzarmena. Era berean, Akademiaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko 2014ko lankidetzaren hitzarmena apirilaren 8an izenpetuko dela jakinarazi da.

5.8. Banatuko diren liburuak. Aurreko Osoko bilkuran geratu bezala, Jean-Baptiste «Battitu» Coyosek paraturiko *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri* liburua banatuko da Ageriko bilkuraren ostean.

5.9. Hurrengo Osoko bilkura. Onarturiko urteko egutegiaren arabera, apirilean ez dago Osoko bilkurarik. Hurrengo Osoko bilkura Donostian egingo da, maiatzaren 30ean, ostiralean, Foru Jauregian, goizeko 10:00etan.

Edonola ere den, apirilaren 21ean Saran egingo den liburu-azokan Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztuko ditu: J. B. Coyos-en *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*; Ernest Daudet-en *Amodioaren martirra*, Elizetxek euskarara itzulia eta Xabier Altzibarrek paraturiko edizioa eta P. Charrittonen *Le fondement moral des droits culturels de l'homme - Kultura-eskubideen oinarri etikoak*.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta besterik ez dela, 11:40an Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urutiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2014ko martxoaren 28an

Euskaltzain urgazle berriei diploma eta ikurra emateko,
Ageriko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2013ko otsailaren 22ko Osoko bilkuran euskaltzain urgazle izendatu zirenei diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Miren Lourdes Oñederra, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzaina.

Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Rikardo Badiola, Pruden Gartzia, Sebas Gartzia, Mikel Gorrotxategi, Jacinto Iturbe, Alfontso Mujika eta Manuel Maria Ruiz Urrestarazu.

Diploma eta ikurra gaur jaso duten euskaltzain urgazle berriak: Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza. Iñaki Aldekoak ezin etorria adierazi du.

Erramun Osa idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

2005. urtetik, gutxienez, Euskaltzaindiko batzorde eta lantaldeetan ari diren hamalau euskaltzain berri izendatu zituen Euskaltzaindiak 2013ko otsailaren 22ko Osoko bilkuran, eta horietatik hamahiru izan dira gaurko ekitaldian. Aldekoaz gain, hauek dira izendatuak: Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutzaga, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza.

Ekitaldian zehar, musika izan dute lagun bertaratutakoek. Izan ere, Pier Paul Berzaitz eta Joxan Goikoetxea musikariek hartu dute parte omenaldian eta Nemesio Etxanizek, Piarres Topet «Etxahun»ek edota Xabier Letek idatziriko poema musikatuak interpretatu dituzte.

Lehenbiziko kanta entzun ostean, ekitaldia gidatu duen Dorleta Alberdi euskaltzain urgazleak eta kazetariak hitza Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariari eman dio. Honek, honakoa esan die urgazle berriei: «Katea ez da eten, gogoratzen zigun Koldo Mitxelena maisuak. Horrela, gaurko euskaltzainon kezka eta ahaleginak ez dira gurekin amaituko. Euskal Herriko hizkuntza nazionala, euskara, konserbatzeko, zaharbertitzeko, denbora eta zeregin berrietarako egokitzeko ardua hori, zuengana pasatuko da, bidean izan ditzakegun arazoak guztion artean aztertu, kritikatu eta ahalik eta egokien konpontzeko».

Euskaltzaindiko idazkariaren mintzaldiaren ondoren, euskaltzain urgazle berriei diploma eta ikurra eman zaizkie, eta Akademiako Zuzendaritzako eta batzorde eta lantaldeetako kideek jardun dute zeregin horretan. Diplomak aldean esaldi hau jasotzen du: «Euskaltzaindiak euskararen alde orain arte egin dituen lanen eskererakutsiz eta gerokoen pizgarri, urgazletzat hartu du».

Segidan, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du eta hauxe esan du: «Ohorerako baino, lanean jarraitzeko deia duzue hau. Begien bistakoa da eta horretan ari garela azken urte hauetan, uste baitugu Euskaltzaindiak bere atea ireki behar dizkiela euskararen arloan egunotan bizien dabilzan sektoreei. Hor ari zarete zuek ere, andrazko zein gizonezko, idazletzan, kazetaritzan, zientzian, teknikan, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta bestelakoetan. Hortxe eta Akademian ere nahi zaituzte Euskaltzaindiak, euskara eguneratu baten eskakizun eta premiei erantzun egokia emanez».

«Akademiak –gaineratu du Urrutiak– badaki zer den lan hori eta berori barruratu nahi du, aukera emanez belaunaldi berriei, parte har dezaten Euskaltzaindiaren zereginetan. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazleak aintzat hartu, lanean jarri eta

baliatu behar ditu. Lehen ere hala egin du, eta hurrengoetan ere hala egin beharko du, bere egitekoa ondo bete nahi baldin badu. Beharrezkoak dira baliabide eta tresna berriak».

Ekitaldia bukatzeko, hurreratutako guztiak zutik jarri eta Agur Jaunak kanta abestu dute, ekitaldiari amaiera emanez, eguerdiko 13:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, 2014ko maiatzaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Ana Toledori; Miren Azkaratek ahala Patxi Goenagari; Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederra ahala Patxi Goenagari; Andoni

Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Patxi Goenagari; Joan Mari Torrealdaik ahala Xabier Kintanari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostiako Foru Diputazioan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta horien ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

1. Osoko bilkurako (2014-03-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Oharririk egin ez denez gero, bilera-agiria ontzat eman da.

2. Exonomastika:

2.1. Bibliako pertsona izenak: jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, ezta-baidatu eta erabaki, hala badagokio. Bi ohar jaso dira. A. Iñigok eskatu du zerrenda hauetan ere, koherentziagatik, onomastikako gainerako arauetan bezala jokatzeke, zehar-marra, marra eta komaren erabilerari dagokionez. Ohartarazi du 141. arauaren arabera, zehar-marra (/) herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean erabiltzen dela, Doneztebe / Santesteban esaterako.

Alfontso Mujikak erantzun dio, eta Exonomastika batzordearen orain arteko erabileraren arazoak azaldu ditu. Gauzak horrela, A. Iñigok eskatzen duen bate-ratasuna errespetatzeko, onarturiko bi izenen artean, zehar-marra jarri beharrean edo jartzea proposatu du (alegia, Menes/Meni eta Djoser/Zoser ordez Menes edo Meni, Djoser edo Zoser). Oharra ontzat eman da.

P. Goenagak galdetu du ea zertan gelditu den Donostia / San Sebastián eta Vitoria-Gasteiz izen bikoitz horien idazkera, zehar-marra ala marrarekin. A. Iñigok azaldu du Euskaltzaindiak onartutako arauetan zehar-marra daramatela, baina azken erabakia dagokion udalak hartzen duenez gero, Gasteizko Udalak Vitoria-Gasteiz erabaki zuela eta Donostiakoak, aldiz, duela bizpahiru urte, Euskaltzaindiaren araua errespetatuz, Donostia / San Sebastián onartu zuela. P. Zabaletak azaldu duenez, horrelako izenetan kompetentzia eskumen ezberdinak daude (Gobernua eta udala, esaterako). P. Goenagak marrari desegoki deritzola gaineratu du.

B. Oihartzabalek, bestalde, galdetu du Baiona / Bayonne kasuetan ba ote den ordena arauturik. Aurreko arrazoiengatik puntu hori ere udalek edo agintariek erabakitzen dutela erantzun zaio.

P. Uribarrenek ohar bat aurkeztu du liturgian maiztasun handia duten izen bibliko batzuen kasurako. Hor, adibidez, batzordeak proposatzen dituen *Petri*, *Joanes*, *Josef*, *Marko* eta *Jakue*-ren ordez, gogorarazi du herri-erabileran badirela *Pedro*, *Joan*, *Jose*, *Markos* eta *Santiago* ere, eta horiek ere aintzat hartu beharko liratekeela. A. Mujikak erantzun idatzia ekarri du, horien guztion kasuistika azalduz. Arazo nagusia hauxe litzateke: santu-izen horiek ez direla Exonomastika batzordeak orain proposatuak, jada 1996an Euskaltzaindiak arautuak baizik, eta beraz, batzordeak haiekin jokatu behar izan du.

P. Goenagak, nolana ere, eta aurreko erabakiak gorabehera, P. Uribarrenen kezkarri irtenbide bat eman beharko litzaiokeela esan du, kultura unibertsalaren

ikuspegitik ez bada ere, bai bederen inguruko kristau-mundua kontuan izanda. B. Coyosek, ordea, *Pedro*, *Jose* eta *Santiago* bezalako izenak Iparraldekoen begi-belarrietarako behintzat, espainol hutsak direla azpimarratu du. X. Videgainek zalantzak azaldu ditu. Bikoitzasunaren aldeko iritzirik ere izan da, baina argi egon da hori aurretik Euskaltzaindiak harturiko erabakiaren aurka letorkeela.

B. Oihartzabalek arazo horretaz batzordeak gogoeta egin dezan eskatu du, Onomastika batzordeari ere kontsulta eginez. Horrela egitea ontzat hartu da, betiere maiztasun handiko izen horiei buruz.

2.2. Antzinateko antroponimia eta mitonimia: mundu grekoa aurkeztu. Ondoren *Antzinateko pertsona-izen grekoak* deritzon zerrenda aurkeztu du A. Mujikak. Pertsonaia historikoen izen horiek hautatzeko irizpide nagusia berorien garrantzia eta historia-liburu eta entziklopedietan agertzeko maiztasuna izan da. Grafiari dagokionez, grezierazko letraldatze zehatza goi mailako ikerketarako eta maiztasun urriko izenentarako utzirik, Euskaltzaindiak 1997an emandako 76. arauan oinarritzen da, orduan onarturiko egokitzapen berak erabiliz. Bertoko tradizioak eta inguruko beste hizkuntza nagusietan finkaturiko ereduak kontuan hartu izan dira, kasu bakoitzerako, ahalik eta gehien, proposamen bakarra eginez, zalantzarako kasu gutxi batzuetan izen bikoitzasuna utzirik: *Kleitias* edo *Klitias*, *Odiseo* edo *Ulises*, esaterako. Ekarpinak eta zuzenketa-proposamenak ekainaren 20rako bidali behar dira Euskaltzaindira.

3. *Astronomiako oinarritzko lexikoa aurkeztu.*

Antton Gurrutxagaren ezin etorriaz, Xabier Kintanak aurkeztu du *Astronomiako oinarritzko lexikoa*, Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmorako taldeak prestatua. Aurrekoetan bezala, arlo horretan gehienik erabiltzen diren kontzeptuak aipatzeko izenak bildu dira, euskaraz gai horretan argitara emandako testuliburu, artikulua eta entziklopediak kontuan izanda. Era berean, lexiko horren ingeles, frantses eta espainiera itzulpenak eskaini dira, argibidetzat. Oharrak ekainaren 30erako bidaltzea erabaki da.

4. Ohorezko euskaltzainak izendatzea

Andres Urrutia, Xarles Videgain, Xabier Kintana, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita eta Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoek eta, aldi berean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza osatzen dutenek, Arautegiaren 39. artikuluan jasorikoa kontuan hartuz, ondoko pertsona hauek proposatu dituzte idatziz ohorezko euskaltzainak izateko:

Abizenak	Izena
Agirrebaltzategi Kortabarria	Paulo
Aintziburu Camino	Anjel
Amundarain Sarasola	Dionisio
Amuriza Sarrionandia	Xabier
Arbelbide Mendiburu	Xipri
Campos Illarramendi	Antonio
Idirin Solatxi	Maite
Itzaina	Mixel
Landaburu Illarramendi	Jon
Martí i Castell	Joan
Orbe Monasterio	Martin
Ruiz Urrestarazu	Manuel Maria

Era berean, hautagaien merezimenduak ere banatu dira. Norbaitek hautagai bakoitza bozkatzea eskatzen zuen galdetuta, inork ez du halakorik adierazi. Ondorioz, guztiak aho batez onartuak izan dira eta izendatuei horrela jakinaraziko zaie.

5. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2013. urteko errendapenak eta 2014. urteko planak. Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Aurreko Osoko bilkuran banaturiko errendapenei eta urteko plangintzei inolako oharrik ez zaiela egin esan du E. Osa idazkariordeak. Horiek horrela, bere horretan onartu dira. Era berean, aurreko Osoko bilkuran iragarri zenez, gaur, Gramatika batzordearen 2013. urteko errendapena, bai eta Euskara Batuaren Eskuliburuaren eta Gramatika batzordearen 2014. urteko planak aurkeztu dira. Herri Literatura batzordearen 2013. urteko errendapena eta 2014. urteko plana aurkeztea falta dela esan da. Nolanahi ere, azken bi hauek ere eginda daudenez gero, datozen egunetan euskaltzainei eskuratuko zaizkie.

Ekarpenak eta zuzenketa-proposamenak ekainaren 20rako bidali beharko dira Euskaltzaindira.

6. Euskaltzaindiko ikertzaileen estatutua. Jasotako oharra eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Idatziz bi ekarpen jaso dira; batetik, epearen barruan, P. Goenagak eginikoa; bestetik, Osoko bilkuran finkaturiko epeaz kanpo, M. Azkaratek egindakoa. Biak euskaltzainei eskuratu zaizkie bilkuran. Era berean, A. Urrutiak ahoz zenbait zalantza jaso dituela adierazi du.

P. Goenagak beharrezko dakusa ikertzaileen estatutuaz erabaki ahal izateko, kanpoko aditu baten txostena lagun duela ekartzea, besteak beste, arriskuen-eta berri izateko edota Euskaltzaindia non sartzera doan jakiteko. Testuak beste irakimendi bat behar du, edo gatza, edo azken ukituren bat, bere ustez.

X. Videgainek esan du testu pisutsua dela eta orrazketa behar duela, formaz arintzeko, ongi ulertua izan dadin. Euskaltzaindian ikerketak egiteko, jende berriari erraztasunak eman behar zaizkiola uste du. Bestalde, unibertsitatearen susmoak eta inoren esku-sartzeak gaizki ikusiak izan daitezkeela pentsatzen du.

A. Arejitaren ustez, Euskaltzaindia ikertegi gisa instituzionalizatzeko, lehenengoz egiten den urratsa da oraingoa, eta hori etorkizunerako pauso garrantzitsua da, Akademiak darabilen praktikari urrats berria ematea, Napoleonen garaiko unibertsitate ereduak gainditu beharra dago eta. P. Zabaletak esan du pauso hori erakunde gehienetan normala izaten dela, eta lagun batzuen aldetik izan daitekeen beldurra saihesteko, hitzarmenak egitea proposatzen du berak, hots, kontratu partekatuak (Euskaltzaindiak eta Gobernuak, adibidez, arlo bat aztertzeke eta abar). Eta horrek ez dio beldurrik ematen. Kontratua izan dadila helburu bati lotua (obra-kontratua). Helburuak ekonomikoak eta juridikoak izan daitezke, eta langileekiko segurtasuna azpimarratu du. B. Oihartzabalek sortu nahi den ikertzaile-figura horretan etorkizunean zer izango den jakin nahi luke.

P. Goenagak esan du paperak dena jaso dezakeela, baina proiektua presa handiegiaz egina dela, eta gauza asko falta zaizkiola uste du. Ez da garbi ageri horrek Euskaltzaindiari zer dakarkion. Hor ez da aipatzen hitzarmen moduko zerbait eratu beharko litzatekeenik. Bestelako erreferentziak (fundazioen edo unibertsitateen bidez garatuak) ere kontuan hartu beharko liratekeela esan du.

P. Uribarrenek, argibide gisa, hiztegia egiten dihardutenen estatusaz galdetu du.

Andres Urrutiak P. Goenagaren eta M. Azkarateren oharra eskertu ditu. Ondoren, esan du inork ez duela planteatzen masterrak edo doktorego ikastaroak Euskaltzaindian egitea, baina egiten badira, egin bitez legearen arabera. Bere iritziz,

batzuek uste dute Euskaltzaindian ez dela egin behar noizik behingo batzarrak baik. Baina egitasmoak ere egin dira. Hor marko bat proposatzen da, akademikoa eta laborala. P. Goenagari zuzenduz, txosten juridikoa eskatzen duela esan du, baina, zeri buruzkoa eta nork egitekoa? Euskaltzaindiak badauka nortasun nahikoa bere bidea egiteko, bere ustez.

Adolfo Arejitak esan du emaitzak eta oharrak eskertzen direla, eta proiektua osatzeko balioko dutela. Gogorarazi du enpresek ere, unibertsitateaz gainera, iker-tzen dutela. Inork ez du ikertzeko ahalmen eksklusiboa. P. Uribarreni M. Azkarateren proposamena gustatu zaio, eta, bere ustez, P. Goenagak berea zehaztu beharko luke.

B. Oihartzabalek iraganean ere Euskaltzaindiak ikerketa-lanak egin dituela oroi-tarazi du, batzuk ikertzaileen artean oso estimatuak gainera.

Andres Urrutiak esan du maiz ikerketen kudeaketan ondorio negargarriak ger-tatu izan direla, eta proiektu hau ikerketak ondo kudeatzeko tresna izan daitekeela. P. Goenagak, ordea, oso txarto deritzo proposamen-txostenari. Halere, A. Urru-tiak kritikak onartzen dituela esan du, proiektua hobetzeko.

B. Oihartzabalek ez du uste Euskaltzaindiari kalte eta konkurrentzia egiteko asmo gaiztorik dagoenik. A. Urrutiak gogorarazi du krisi ekonomikoa gaudela, eta finantzaketa, azken buruan, agintariengandik datorrenez, dauden proiektuak zein bere lekutik joan barik gauzak amankomunean eta koordinatuki eraman beharko lirakeela. X. Videgainen ustez, testuak kontestualizazioa falta du.

S. Alemanek garbi dakusa B. Oihartzabalen kezka, hots, ikertzaileen lan-baldin-tzak eta egonkortasuna bermatu nahia, baina, ez du ondo ulertzen, ordea P. Goe-nagarena. Beronek esan du erabaki bat hartzeak ondorioak ekar ditzakeela, ekono-mikoak batez ere, eta ea plan horrek etorkizunerako garantiarik daukan ala ez aurretik pentsatu behar dela.

A. Urrutiak galdetu du plan hori nork egingo duen, zertaz eta zer galdetzeko. Maiz eskatzailearen araberrako erantzuna izaten dutelako. P. Goenagak txosten tek-nikoa nahiago lukeela esan du, baina ez du zehaztu hori nork egin beharko lukeen.

Amaitzeko, proposamen-txostena, zehatzago azaldua, berriz aurkeztea onartu da. Eta oharrak ere ekainaren 11rako bidaltzea erabaki da.

7. Esku artekoak.

7.1. Peli Latorre euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Peli Latorre 2013. eko abuztuaren 21ean hil zen. Zuzendaritzak Manu Ruiz Urrestarazu euskaltzain

urgazleak, gaur jada ohorezkoa izendatuak eta hainbat urtetan Arabako ordezkari izan denak hilberri txostena presta dezan proposatzea erabaki du, 2014ko maiatzaren 14ko bilkuran. Ondo ikusi da proposamena Osoko bilkuran.

7.2. Xabier Kintana Real Academia Galegaren Buletinaren Batzorde zientifikoko kide izendatua izan da. Izendapenaren berri eman da Osoko bilkuran. Hori dela eta, Euskaltzainburuak X. Kintana Euskaltzaindiko idazkariari zorionak eman dizkio.

7.3. Sari desberdinetan epaimahaikotzat Euskaltzaindiak proposatu dituen kideak.

7.3.1. Espainiako sari nazionalak. Epaimahaiko kideak proposatzeko eskaria iritsi zen Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriotik. Literatura Ikerketa batzordearen proposamenak-eta kontuan hartuz, ondoko pertsona hauek proposatzea erabaki zuen Zuzendaritzak, 2014ko apirilaren 9ko bilkuran:

- Espainiar Letretako Sari Nazionala: Kaltzakorta Elortza, Jabier eta Etxebarria Zamalloa, Igone.
- Literatura Sari Nazionala (Poesia): Otaegi Imaz, Lourdes eta Kortazar Uriarte, Jon.
- Literatura Sari Nazionala («Miguel Hernández» Gazte Poesia): Billelabeitia Bengoa, Miren eta Gartzia Trujillo, Sebastian.
- Literatura Sari Nazionala (Haur eta Gazte Literatura): Landa Etxebeste, Mariasun eta Bijueska Basterretxea, K. Josu.
- Literatura Sari Nazionala (Narratiba): Azkarate Villar, Miren eta Iturralde Uria, Joxe Mari.
- Literatura Sari Nazionala (Saiakera): Urretabizkaia Bejarano, Arantza eta Sudepe Martija, Juan Luis.
- Literatura Sari Nazionala (Literatura Dramatikoa): Perez Lopez, Jose Agustin eta Fernandez Iglesias, Arantzazu
- Literatura Sari Nazionala Itzulpenik Hoberenari: Rekalde Irigoien, Paskual eta Segurola Azkonobieta, Koro.
- Literatura Sari Nazionala Itzultzaile baten Obrari: Rekalde Irigoien, Paskual eta Segurola Azkonobieta, Koro.

– Kazetaritza Kulturalerako Sari Nazionala: Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo eta Jauregi Pikabea, Idoia.

Ondo ikusi dira Osoko bilkuran.

7.3.2. Euskadi literatura sariak. Euskarazko Literatura itzulpenetarako epaimahaikide bat proposatzeko eskaria iritsi zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Sustatzeko zuzendaritzatik. Aingeru Epaltza euskaltzain urgazlea proposatzea erabaki du Zuzendaritzak, 2014ko apirilaren 30ean. Ondo ikusi da.

7.3.3. Iruñeko Udalaren eskaria Euskarazko Haur Literaturako Lehiaketarako. Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetz hitzarmenaren esparruan, lehiaketa horretarako epaimahaian Euskaltzaindiak ordezkari bat izatea finkatu zen. Ondorioz, epaimahaikide hori izendatzeko eskaria egin du Iruñeko Udalak. Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazlea proposatzea erabaki du Zuzendaritzak, 2014ko maiatzaren 14ko bilkuran. Ondo ikusi da.

7.4. Lankidetz hitzarmenak

7.4.1. EEP erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetz hitzarmen marko berria (2014-2016 aldia barruratzen duena) eta 2014ko urteko gehigarria. Biak izenpetu dira Baionan, 2014ko maiatzaren 20an, Euskaltzaindiaren ordezkarietan. Marko berrian bi aldeek adostu dute, besteak beste, era didaktiko eta dibulgatiboan, hurrengo urteetan eta Ipar Euskal Herriari begira, Euskaltzaindiak euskara batuaren alorrean eginiko lana zabaltzea eta hedatzea, teknologiak eskaintzen dituen bide berriak erabiliz. Era berean, urteko gehigarriaren arabera, 2014. urtean Euskaltzaindiak 140.000 euro jasoko ditu, besteak beste bere lanei eusteko, bai eta hiru liburu berri argitaratzeko ere.

7.4.2. Euskaltzaindiaren eta Eako Udalaren arteko lankidetz hitzarmena. Ea udalerriko oroimen kolektiboa jasotzeko egin beharreko ikerketaren tutoretza akademikorako oinarriak zehazteko, Eako Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetz hitzarmena adostu da. Adolfo Arejita Iker Sailburu eta EHHA egitasmoaren zuzendariak, lankidetz hitzarmenean jasoriko tutoretzaren ardura hartuko du.

7.5. Aurtengo Ibilaldiak saria Euskaltzaindiari. Ibilaldiak urtero antolatzen du euskararekin loturiko omenaldi bat. Aurten, euskalkien inguruan lanean ibiliko elkarte eta erakundeak omenduko ditu, horien artean Euskaltzaindia. X. Videgain EHHA egitasmoan diharduena, joango da saria jasotzera, Euskaltzaindiaren izenean.

7.6. Euskal Eskola Publikoaren jaia. Ekainaren 1ean Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatuko da Balmasedan. Euskaltzaindiak hasierako ekitaldian parte hartzeko gonbita jaso du. Akademiaren izenean X. Kintana, Euskaltzaindiaren idazkaria, joango da.

7.7. Hurrengo bilkura: Gasteizen egingo da, ekainaren 27an, hiriko udaletxean, goizeko 10:00etan. Egun horretan Gasteizko Toponimia egitasmoa dela eta, Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzeta-hitzarmena izenpetzeko asmoa dago.

8. Azken ordukoak.

Ez da izan.

Eta besterik ez dela, 14:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Gasteizen, 2014ko ekainaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari eta
Uribarren, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Ana Toledori; Miren Azkaratek ahala Patxi Goenagari; Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala An-

dres Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Gasteizko Udaletxean hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta horien ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

Lehenik, Idazkariordeak eguneko egitekoen protokoloa azaldu du laburki: hasierako gaiak, batzarraren etena, Udalaren harrera, lankidetzahitzarmena izenpetzea, eta euskaltzainburuaren eta alkatearen hitzak.

1. Aurreko Osoko bilkuraren (2014-05-30) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Bilera-agiri proposamenari dagokionez, B. Oihartzabalen ohar idatzia heldu da,

berak esandako hitzak ongi bildu daitezzen. Gauzak horrela, 5. orrialdeko 3. paragrafoko lehenbiziko esaldia honela jaso dadin eskatu du: «B. Oihartzabalek iraganean ere Euskaltzaindiak ikerketa-lanak egin dituela oroitarazi du, batzuk ikertzaileen artean oso estimatuak gainera». Halaber, paragrafo honetako bigarren esaldia ezaba dadin ere eskatu du. Bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

Horiek horrela, bestelako oharrik ez dagoenez gero, bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika.

2.1. «Bibliako pertsona izenak». Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio. Maiatzeko batzarrean P. Uribarrenek Hegoaldean *Jose*, *Santiago*, *Markos* eta *Pedro* izenei buruzko proposamena berriro kontsideratzea eskatu zuen, Hegoaldeko gaurko liturgia-erabilera gogoan izanda. Osoko batzarrak eskari hori ontzat hartu eta Exonomastika azpibatzaordeari izen horien kasua berriro aztertu eta proposamen berria ekartzeko eskatu zion.

Horrela eginez, Exonomastika azpibatzaordeak bere ekaineko azken bileran izen horiek berriz berrikusi eta kontsideratu ondoren, gaurko batzarrera proposamen idatzi bat ekarri du. A. Mujika Exonomastika batzaordeko idazkariak oharra irakurri du. Eztabaida izan ondoren, S. Alemanek testuak zekarren «gaitzesten» hitza «bazterten» hitzgatik ordeztea proposatu du. Testua onartu da.

Horrela, adierazpenak *Josef*, *Jakue*, *Marko* eta *Petri* Euskaltzaindiak jada 1996an onartu zituela eta orain ere berresten dituela gogoratu ondoren (66. araua: *Santutegiko izen ohikoenak*), bere azken esaldian honela dio: «Hala eta guztiz ere, ulerturik Eliza kristauan, Hegoaldean, *Jose*, *Santiago*, *Markos* eta *Pedro* izenak erabiltzen direla eta, eremu horretan maiz erabiltzen baitira, tradizioa dutela, Euskaltzaindiak ez ditu izen horiek bazterten Hegoaldean liturgian erabiltzeko».

2.2. «Antzinateko antroponimia eta mitonimia: mundu grekoa». Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio. A. Mujikak esan du ez dela ohar idatzirik heldu. A. Iñigok galdera egin du, ea izen batzuk, *Ashoka* adibidez, zergatik sh-az eta ez x-az transkribatu diren jakin nahian. A. Mujikak erantzun dionez, Mesopotamiako kasuan ohiko idazkera bestelakoa izan arren (sumerieraren transkripzio jasoetan š transkribatu ohi dena **sh** transkribatzen da ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, **x** katalanez, **sch** alemanez, **sj** nederlandez...; horregatik, euskaraz ere egokitu da). Indiar dagokionez, aspaldiko ingeles kolonizazioaren ondorioz, bertako izenak ingeles ohituren arabera moldatu eta hedatu dira azken mendeetan. Horregatik proposatu da euskaraz ere **sh** kontso-

nante-taldea bere horretan uztea, Indiako leku- eta pertsona-izenetan nagusia baita ingeles grafia.

Bestelako oharrik ezaz, proposaturiko zerrenda ontzat eman da.

2.3. «Antzinateko dinastiak» aurkeztu. Zerrendak Alfontso Mujikak aurkeztu ditu eta horiek prestatzeko erabiliriko irizpideez ere beharrezko azalpenak eman dizkie euskaltzainei. Dinastiaren sortzailearen izena ezaguna edota hurbila zen kasuetan, *-tar* euskal atzizkia hobetsi da, baina etorkizko aitalehena oso urruna edo ezezaguna zenean, greziar bidea onartu eta *-ida* atzizkiak baliatzea nahiago izan dute, gainerako hizkuntzei jarraikiz. Aurkezturiko zerrendari oharrak egiteko epea uztailaren 28ra arte jarri da, baina horiek eztabaidatu eta erabakitzea iraileko batzarrean izanen da.

3. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2013. urteko errendapenak (Gramatika eta Herri Literatura batzordeak) eta 2014. urteko planak (Euskara Batuaren Eskuliburua, Gramatika eta Herri Literatura batzordeak). Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

2013. urteko bi errendapenei, bai eta 2014. urteko hiru plangintzei buruz ere oharrak ez denez, maiatzeko Osoko bilkuran aurkezturiko errendapenak eta plangintzak onartu dira.

4. 166. arauaren zuzenketa, aurkeztu.

Nafarroako Alkozko urtegira doan Ubagua ibaia Lezaun aldean hasi eta, Errezun zehar (Deierri), Muetz alderaino (Gesalatz) iristen da, urtegira baino lehen. Erabiltzaile batzuek helarazitako oharrei esker, arauko *Inarotz* erreka izen horrekin Lezaunen dela ezaguna adierazi da, baina Errezun eta Muetzen *Ubagua* deitzen dutela, mapa gehienetan agertzen den bezala, bestalde. Gauzak horrela, Onomastika batzordeak arauan *Inarotz* izenaren ordeztu *Ubagua* onar dadin proposatzen du, eta hura (*Inarotz*) sinonimoen kategoriara igaro dadin, hots, bigarren mailako izentzat eman dadin.

A. Iñigok esan duenez, hidronimoek sarritan arazoak sorrarazten dituzte maiz izen bat baino gehiago izaten dutelako, beren bidean iragaten dituzten herrien arabera.

P. Goenagak horrelako izen-aldaketetarako arrazoi sendoagoak eta oinarritua-
goak ikusi nahi lituzke. Erantzun zaio, bat etorri arren, hori ez dela beti posible

izaten, batez ere, euskara aspaldian galduriko eskualdeetan, lekuko fidagarriak eza-gatik. A. Arejitak aldaketak defendatu ditu, eta jasoriko datu eta informazioaren arabera ustezko toponimoak inoiz alda daitezkeela pentsatzen du. X. Kintanak esan du arau bat, oker emana bazen, aldatzeko ere zintzotasuna izan behar duela Akademiak, norbere hutsa ezkutatu eta beti-jakintsu itxura gordetzearren, eginiko okerra mantendu barik.

P. Goenagak uste du lekukotasunak garantiak behar dituela. A. Sagarnak esan du ibai batek izen bat baino gehiago izatea normala izaten dela, eta adibideak eskaini ditu. Bestalde, J. Lakarrak gogoratzen du ez dela ohikoa, etimologiaren egokitasuna inolaz ere zalantzan jarri gabe, irizpide etimologikoa izatea honelako erabakietarako irizpide nagusia. Iritzi arteko eztabaida batzuen ondoren, idatzizko oharra uztailearen 7rako egitea erabaki da.

Gai honekin amaitzeko, A. Iñigok 166. arauaren 3. zerrendaren onarpen-data gaizki jasota dagoela nabarmendu du. Izan ere, Tafallan eginiko bilkura 2011ko irailaren 30ean egin zen, ez 2011ko urriaren 30ean. Hortaz, data zuzenduko da.

5. Euskaltzaindiko ikertzaileen estatutua. Jasotako oharra aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Zuzendaritzak, jasotako oharra eta eztabaidak orain arte emanikoa kontuan hartuz, *Ikerketarako Estatutua* berri du. Euskaltzainei eskuratu zaie testua eta idazkariordeak irakurri du. Ondoren, galderak egiteko tarte bat ireki da.

Galderen txandan, titulazioen kontuan, sasoi bateko ikasketak eta egungo ikasketak bateratzea komeni dela esan da, gaizki ulertuak-eta ekiditeko. Hori esanda, Gasteizko Udalak euskaltzainei egingo dien harrera egiteko, bai eta bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmena izenpetzeko ere, etena egin da goizeko 11:20 direnean.

Osoko bilkurari segida eman zaio 12:15ean.

M L. Oñederrak, lehenik, E. Osa idazkariordearen irakurtzeko ebakera zaindu eta eredugarria goraiatu du. Ondoren, testuan galdu egin dela aitortu du, eta eskertuko zukeela testua aurretik izan balu, ere ustez, gauza batzuk ondo ulertzeko, patxada handiagoa beharko litzateke eta. Gehitu du, oro har, Osoko bilkuretan gai garrantzitsuen inguruko eztabaida gutxiegi dagoela bere ustez.

Andoni Sagarnak esan du 8. artikuluan, ez dela esaten doktoregoa behar duten ala ez, baina zazpigarrenean ordea, doktore izan behar dela esaten da, eta beraz,

doktoregoa izatea beharrezkoa dela. Bestalde, pertsona bat, irakasle izan gabe ere, doktore izan daitekeela azpimarratu du. Ondoren, J. Lakarrak unibertsitate-prozedurak gogoraziti ditu, eta, azaldu duenez, unibertsitateko irakasle ez diren doktoreak tesi-zuzentzaile izan daitezke, baina hori unibertsitateak berak onartu behar duela gaineratu du.

Aurkezturiko dokumentuari oharra egiteko epea uztailearen 8ra arte jarri da.

6. Esku artekoak.

6.1. J.-B. Orpustan saritua. Jean-Baptiste Orpustan hizkuntzalari eta ohorezko euskaltzainak, Mari Asun Landa idazlearekin batera, irabazi du 2014ko Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxak ematen duten Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria. Jean-Baptiste Orpustanen izena Euskaltzaindiko Zuzendaritzak proposatu eta Osoko bilkurak berretsi zuen. Hari zorionak ematea erabaki da.

6.2. Lankidetzaren hitzarmenak.

6.2.1. Ekainaren 3an *Herria* astekariak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Baionan, Akademiaren ordezkarietan. Astelehenaren izenean Janbattitt Dirassar presidentek sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, A. Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek *Herria* astekariaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sustatzea du helburu, eta euskararen eta euskal kulturaren eremuan gauzatuko da. Hitzarmen horren bidez, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia deritzon egitasmoa elikatzeko asmoz, *Herria* astekariaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko da.

6.2.2. Ekainaren 6an LANEKI elkarteak eta Euskaltzaindiak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. LANEKI Helte eta Ikaslan elkarteek sortu zuten 2001. urtean, eta helburu hauek ditu: Lanbide Heziketarako materialak sortzea, euskaratzea eta erabiltzaileen eskura askotariko euskarrietan jartzea, bai eta hiztegi tekniko bat sortzea ere. Elkarteak 34.000 ikasle eta Lanbide Heziketako 79 ikastetxe publiko eta hitzarmendun batzen ditu, eta gaur egun D ereduan ikasten duten 8.000 bat ikasleengan eta 3.000 bat irakasleengan eragiten du. Beraz, LANEKI-ren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana euskararen normalizatorako eta euskal kulturaren zabalpenerako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da. Besteak beste, sinatu den hitzarmenaren ondorioz, LANEKI-k duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokiaren corpusa aberasteko. Testu-masa hori Zientzia eta Teknika Hiztegia egitasmoa elikatzeko ere baliatuko du Euskaltzaindiak.

6.3. Euskaltzaindiaren urteko egutegia aldatzeko proposamena. Hurrengo Osoko bilkura uztailaren 18koa, Santurtzin beharrean egoitzan egitea proposatzen du Zuzendaritzak (2014ko ekainaren 12an onaturiko proposamena). Bertan, Osoko bilkuraren ostean, 2014ko maiatzaren 30ean izendaturiko ohorezko euskaltzainei diploma eta ikurra emango zaizkie. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

7. Azken ordukoak

7.1. .eus elkarte. J. M. Torrealdaik, Euskaltzaindiaren proposamenez elkarte-kidea eta presidentea denak, adierazi du bihar, ekainak 28, elkarte honek agerraldia egingo duela Bilboko Kafe Antzokian. Agerraldiaren xedea .eus domeinuaren 92 aitzindariak aurkeztea da. J. M. Torrealdaik argitu duenez, zerrenda oso anitza da, izaera, dimentsio eta jatorri ezberdineko entitateak biltzen dituelako. Era berean esan du, Euskaltzaindia sorreratik bertatik dela .eus Fundazioko kide. Nolanahi ere, Euskaltzaindia ez da egongo domeinua erabiltzen hasiko diren 92 aitzindarien artean. Ez Euskaltzaindia, ezta beste euskal erakunde esanguratsu batzuk ere, domeinuaren erregistroarekin arazo tekniko batzuk sortu direlako. Fundazioa auzia bideratzen ari da ICANN erakundearekin.

7.2. EiTBko Administrazio Kontseilua. A. Arejitak, Euskaltzaindiak proposatuta Eusko Legebiltzarrak EiTBko Administrazio Kontseiluko kide denak, esan du EiTBren jarduna hobetzeko asmoz, euskaltzainek helarazten dizkioten proposamenak, ekarpenak, iruzkinak edota oharrak bideratzeko prest dagoela EITBko Administrazio Kontseiluan. Gauzak horrela, euskaltzainei parte hartzea eskatu die.

Eta besterik ez dela, 13:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, 2014ko uztailaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose «B. Atxaga»,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Ana Toledori; Jean-Baptiste Coyosek ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Patxi Goena-

gari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta horien ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren uztaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

E. Osa idazkariordeak, Akademiak egun honetan hartuko dituen ohorezko euskaltzainen harrera-ekitaldia, 12:30ean egitekoa, nolakoa izan den azaldu du.

1. Osoko bilkurako (2014-06-27) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

J. Lakarrak etortzerik izan ez badu ere, oharra bidali du idatziz. Idazkariordeak

irakurri du. Gauzak horrela, 3. orrialdeko «Bestalde, J. Lakarrak ez du uste ustezko etimologiei kasu behar zaienik» esaldia, beste honengatik ordeztea proposatu du: «Bestalde, J. Lakarrak gogoratzen du ez dela ohikoa, etimologiengatik egokitasuna inolaz ere zalantzan jarri gabe, irizpide etimologikoa izatea honelako erabakietarako irizpide nagusia». Eginiko zuzenketa onartu da.

M. L. Oñederrak hiru ohar egin ditu; batetik, 2. orrialdeko azken paragrafoari, ez bat eranstea falta da («2013. urteko bi errendapenei, bai eta 2014. urteko hiru plangintzei buruz ere oharririk ez denez»); bestetik, 3. orrialdeko, 4. puntuko, lehenengo paragrafoko esaldia, honetara jar dadin iradoki du: «Nafarroako Allozko urtegira doan *Ubagua ibaia* Lezaun aldean hasi eta...»; eta azkenik, 3. orrialdeko, 5. puntuko 4. paragrafoari esaldi bat eranstea falta dela adierazi du: «..., gauza batzuk ondo ulertzeko, patxada handiagoa beharko litzateke eta. *Gehitu du, oro har, osoko bilkuretan gai garrantzitsuen inguruko eztabaida gutxiegi dagoela bere ustez*». Eginiko hiru oharrak onartu dira Osoko bilkuran.

2. Ageriko bilkuretako (2014-01-31koa) eta (2014-03-28koa) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz.

Ez da oharririk jaso, beraz, ontzat eman dira.

3. «Antzinateko dinastiak». Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Zerrenda honi oharrak egiteko jarririko epea oraindik bete ez denez, ezin da oraingoan puntu hau aztertu. Beraz, irailerako utzi da.

4. Euskaltzaindiko Ikerketa Estatutua. Jasotako oharrak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Zuzendaritzak aurkezturiko proposamen berrituari oharrak, P. Goenagak, B. Oihartzabalek eta M. L. Oñederrak egin dizkiote.

Hitza, lehenik, P. Goenagari eman zaio. Izan ere, berak osoko zuzenketa aurkeztu du. Hasieran esan du eskertuko zuela ohar guztiak euskaltzain guztien eskuetara helaraztea, Osoko bilkuraren aurretik. Ondoren, osoko zuzenketa irakurri du.

E. Osa idazkariordeak osoko zuzenketa dela eta, Zuzendaritzak 2014ko uztailaren 16ko bilkuran onarturiko erantzuna irakurri du.

A. Iñigok Zuzendaritzaren testuari eutsi behar zaiola uste du. M. L. Oñederrak uste du gai hau Barne Jardunaldietan patxadaz tratatzeko kontua dela, presaka erabakitzen ibili gabe. A. Arejitak gauzak *ad calendas graecas* atzeratzea ez dela

egoki azpimarratu du, hortxe gelditzeko arriskua lukeelako. Halaber, ikertzailearen estatutuari nahitaezkoa dela iritzi dio. Bestalde, P. Uribarrenek esan du ekarpenak egiteko eta eztabaidatzeko aukera egon dela eta erabakia hartzeko unea dela.

P. Goenagak Zuzendaritzak aurkezturiko testuari ezetza eman dio. M.L. Oñederrak bere oharrak ere aurretik irakurtzeko eskatu du. Gauzak horrela, eztabaida egon da segitu beharreko prozedura dela eta. Izan ere, batzuek proposatu dute, eginiko ohar guztiak irakurtzea eta ondoren erabakia hartzea. Beste batzuek, ordea, P. Goenagaren osoko zuzenketari buruz erabakia hartzea normalena dela esan dute. Izan ere, osoko zuzenketa onartuz gero, Zuzendaritzak eginiko idatziari buruz, bai eta oharrei buruz hitz egiteak ez leukake zentzurik.

Azkenean, P. Goenagak eginiko osoko zuzenketari buruzko isilpeko bozketa egin da. Osoko bilkuran daudenak eta ordeztuak 23 euskaltzain dira. Emaidza ondokoa izan da: 6 boto osoko zuzenketaren aldekoak, 15 boto kontrakoak eta 2 boto zuri.

Erabakia hartu ondoren, B. Oihartabalek bere oharrak irakurri ditu. Jarraian, idazkariordeak ere Zuzendaritzak 2014ko uztailaren 16ko bilkuran onarturiko erantzuna irakurri du. Azken idazki honetan, B. Oihartabalek eginiko ohar batzuk ontzat eman ditu eta beste batzuen gainean tarteko proposamenak egin ditu Zuzendaritzak. B. Oihartabalek xedapen osagarrietan ageri den *estatusa* hitza *eginkizun* hitzaz ordezteka eskatu du. Onartu da, bai eta Zuzendaritzak B. Oihartabalek aurkeztutakoaren harira eginiko proposamenak ere.

M. L. Oñederrak ez du berea irakurri nahi izan, adieraziz luzeegi izango litzatekeela hori egitea eta bere oharrak ez zeudelako pentsatuta banatu eta berehala bozketara eramateko, euskaltzainek denboraz irakurri eta denen artean eztabaidatzeko baizik. Edozelan ere, gai honetan erabiliriko prozedura dela eta, zenbait kontsiderazio egin ditu. Euskaltzainburuak ere beste gogoeta batzuk egin ditu, eta idatzizko proposamenak egitea gomendatu die euskaltzain guztiei.

Zuzendaritzak 2014ko uztailaren 16ko bilkuran onarturiko erantzuna irakurri du idazkariordeak eta bertan M. L. Oñederrak eginiko zenbait ohar onartu, beste batzuk ezetsi eta zenbaitetan tarteko proposamenak ere egin ditu.

M. L. Oñederrak berriz ere adierazi du ez zaiola egoki iruditzen eztabaidarako erabili den prozedura, zehazki Zuzendaritzak bakarrik ikustea oharrak bilera baino lehen eta erantzuna bileran bertan ezagutzea ohargileak ere. Euskaltzainburuak, erantzunez, Barne-erregelatan dagoela hori eta Europako eta Mendebaldeko prozedurari segitu zaiola esan du. Patxi Goenagak adierazi du, etorkizunerako onartu den metodologia hori izanez gero, bera abstenitu egingo dela.

B. Oihartzabalek testuaren idazkerako esaldi «bitxi edota ulergaitzak» azpimarratu ditu eta erredakzio problema batzuk seinatu.

A. Urrutiak galdetu du ea Zuzendaritzaren oharrak onartzen diren ala ez. M. L. Oñederrak berak ez duela botaziorik onartzen erantzun du.

Euskaltzainburoak, Zuzendaritzak eginiko oharrekin, Ikerketa Estatutua onartzen den ala ez bozkatzeari deitu du. P. Goenagak esan du, bere eta berak ordeztu duen P. Salabururen botoak ez dituela baliatuko eta bozketan ez duela parte hartuko. Era berean, M. L. Oñederrak esan du ez duela botazioan parte hartuko. Biek bilera-agirian hala jasotzea eskatu dute.

Ondorioz, Ikerketa Estatutua, Zuzendaritzak eginiko zuzenketekin, botoetara eramana da. Denera 20 boto eman dira, horietatik 16 boto alde, 1 aurka eta 3 zuri.

5. Esku artekoak

5.1. Xabier Aranbururen heriotza. Xabier Aranburu Gipuzkoako kazetari eta euskaltzain urgazlea 2014ko uztailearen 10ean, 82 urte zituela, hil dela jakinarazi da. Haren senideei euskaltzainen doluminak bidaltzea erabaki da. Hilberri txostena nork idatzi eta irakurriko duen aurrerago erabakiko da.

5.2. Euskera agerkariaren Idazketa Kontseiluak Aholku Batzordeko kide berriak proposatu ditu. *Euskera* Euskaltzaindiaren barne agerkariaren Idazketa Kontseiluak Aholku Batzordeko kide berriak (orain arteko gehitzeak) proposatu ditu, 2014ko uztailearen 8an eginiko bilkuran. Honako hauek dira: Martin Haase, Martine Berthelot, Xabier Itzaina, Mixel Aurnague, Jon Landaburu eta Jose Ignazio Hualde. Guztien curriculum laburtuak ere banatu zaizkie euskaltzainei. Eginiko proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.3. Lankidetzaren hitzarmenak. *Karmel* aldizkariaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzaren hitzarmena izenpetu da, 2014ko uztailearen 10ean. Hitzarmen horrek *Karmel* aldizkariaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlana sustatzea du xede, euskarari eta euskal kulturaren normalizazioari buruzko proiektu partekatutako gauzatzeko. Euskararen jakitea, erabilera zein haren aldeko sustapenaren ikerketa, dibulgazioa eta sentiberatzea izango dira, batez ere, bi erakundeon arteko hitzarmenaren xede nagusiak. Besteren artean, hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatze asmoz, *Karmel* aldizkariaren euskarazko testu-masa Akademiaren eskuetan jarriko da. Testu-masa hori Hiztegi Batuan egin behar diren azterlanak egiteko ere erabil dezake Euskaltzaindiak.

5.4. Argitalpenak eta webguneko atal berria. Joseba Intxaustiren *Euskara eta hizkuntzak gizartean. I Aitorpenak. Ekinbideak; II Jarrerak. Politikak. Pedagogiak eta III Erlijioak. Eliza Kristauak (Etxeberri bilduma (EHS))* aurkeztu berri dira. Liburu hauek Euskaltzaindiaren eta Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioaren arteko lan-kidetzari esker argitaratu dira.

Era berean, uztailaren 3an, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu du Interneten, bere webgunean. «Hitz-elkarketa» du izena eta «Hiztegiak eta corpusak» atalaren barruan kokatu da. Bertan jaso dira Lexiko Erizpideak Finkatzeko (LEF) batzordeak hitz-elkarketaz egin dituen lau lanak. Horietako hiru [*Hitz-Elkarketa/1* (1986), *Hitz-Elkarketa/3* (1991) eta *Hitz-Elkarketa/4* (1992)] eskura zituen erabiltzaileak paperezko edizioan, baina ez zegoen bertsio elektronikorik. Orain PDF formatuan ere kontsulta daitezke, webgunean.

Laugarren lana, *Hitz-Elkarketa/2* izenekoa, argitaratu gabe zegoen orain arte. Horren edukia, beraz, lehenbiziko aldiz eskaintzen da, hiru bertsiotan. Lana Miren Azkarate euskaltzain osoak eta Elixabete Perez Gaztelu euskaltzain urgazleak prestatu dute. Maketa prestatzen-eta, Jon Artza Argitalpen zerbitzukoak jardun du. Atal honen aurkezpena aurrerago egingo da Osoko bilkuran. Nolanahi ere, erabiltgarri dago Euskaltzaindiaren webgunean.

5.5. Imanol Berriatuaren jaiotzaren mendeurrena. Idazkariordeak adierazi duenez, bihar, uztailaren 19an, Elantxobeko herrian, Euskaltzaindiak eta bertako udalak antolaturik, omenaldi bat eskainiko zaio bertako seme zen Imanol Berriatua euskaltzain urgazlea zenari. Hartara, bilduko den jendearen aurrean, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Koldo Olagibel herriko alkateak eta Juan Luis Goikoetxea eta Xabier Kintana euskaltzainek, herriko seme ospetsu horren bizitza eta lanez hitz egingo dute. Era berean, Israelgo Hezkuntza Ministerioko arduradun izandako Arie Xoval eta Hebreeraren Akademiako kide den Mordechai Mixor jaunek omenaldi honetarako helarazi dituzten oroitzapenezko eskutitzak irakurriko ditu Euskaltzaindiko idazkariak. Gero, herriko lorategi batean, itsasora begira, aita Imanolen harrizko oroigarria agertuko dute.

5.6. Hurrengo bilkura. Irailaren 26an egingo da, Zangozako Udaletxean. Ondoren, 13:00etan, euskaltzainek, Zangozako ikastola, aurrean Nafarroa Oinez antolatzen duena, bisitatuko dute.

5.7. 166. arauaren zuzenketa. Aurreko bilkuran eskatutakoa kontuan hartuz, 166. arauaren zuzenketa dela-eta, informazio osagarria banatu zaie euskaltzainei.

6. Azken ordukoak.

Ez da gairik izan.

Eta besterik ez dela, 12:30ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2014ko uztailaren 18an

Ohorezko euskaltzain berriei diploma eta ikurra emateko,
Ageriko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, 2014ko maiatzaren 30ean, Gipuzkoako Foru Aldundian eginiko Osoko bilkuran ohorezko euskaltzain izendatutakoei diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain burordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Jabier Kaltzakorta, Beñat Oihartzabal, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain ohorezkoak: Frantziska Arregi, Luis Baraiazarra eta Jose Mari Iriondo.

Diploma eta ikurra gaur jaso duten ohorezko euskaltzain berriak: Paulo Agirrebaltzategi, Anjel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestrarazu. Joan Martí i Castell ohorezko euskaltzain berriak ezin etorria adierazi du.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jacinto Iturbe, Abel Muniategi eta Manex Pagola.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Imanol Igeregi *Euskal Herriko Ikastolak* Europar Kooperatiba Elkarteko zuzendaria, Karmele Artetxe Udako Euskal Unibertsitateko zuzendaria eta Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko presidentea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Ekitaldian zehar, Ander Berrojalbiz biolin-jotzaileak eta Maider Lopez biola-jotzaileak hartu dute parte. Hauen *Haika mutil* kantak eman dio hasiera ekitaldiari. Segidan, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak hitza hartu du. Honek, euskaltzainburua, euskaltzain osoak, ohorezkoak, urgazleak, senideak eta gonbidatuak agurtu ondoren, Euskaltzaindiaren arautegiaren 39. artikulua jasozten duena irakurri du: «Euskaltzain ohorezkoen mailan sartuko dira Euskaltzaindiaren ustetan euskarari mesede bikainak egindako lagunak. Izendatuak izateko, izkribuzko proposamendua behar da, nahiz Zuzendaritzak nahiz bi euskaltzain osok egin, eta Batzarrean onartzea». Gauzak horrela, euskaltzainek eginiko proposamenak kontuan hartuz, Zuzendaritzak ohorezko euskaltzainak izendatzeko proposamena Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2014ko maiatzaren 30ean eginiko Osoko bilkuran aurkeztu zuela eta Osoko bilkurak aho batez onartu zuela gogora ekarri du. Era berean, izendapena jasoko dutenen izenak irakurri ditu, hona hemen: Paulo Agirrebaltzategi, Anjel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Joan Martí i Castell, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariaren esanetan, nabariak dira ohorezko berrien meritua: «Era askotako lanak egin dituzue, bakoitzak bere arloan, ezberdinak, baina guztiek helburu berbera izan dute: euskal hizkuntza eta gure herri nortasuna aurrera eramatea, Euskal Herria iraunaraztea. Gaurdanik ofizialki ohorezko euskaltzainak izango zarete, baina gogoan izan gaur ez zenuketela diploma hori jasoko, aspaldidanik eta urte askotan, zuen praktikan jada ohorezko euskaldunak izan ez bazinete. Izan ere, zuei ohore hori ematean, zuek gure artean hartzean, euskaltzain guztiok ere ohoraturik sentitzen gara. Zuekin zorrean egon gara eta gaur zor hori kitatzeko aukera daukagu».

«Euskara guztiona da», aldarrikatu du idazkariak. Eta ondokoa gaineratu: «Baina gero, argi dago guztion esku egon den balio hori, herritar batzuek, herrizaletasunez, kultura zentzuaz bera aintzat hartu, ikasi, landu, jagon, goratu eta gizarteko toki guztietan zabaltzen saiatu direla, hizkuntzako euskalduntasun praktiko hori harrotasunaz jendartearen erabiltzen eta bere balio-eremua ere etengabe hedarazten». «Urte beltz luzeetan ere» euskararen eta euskal kulturaren alde lan egin duten

pertsonak eta kolektiboak goraiatu ditu Kintanak eta horien artean ohorezko berriak kokatu ditu. «Azkenean –esan du– pertsona horien ahaleginari esker lortu du gure herriak hogeita batgarren mendearen hasieran, oraindik burua harrotasunez euskaldun eta tente eramatea».

Idazkariak mintzaldia bukatzean, Erramun Osa idazkariordeak hitza hartu du eta, Zuzendaritzako kideek diploma eta ikurra eman aurretik, ohorezko euskaltzain bakoitzaren biografia eta merezimenduak aipatu ditu laburki, bai eta eskuratuko duten diplomak jasotzen duena irakurri ere. Honakoa dio diplomak: «Euskaltzaindiak euskararen aldeko haren merezimendu bikainak aitortuz, euskaltzain ohorezko izendatu du». Diploma eta ikurra jaso ahala, ohorezko euskaltzain berriek esker oneko hitzak egin dituzte eta beren poza adierazi dute.

Ikurrak eta diplomak banatu ondoren, ekitaldian izan diren musikarien soinu-emanaldi laburra eskaini da. Horren segidan, Ageriko bilkurari amaiera eman aurretik, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du. Bere esanetan, «Guk zuei baino, zuek egiten diozue ohore Euskaltzaindiari eta euskal gizarte osoari». Euskararen giltza «sendo, irmo eta mundura zabalik» eguneroko bizitzan datzala esan du euskaltzainburuak. Hori dela-eta bai omenduei, bai beren senide eta lagunei ere, gonbita argia egin die: «Ekin eta jarrai».

Euskaltzainburuaren hitzak entzun ondoren, taldeko argazkia egin eta aho-gozagarri arina eskaini zaie hurreratu diren guztiei, ekitaldiari amaiera emanaz, 14:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Zangozan, 2014ko irailaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Toledo, Ana eta
Uribarren, Patxi.

Artza, Jon,
Gorrotxategi, Mikel,
Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Perez, Elixabete eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Goenagak ahala Miren Azkarateri; Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak aha-

la Aurelia Arkotxari; Andoni Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Joan Mari Torrealdaik ahala Xabier Kintanari; Xarles Videgainek ahala Aurelia Arkotxari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Aztergaiei ekin aurretik, Angel Navallas Zangozako alkateak, 2014. urtean Nafarroa Oinez antolatzeke ardura duen Susana Garralda Zangozako Ikastolaren presidentek, Juan Cruz Labeaga Zangozako kronikari ezagunak eta txistulariek harrera egin diete euskaltzainei. Ondoren, alkateak euskaltzainak agurtu eta abegikortasunezko hitzak esan dizkie.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, euskaltzain guztien izenean, alkateari, Zangozako herri osoari eta Zangozako Ikastolari eskerrak eman dizkie, aurretzean ere elkarrekin euskal hizkun-

tzaren eta kulturaren aldeko antzeko ekitaldiak antolatzeke aukera azpimarratuz. Bukatzeko, alkateak euskaltzainei Juan Cruz Labeagak Zangozako herriari buruz idatzitako zenbait liburu eta bertako musika disko batzuk eskaini dizkie, bai eta herriko Andre Mariaren eliz atariko behe-erliebe baten kopia ere, egun honetako ekitaldiaren oroigarritzat. A. Urrutia euskaltzainburuak Zangozako alkateari Akademiaren argitalpen batzuk eskaini dizkio, bertako bibliotekarako.

Harreraren ostean, Osoko bilkura hasi da, goizeko 10:15ean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorrikoen zerrenda eta horien ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, iraileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Andres Iñigok eguneko programa azaldu du. Izan ere, Osoko bilkuraren ostean euskaltzainek Zangozako Ikastolari bisita egingo diote, ikastolako guraso, profesional eta ikasleekin jarduteko aukera edukiz. Bazkalostean, Zangoza bisitatuko dute Juan Cruz Labeagaren eta ikastolako guraso batzuen laguntzarekin.

Eguneko egitaraua azaldu ostean, Osoko bilkurako aztergaiak jorratu dira.

1. Osoko bilkurako bilera-agiria (2014-07-18) onartzea, hala erabakiko babiliz.

Idazkariordeak M. L. Oñederrak eta P. Goenagak bidaliriko oharrak irakurri ditu. M. L. Oñederraren oharrak bi izan dira: batetik, 4. ataleko 8. paragrafoan (3. orrialdean), «M. L. Oñederrak ez du berea irakurri nahi izan, *adieraziz luzeegi izango litzatekeela hori egitea eta bere oharrak ez zeudelako pentsatuta banatu eta berehala bozketara eramateko, euskaltzainek denboraz irakurri eta denen artean eztabaidatzeko baizik*. Edozelan ere...». Azpimarraturik dagoen esaldia gehitzeko eskatu du; bestetik, 4. ataleko 10. paragrafoan (orrialde berean) «metodologia» hitzaren ordez «prozedura» jartzea eta «...prozedura, zehazki Zuzendaritzak bakarrik ikustea oharrak bilerara baino lehen eta erantzuna bileran bertan ezagutzea ohargileak ere. Euskaltzainburuak, erantzunez, Barne-erregiletan dagoela hori eta Europako...» zatian azpimarraturiko tartekak gehitzeko eskatu du. Biak onartu dira Osoko bilkuran.

P. Goenagak ere bi zuzenketa proposatu ditu: batetik, 4. ataleko 10. paragrafoaren azkeneko esaldia beste honetaz ordeztzea eskatu du: «Patxi Goenagak adierazi du, etorkizunerako onartu den metodologia hori izanez gero, bera abstenitu egingo dela». Zuzenketa proposamena onartu da Osoko bilkuran; bestetik, hiru paragrafo beherago azaltzen den «proposatu» «erabaki» hitzaz aldatzea eskatu du. Azken honi

dagokionez, A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi du berak ez duela erabakitzen eta gehienez bozkatzera deitzen dituela euskaltzainak. Gauzak horrela, «deitu» hitza jasoko da «erabaki» hitzaren orde.

Amaitzeko, idazkariordeak zenbait akats ortografiko, bai eta bilera-agiriaren hasieran datorren data okerra dela ere adierazi du. Zuzenketok bilera-agiriaren edukia aldatzen ez dutenez, onartu dira.

Horiek horrela, bestelako oharrak egon ez denez, bilera-agiria onartu da.

2. Astronomiako oinarrizko lexikoa (2014ko maiatzaren 30ean eginiko Osoko bilkuran aurkeztua. Ikus 2014-05-30eko Osoko bilkurako bilera-agiria): jatorriko oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

X. Videgainek egindako oharra heldu da, *ozar-izar* hitzari buruz. Ohar horretako arrazoiak ikusita, ZTHB-k X. Videgainen oharra aintzat hartzea erabaki zuen, horretarako arrazoiak hiru orrialdeko txosten batean xeheki azaldurik. Lantaldearen azken erabakia X. Kintanak irakurri du: «1) Ozar-izar hitzaren jatorrizko adieraren hedatzea gertatu dela aitortzea, eta *meteor shower* (en) / *lluvia de estrellas* (es) / *averse météorique, pluie d'étoiles filantes* (fr) adiera onartzea. Eta 2) Adiera bererako, *meteoro-zaparrada* eta *izar-euri* adierazleak onartzea, lehena Euskaltzaindiak berak erabili duelako, eta bigarrena ebidentzia gehien dituen delako». Gauzak horrela, bestelako oharrak ez dagoenez gero, eginiko ekarpena eta 2014ko maiatzaren 30ean aurkezturiko Astronomiako oinarrizko lexikoa onartu dira Osoko bilkuran.

3. 166. arauaren zuzenketa (2014ko ekainaren 27ko Osoko bilkuran aurkeztua. Informazio osagarria, 2014ko uztailaren 18ko Osoko bilkuran banatu zena): jatorriko oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

M. Gorrotxategi Onomastika batzordeko idazkariak datu eta lekukotasun berrien argitan, *Inarotz* > *Ubagua* (sin. *Inarotz*) eta *Izalde* > *Itzalde* aldaketak egitea proposatu du, horretarako arrazoiak ere azalduz. Oharrak egin ez denez, zuzenketak ontzat eman dira, eta horrelaxe jasoko dira bai arauan eta bai webgunean ere.

4. Exonomastika. Antroponimia: Erromatar Inperioko pertsona izenak eta mitologia aurkeztu.

A. Mujikak txostena, euskaltzainen artean banatua, azaldu du, irizpideak eta azalduz. Aro klasikoetako pertsonaia nabarmen batzuen izenak jarri dira, ez soilik

politika eta literaturakoak, aukera zabalagoa eginez baizik (filosofoak, juristak, artistak...) eta horiek kontuan hartzeko, testuak ere aurkeztu ditu.

Pertsona historiko batzuen izenak direla eta, A. Arkotxak gogorarazi du badirela okzitaniarazko testuak eta izenak ere, eta Euskal Herriko hiri askotan okzitaniar giza taldeak luzaro bizi izan direla, esaterako, Donostian, Iruñean, Lizarran edota Zangozan, eta alde horretatik, behar izanez gero, okzitaniarren lankidetasunaz baliatu beharko lukeela Euskaltzaindiak izen horietako batzuen forma zuzenak erabakitzerakoan. Tx. Peillenek ere ongi iritzi dio proposamenari.

Miren Azkaratek izen horien formak erabakitzeko irizpidez galdetu du, eta A. Mujikak aurrekoei segitu zaiela erantzun dio, zalantza batzuk gorabehera. M. Azkaratek esan du jendeak, oro har, Euskaltzaindiaren erabakiei kasu egin diela eta aurrerantzean ere irizpide berberei eutsi beharko geniekeela. Euskaltzainen oharrak urriaren 23rako bidaltzea erabaki da.

5. LEF. Hitz-Elkarketa/2. Aurkezpena.

Lana prestatzen aritu diren M. Azkaratek eta Elixabete Perez euskaltzain urgazleak eta, itxuratzeaz arduratu den Jon Artza argitalpenen arduradunak, Euskaltzaindiaren webgunearen atalaren azalpena egin dute. Atalak LEF batzordeak (Lexiko Erizpideak Finkatzeko batzordeak) hitz-elkarketaz egin dituen lau lanak jasotzen ditu.

Eremua lau lanez osatua dago. Horietako hiru [*Hitz-Elkarketa/1* (1987), *Hitz-Elkarketa/3* (1991) eta *Hitz-Elkarketa/4* (1992)] eskura zituen erabiltzaileak papezko edizioan, baina ez zegoen bertsio elektronikorik. Orain PDF formatuan ere kontsulta daitezke, webgunean. Laugarren lana, *Hitz-Elkarketa/2* izenekoa, argitaratu gabe zegoen. Horren edukia hiru bertsiotan eskaintzen dela azaldu da: modu interaktiboan, ordenagailuan nabigatzeko eran; PDF formatuan; eta ePub bertsioan, irakurgailu elektronikoetara jaitsi eta bertatik nabigatzeko.

M. Azkarate eta E. Perez hitzen kodifikazioa eta elaborazioa egiteko moduz eta baliaturiko irizpidez aritu dira, erabilgarria eta praktikoa izan dadin, etengabeko eguneratzea nahitaezkoa dela azpimarratuz. Horrexetarako zenbait adibide ere eman dute. Era berean, M. Azkaratek K. Mitxelenaren hitzak ekarri ditu gogora, edozein hizkuntzak bezala, euskarak ere hitz berriak premiazkoak dituela gehituz. Ondoren, orain arte egindako lanak (OEH, LEF, EEBS) aipatu ditu.

E. Perezek hitz-elkarketan agertzen diren elementu ezberdinak elkarrekin agertzeko, lotzeko erak ere aurkeztu ditu, bide batez zenbait adibide emanez. J. Artzak,

aldiz, Internetarako sarrera nola egiten den azaldu du. Aurkezpena amaitzean euskaltzainburuak hirurei eskerrak eman dizkie.

6. Esku artekoak.

6.1. Xabier Aranburu euskaltzain urgazlearen hilberri txostena. Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak paratuko du, 2014ko irailaren 11n Zuzendaritzari adierazitakoaren arabera.

6.2. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Irailaren 11n, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak Akademiaren egoitzaren 30 urterako lagapen-hitzarmena sinatu dute, Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Jauregian. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu dute dokumentua, ondoan, Aldundiaren Gobernu Kontseiluko kideak eta Akademiako Zuzendaritzako kideak eta lurralde ordezkariak izan dituztela.

6.3. Euskarazko Tesien Laugarren Koldo Mitxelena Sarien 2014ko deialdia. Eskariak aurkezteko aldia irailaren 8tik gaur arte egon da zabalik. Era berean, deialdiaren berri eman da Euskaltzaindiko eta Euskal Herriko Unibertsitateko webguneen bidez. Horretarako, Euskaltzaindiak izendatu dituen epaimahaiko kideak hauek dira:

Ingeniaritza eta Arkitektura	Andoni Sagarna Izagirre
Artea eta Giza Zientziak	Esti Amorrortu
Gizarte eta Lege Zientziak	Jose Antonio Rodriguez
Osasun Zientziak	Alberto Loizate
Zientziak	Jacinto Iturbe

6.4. Hurrengo bilkurak. Idazkariordeak hurrengo bilkuren berri eman die euskaltzainei:

- Urriaren 31n Osoko bilkura egingo da, Baionako Euskal Museoa.
- Azaroaren 29an Osoko bilkura (Markina-Xemeinen, Lea-Artibaiko mankomunitatearen egoitzan) eta Ageriko bilkura (Jabier Kaltzakortaren sarrera hitzaldia Markina-Xemeingo Udalean).
- Abenduaren 19an, Osoko bilkura eta Ageriko bilkura Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

7. Azken ordukoak.

7.1. Jagonet-en datu-basea eguneratu da. Jagonet-eko datu-baseak 84 galde-erantzun berri eta hainbat galde-erantzun eraberriturik ditu, horien barruan, *mozo-*

rrotu eta *Areatza* sarrerak. Zerbitzu honi dagokionez, A. Urrutiak eta M. Azkaratek *Jagonet*-en galdetzeko modua erraztea eta erabiltzaileari bide errazagoak eskaintzea proposatu dute, besteak beste, eskuragarriago eta erabilgarriago egiteko.

Osoko bilkura amaitu aurretik, M. L. Oñederrak galdetu du Ikerketarako Estatutua jada indarrean dagoen. Andres Urrutiak baietz erantzun dio eta horren testua, nahi izanez gero, bidaliko zaiela hala eskatzen duten euskaltzainei.

Eta besterik ez dela, 12:35 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da. Ondoren, bisita egiteko asmoz, euskaltzainak 2014. urtean Nafarroa Oinez antolatzen duen Zangozako Ikastolara hurreratu dira.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Baionan, 2014ko urriaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Charritton, Pierre,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita ahala Xabier Kintanari; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari;

Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Uribarrenek ahala Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura, Baionako Euskal Museoan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

1. Osoko bilkurako (2014-09-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Idazkariordeak bilera-agiriaren lehenbiziko puntuan zenbait akats ortografi-

ko dagoela adierazi du. Zuzenketek bilera-agiriaren edukia aldatzen ez dutenez eta bestelako oharrak ez dagoenez, bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. «Antroponimia: Erromatar Inperioko pertsona-izenak eta mitologia». Aurkezturiko oharrak aztertu eta erabaki, hala badagokio. Ez da oharrak izan eta, beraz, proposamena ontzat eman da.

3. Hiztegi Batua 2. itzulua, zerrenda osagarriak: A letra aurkeztu.

Hiztegi Batuko lantaldeak prestatu dituen zerrenda osagarrien aurkibidea aurkeztu du A. Sagarnak, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*az arduratzen den euskaltzainak.

Berak argitu duenez, bi lantaldeen arteko abiada ezberdinagatik, bere sasoiaren zenbait zerrenda aztertu gabe utzi ziren (besteak beste, txanponen izenak, zodiakoa, familiaren inguruko saila, izen propioetatik eratorriak, -tar osarakoak eta abar). Horiek horrela, euskaltzainek oharrak edota iruzkinak egiteko modua izan dezaten, zerrenda horiek aurkeztuko dira gaur zein hurrengo osoko bilkuretan. Segidan, hitza Miriam Urkiari, Hiztegi Batuko lantaldeko buruari, eman dio.

M. Urkiak zerrenda osagarriko A letra aurkeztu eta zerrendan kolore desberdinek zer esan nahi duten azaldu du. Era berean, oharrak egiteko moduz argibideak ere eman ditu. Ohar edo iruzkin kopurua zein izango den ez dakitenez gero, euskaltzainek azaro osoa izango dute oharrak-eta egiteko. Azaroko Osoko bilkuran beste hitz-sorta bat aurkeztuko da. Urtarriletik aurrera Osoko bilkuran aztertu eta onartuko dira aurkeztu direnak, hala erabakitzen denean.

M. Azkarate euskaltzainak oharrak egin ahal izateko, hitz bakoitzaren atzealdean dagoen dokumentazioa jasotzea behar-beharrezkoa dela esan du. Ondorioz, hitz horiekin lotura duten argibideak euskaltzainei bidali dakizkien eskatu du. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran. Ondorioz, Osoko bilkuraren ostean dokumentazio hori eskuratuko zaie euskaltzainei euskarri elektronikoan Idazkaritzatik.

Gaur aurkezturiko zerrendari oharrak edo iruzkinak egiteko aldia ireki da, azaroaren 30ean, igandean amaitzen dena. Oharrak aurkezteko fitxa bat ere aurkeztu da, ezinbestez baliatu beharko dena. Puntu honekin amaitzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak bi-biei eskerrak eman dizkie eta bere poztasuna erakutsi du elkarrekiko lankidetzaren emaitzengatik, orain arte eginiko lana azpimarratuz.

4. *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren parte bat (1782)*, argitalpenaren aurkezpena.

Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzan argitara eman duten idazlan hau Joseba Lakarra euskaltzain osoak eta Iñaki Camino euskaltzain

urgazleak aurkeztu dute. Hasteko, lanaren garrantzia azpimarratu da, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitia*ren ondoan, hauxe baita behe nafarreraz argitaratu den testu nagusia. Itzultzailearen berri emateko, jesuitekin kontsultak egin zituela, baina beronen biografiako paperak Frantziako Iraultza garaian erre zirela argitu da. Euskal itzulpena A. Rodriguezen obraren zein ediziotatik egina den ere ez dago garbi, baina edonola ere ez haren obraren laburpenetik behintzat. Itzultzean, izandako iturriak, erabiliriko grafia bitxiak eta euskalkiaren ezaugarriak aipatu dira. Batzuetan jatorrizko testua bikoiztu, beste batzuetan aldiz, pasarteak elkartu eta, inoiz, bi kapitulu zirenak bakarrean bildu direla ere esan da.

Erabiliriko euskarari dagokionez, I. Caminok ez du uste itzulpen honetako hizkuntza-ezaugarrien konbinazio hori orduko Oztibarrekoa edo Amikuzekoa denik, eta pentsatzen du Jatsuko euskara den zerbaiten gainean Zuberoako aldaera batzuk erantsi zirela, baina era guztiz ausazko eta kaotikoan. Edonola ere, hitzen lematizazioa egin du, hark erabiliriko lexikoaren hiztegia egiteko. Hizkuntzaren inguruko zalantza batzuk argitzeko X. Videgainek liburu honen zukako alokutiboez eginiko ikerketan oinarritu da, eta P. Charrittonek emandako laguntza ere eskertu du.

Azalpena amaitutakoan, euskaltzainburuak bere izenean, eta erakundearenean ere, zorionak eman dizkio I. Caminori gauzatutako lan ederragatik.

Tx. Peillenen ustez, ekialdeko behe nafarrerakoa da, Lapurdiko hitz batzuekin. X. Videgainek I. Caminori zorionak eman, eta Zuberoako eta Amikuzeko euskalkien kidetasunez mintzatu da. B. Oihartzabalek ere zorionak eman dizkio I. Caminori bere lanagatik eta galdera egin du, ea noraino irakurriak zituen itzulpenaren egileak garai hartako euskal obrak. Beraren ustez, idazle txukuna barik, maiz zabarra zen eta, baina halere, hizkuntza ongi menperatzen zuen eta aberatsa zen.

M. L. Oñederrak pentsatzen du, tradizio idatziaz gainera, agian gogoan eduki beharko litzatekeela ahozkoa ere, hots, erregistro mintzatua. M. Azkaratek I. Caminok ekarritako material bikaina goraiatu du, egileari zorionak ere emanez.

5. Euskaltzaindiaren 2015. urteko egutegia aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak 2015. urteko egutegi proposamena, Zuzendaritzak 2014ko urriaren 29an eginiko bilkuran onarturikoa, aurkeztu du. Lurralde guztietan bilkurak aurreikusi dira. Era berean, Euskaltzaindiarekin lotura handia zuten pertsonen jaiotzen mendeurrenak-eta kontuan hartuz, bestelako ekitaldiak ere aurreikusi dira. Ondorioz, hona hemen aurkezturiko behin-behineko egutegia:

Urtarrila	30	Osoko bilkura Ageriko bilkura: hilberri txostenak	Bilbo Bilbo
Otsaila	27	Osoko bilkura	Gasteiz
Martxoa	27	Osoko bilkura Ageriko bilkura: EAE / RSBAP, 250. urteurrena	Azkoitia
Apirila	23	XIX. Barne Jardunaldia	Bilbo
	24	Osoko bilkura	Bilbo
Maiatza	29	Osoko bilkura	Donostia
Ekaina	26	Osoko bilkura Ageriko bilkura, Eugène Goihenetxeren jaiotzaren mendeurrena	Baiona
Iraila	25	Osoko bilkura – Nafarroa Oinez 2015 antolatzen duen Baztango Ikastolari bisita Ageriko bilkura, Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena	Elizondo
Urria	30	Osoko bilkura Ageriko bilkura, Koldo Mitxelenaen jaiotzaren mendeurrena	Donostia
Azaroa	27	Osoko bilkura	Bilbo
Abendua	18	Osoko bilkura	Bilbo

Behin-behineko egutegiari bestelako mendeurrenak ere gehitu zaizkio, ondo irudituz gero, aurkezturiko egutegiari gehitzeko, euskaltzainek hala ikusten badute.

B. Oihartzabalek esan du Eugène Goihenetxeren jaiotzaren mendeurrenaren omenaldiarekin batera, beste batzuen ere kontuan har litekeela (besteak beste, Piarres Lartzabal aipatu du). Euskaltzainburuak esan du hobe dela urteurrenak elkarrekin ez jartzea, pertsona desberdinak ohoratzea nahasgarria gerta daitekeelako, eta hori Ageriko bilkura gehiago eginez konpon litekeelako.

Puntu honekin amaitzeko, oharrak edo proposamenak egiteko aldia azaroaren 25ean amaitzen dela erabaki da.

6. Esku artekoak.

6.1. Euskaltzaindiaren eta Mendebalde Kultur Alkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaz. Izenpetu da urriaren 16an, egoitzan. Bi erakundeon arteko elkar-lana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatu-ko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere. Besteren artean, hitzarmenak honako hau jasotzen du: Euskaltzaindiak garatzen diharduen *Lexikoaren Behatokia* elikatze-ko asmoz, Mendebalde Kultur Alkarteak argitaraturiko euskarazko testu-multzoa Akademiaren eskuetan jarriko duela.

6.2. Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluan Euskaltzaindiaren ordezkariak. Jean-Baptiste *Battittu* Coyos Jagon sailburua eta, ezin duenean, Txomin Peillen euskaltzaina izendatzea proposatu du Zuzendaritzak, 2014ko urriaren 28an eginiko bilkuran. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

6.3. Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzain osoak irabazi du Euskadi Literatura Saria euskarazko narratiba alorrean *Nevadako egunak* liburuarekin. Epai-mahaikideen esanetan, «hitzaren magia dario Bernardo Atxagaren prosari liburu honetan». Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak zorionak ematea erabaki du.

6.4. Eusko Ikaskuntza – Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2014, emate ekitaldia. Azaroaren 12an, arratsaldeko 18:00etan, Donostiako Miramar Jauregian egingo da. Mariasun Landak eta Jean-Baptiste Orpustan ohorezko euskaltzainak jasoko dute saria.

6.5. 2014ko R. M. Azkue Literatura Sariak. Aurtengo deialdia abian jarri da.

Euskaltzainei honen berri eman eta eskola eta ikastoletara bidaliko diren esku orri bana eman zaie.

6.6. Hurrengo bilkurak. Hona hemen:

- Azaroaren 14an, XIX. Jagon Jardunaldia egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, *Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan* goiburupean. S. Aleman Sustapen batzordeburuak egitaraua aurkeztu du, bai eta euskaltzainei esku orriak banatu ere.
- Azaroaren 29an, larunbata, Osoko bilkura egingo da Markina-Xemeinen, Lea-Artibai Amankomunazgoaren liburutegian.
- Azaroaren 29an, eguerdiko 12:00etan, Jabier Kaltzakorta euskaltzainaren sar-rrera-hitzaldia dela eta, Ageriko bilkura egingo da Markina-Xemeingo Udale-txeko Batzar aretoan.

7. Azken ordukoak.

Ez da gairik izan.

Eta besterik ez dela, 12:45ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Markina-Xemeinen, 2014ko azaroaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose, «B. Atxaga»,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Jose Luis Lizundia 11:10 direnean sartu da bilera-aretoa, beraz, Osoko bilkura ia amaitzeaz.

Ezin etorriak eta ahalak: Patxi Goenagak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Markina-Xemeinen, Lea-Artibaiko Amankomunazgoan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, Xabier Abasolo Azkorra Lea Artibai Amankomunazgoko presidente jaunak eta Markina-Xemeingo alkate den Juan Jose Txurruka jaunak euskaltzainak agurtu dituzte, Markina-Xemeinera ongi etorria emanez. Andres Urrutia euskaltzainburuak bere agurra eman eta euskaltzainei egindako harrera ona eta bilerak egiteko aretoak uztea eskertu dizkie.

Ondoren, bilduriko euskaltzain guztiak agurtu eta horiexen zerranda eta heldu

diren ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren azaroko Osoko batzarrari hasiera eman dio.

Idazkariordeak eguneko programa azaldu du, besteak beste ordutegia, bai eta Ageriko bilkuraren nondik norakoa ere.

1. Osoko bilkurako (2014-10-31) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

A. Iñigok bilera-agiriaren laugarren puntuan, I. Caminoren azalpenaren ostean –2. paragrafoaren ondoren, hain zuzen–, ondokoa gehitzeko eskatu du: «Azalpena amaitutakoan, euskaltzainburuak bere izenean, eta erakundearenean ere, zorionak eman dizkio I. Caminori gauzatutako lan ederragatik». Eginiko oharra onartu da.

Gauzak horrela, bestelako oharrak egin ez denez, bilera-agiria onartu da.

2. Hiztegi Batua 2. itzulia, zerrenda osagarriak (famiariaren inguruko saila, izen propioetatik eratorriak eta –(t)ar osarakoak) aurkeztu.

A. Sagarnak egin du lanaren aurkezpen orokorra eta ondoren hitza Miriam Urkiari, Hiztegi Batuko lantaldeko buruari, eman dio, ekarriko zerrendak xehekiago azal ditzan. M. Urkiak, lau gai aurkeztu ditu paperean idatzirik, banan-banan azaldu dituenak. Hasteko, aztergaiaren egitura hobeki ulertzeko azalpenak eman ditu, amaieran oharrak egiteko bidea ere argituz; hots, ohargilea nor den, aztergai konkretuaren zerrenda osagarria zein den, oharrez hornitu nahi den aztergai forma, ohargilearen proposamen zehatza eta, azkenik, proposamen horretarako arrazoiak aipatzeko, fitxa bat eskainiz.

Hurrengo zerrendan familiako kideen izenak aurkeztu ditu, bai forma literarioak eta bai era dialektal eta hain ezagunak ez direnak ere. Hiztegi Batuko 2. itzuliaren arduradunek hor, beren ustez, berba horiek onartu edota gaitzesteko arrazoiak ere eskaintzen dituzte. Senide-maila eta lotura-kidetasun ezberdinak sartu dira. Hor inguruko hizkuntzetan sexismoz egiten diren bereizketekin kontuz ibili beharra dagoela azaldu du, hori ez baita euskaraz beti zilegi izaten. A. Urrutiak eta A. Sagarnak ere euskararen berezitasun horretaz ohartzeko esan dute, erdarekiko mimetismoan ibili gabe. Tx. Peillenek *esposatu* / *ezkondu* hitzekin Zuberoan behintzat kontzeptu ezberdinak bereizten direla gogorarazi du. Bide berean, X. Kintanak gaineratu du, Zuberoako erabilera horri heldurik, G. Arestik gauza bera egiten zuela bere idazkietan.

Beste zerrenda batean pertsona- edo leku-izenetatik modu ezberdinez helduriko hitzak aurkeztu dira, sortu eta sartu berriak gehienak, eta onartzeko irizpideak ere aipatzen dira, partaideen ustez onartzeko edo gaitzesteko irizpideekin.

Azken zerrendan izen propioetatik *-(t)ar* atzizkiaz eratorririko izen zerrenda aurkeztu eta horien kasuistika ere azaldu du M. Urkiak.

M. Azkaratek, garai batean Euskaltzaindian azterturiko hitz batzuez gogoratuz (*galbanizatu*, *galbanometro...*), horiez egin zen oharra eta hartarako prestatu ziren txostenak, ahal izanez gero, eskuratu nahiko lituzkeela esan du. Baietz erantzun zaio, eta txosten horiek helaraziko zaizkiola. Bestetik, M. Azkaratek galdetu du ea zergatik orain ez den biltzen, lehenago egiten zen bezala, sasoi bateko batzorde ahaldundua, gaiak landu eta zerrendak hezurmamitzeko.

Euskaltzainburuak erantzun dio 2013. urtean eginiko Barne Jardunaldian batzorde ahaldundu bakarra antolatzea erabaki zela, hain zuzen ere, «Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak» egitasmoari dagokiona. Izan ere, hala erabaki zen Hiztegi Batuaren 2. itzulia bukatua zelako eta geratzen ziren zerrenda bereziak Hiztegi Batuko lantaldeak landutakoak zirelako. Horiek dira, izan ere, orain ekarri direnak Osoko bilkurara, Hiztegi Batuko lantaldeak aldeztu aurretik landuta daudelako eta Zuzendaritzak egoki ikusi duelako zerrenda berezitu horiek horretara aztertzea eta onartzea, Osoko bilkurak baitu horretan erabakimena. Horrek ez du esan nahi, eta Zuzendaritzak hala proposatuko du 2015. urteko udaberrian egingo diren Barne Jardunaldietan, Hiztegi Batuari buruz eratuko ez denik batzorde ahaldundu bat, Hiztegi Batuaren premiak (3. itzulia eta abar) aztertu ondoren. Nolanahi ere, Osoko bilkurak onartu beharko du hori.

Miren Azkaratek esan du lehenago lana era antolatuagoan egiten zela eta oraingo prozedurarekin bera behintzat engainaturik eta bazterturik sentitzen dela, eta bere desadostasuna bilera-agirian jasotzeko eskatu du. A. Sagarnak oraingo batzordearen funtzionamendua azaldu du. Horiek horrela, ez du uste aurrekoak baino txartoago lan egiten duenik. Bestalde, orain lehenago bezalako batzarrak berriro egiten hasteak, bere ustez, atzerakizuna lekarke.

B. Oihartzabalek esan du lehenagoko prozedura, bere akatsekin ere, serioagoa zela, eta lehenagoko bidera itzultzea nahi luke. Era berean, azaldu du zertarako sortu ziren batzorde ahaldunduak, eta ez dakusa egoki aldateta. M. Azkaratek oraingo prozedurarekin urrats bat kendu dela uste du: Hiztegi Batuko batzorde ahaldundua. Patxi Uribarrenek, hitza eskaturik, batzorde hori aldi baterako sortu zela gogorarazi du, baina gero praktikan ikusi zela denbora luzea behar izaten zuela, eta horrexegatik pentsatu zela, egokiagoa zela oraingo modura aldatzea.

Euskaltzainburuak gogoratu ditu, alde batetik, Miren Azkarateren iritzia berea dela eta Osoko bilkuraren kide guztiek eskubidea dutela euren oharrak egiteko

lehen, orain eta gero ere, horixe baita Euskaltzaindiaren legea. Beraz, Miren Azkaratek eskubidea du, beste euskaltzain guztiek duten eskubide berbera, bere oharrak egiteko eta ez dago inongo bazterketarik. B. Oihartzabali gogoratu dio euskaltzainburuaren proposamenez (izena barne) eratu zirela batzorde ahaldunduak, lanak azkartzeko asmoz, beti ere, epe eta zeregin jakin baterako. Badirudi orain zalantzan jartzen dela Hiztegi Batuko lantaldearen lana edota orain egiten dela aldaketa. Ez da horrela eta aurreko Barne Jardunaldietan hala erabaki zela gogoratzen du. Nolanahi ere, berriro adierazi du datozen Barne Jardunaldietan Hiztegi Batuari buruzko gaia, ohi bezalaxe, berriz aztertuko dela eta Zuzendaritzak gaiari buruzko proposamena egingo duela. M. Azkaratek ez du inola ere zalantzan jartzen Hiztegi Batuko lantaldeak prestalana ongi egin duela Hiztegi Batuaren hasiera-hasieratik gaur arte.

Gaur aurkezturiko txostenari dagokionez: batetik, familiei buruzko zerrendarekin loturiko familia-mapak, bai eta aurkezturiko zerrendetako hitzen txostenak ere euskaltzainei eskuratuko zaizkiela adierazi da. Euskarri elektronikoan bideratuko da informazio osagarri hori idazkariordearen bidez; bestetik, gaur aurkezturiko zerrendak luzeak izanik, iruzkinak-eta egiteko epea datorren urteko urtarrilaren 15ean amaitzea erabaki da.

3. Euskaltzaindiaren 2015. urteko egutegia. Jasoriko iruzkinak eta oharrak aztertu eta erabaki, hala badagokio.

Osoko eta ageriko bilkurei dagokienez, ez da oharririk iritsi. Beraz, 2015. urteko Euskaltzaindiaren egutegia honela zehaztu da:

Urtarrila	30	Osoko bilkura	Bilbo
		Ageriko bilkura: hilberri txostenak	Bilbo
Otsaila	27	Osoko bilkura	Gasteiz
Martxoa	27	Osoko bilkura	Azkoitia
		Ageriko bilkura: EAE / RSBAP, 250. urteurrena	
Apirila	23	XIX. Barne Jardunaldia	Bilbo
	24	Osoko bilkura	Bilbo
Maiatza	29	Osoko bilkura	Donostia
Ekaina	26	Osoko bilkura	Baiona
		Ageriko bilkura, Eugène Goihenetxeren jaiotzaren mendeurrena	

Iraila	25	Osoko bilkura – Nafarroa Oinez 2015 antolatzen duen Baztango Ikastolari bisita Ageriko bilkura, Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena	Elizondo
Urria	30	Osoko bilkura Ageriko bilkura, Koldo Mitxelenaen jaiotzaren mendeurrena	Donostia
Azaroa	27	Osoko bilkura	Bilbo
Abendua	18	Osoko bilkura	Bilbo

M. L. Oñederrak Ahoskera batzordea, urriaren 23an, Donostian, Luis Villasanten Euskararen Ikergunean, *Ahoskera jardunaldia* antolatzeko prest dagoela adierazi du. Lauzpabost txosten aurkeztu eta eztabaidatuko lirateke. Ondo ikusi da proposamena oro har. Batzordearen urteko planean aurreikusi eta urteko aurrekontuak aztertzean, bideragarri den begiratu beharko da.

A. Toledok, Literatura Ikerketa batzordeak Jose Manuel Etxeita idazlearen heriotzaren eta Piarres Lartzabal euskaltzain osoaren jaiotzaren mendeurrenak kontuan hartuz, Bizkaian eta Ipar Euskal Herrian jardunaldiak egitea aurreikusi dutela adierazi du. Lehenbizikoari dagokionez, Eusebio Maria Azkue dela-eta Lekeition antolaturiko jardunaldiaren antzekoa Mundakan egitea begiz jo dute. Bigarrenaren kasuan, antzerkigintzaren inguruan antolatuko litzateke jardunaldia. Azken hau paratu aurretik, Ipar Euskal Herriko euskaltzain eta idazleekin hitz egingo dute. Zuzendaritzak bi proposamen hauek ondo ikusten ditu. Edozelan ere, aurrekontuetan aurreikustea komeni da halako kontuek zein diru-zama suposatzen duten jakin eta bideragarri diren aztertzeko.

4. Exonomastika: *Ekialdeko Antzinateko herriak aurkeztu.*

Bilera-aretoan A. Mujika Exonomastika batzordeko idazkaria sartu da, gaurko gaiko txostena aurkeztera. Proposamena hamaika orrialdeko txosten batean ekarri du, euskaltzainen artean banatua. Sarreran *Ekialdeko Antzinateko herriak* izendatzeko, oro har, dinastiak eta gizataldeak izendatzeko erabili ziren irizpide berberak mantendu dira, ahal den guztian tradizioan edota gaurko erabilera nagusian oinarrituz. Ondoren, kasu nabarmenenak azaldu ditu.

Oharrak aurkezteko epea, 2015eko urtarrilaren 15ean finkatu da.

5. Esku artekoak.

5.1. Espainiako Itsuen Erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaz hitzarmena. Bi erakundeon artean lankidetzaz hitzarmena izenpetu da azaroaren 10ean. Lankidetzaz hitzarmen honen arabera, Euskaltzaindia eta ONCE elkarlanean arituko dira Euskaltzaindiko katalogoetako obrak, hots, bi aldeek batera hautatutakoak, Braille sistemara eta/edo itsuek soilik erabiliko dituzten beste formatu batzuetara egokitzeko.

5.2. Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturiko Euskararen Foroa. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak Andoni Sagarna euskaltzain osoa eta Gipuzkoako ordezkaria proposatzea erabaki du, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.3. Eusko Ikaskuntzako Manuel Lekuona Sariko epaimahaian Euskaltzaindiko ordezkaria. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak Xabier Kintana euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiko idazkaria proposatzea erabaki du, 2014ko azaroaren 25ean eginiko bilkuran. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.4. Gaur banatuko diren liburuak. Gaur hiru liburu eskuratuko zaizkie euskaltzainei:

- Onomastika batzordearen laguntzarekin, Andres Iñigo euskaltzain osoak eta Patxi Galé euskaltzain urgazleak paraturiko *Euskal Herriko ibaiak* (Izenak bilduma 4). Hiru eletan argitaratua eta iraileko Osoko bilkuran eginiko azken zuzenketak ere jasotzen dituena. Liburu hau Bizkaiko Foru Aldundiak emaniko diru-laguntzari esker argitaratu da. Euskaltzaindiko webguneko bertsioa ere berri da.
- Juan Madariagak paraturiko *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*, Etxeberri bilduma (EHS). Liburu hau azaroaren 14an, Donostian eginiko XIX. Jagon Jardunaldiaren egitarauaren barruan, aurkeztu zen. Liburu hau Olaso Dorrea Sorrerakundeak emaniko diru-laguntzari esker argitaratu da.
- Paula Kasares euskaltzain urgazleak paraturiko *Euskaldun hazi Nafarroan*, Jagon bilduma 16. Liburu hau Bizkaiko Foru Aldundiak emaniko diru-laguntzari esker argitaratu da.

5.5. Hurrengo bilkurak. Xehetasunak eman dira. Honako hauek:

- Abenduaren 19an, ostirala, goizeko 10:00etan, Osoko bilkura egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

– Abenduaren 19an, ostirala, eguerdiko 12:30ean, Joan Martí i Castells ohorezko euskaltzainari ikurra eta diploma emateko, Ageriko bilkura egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean.

6. Azken ordukoak.

Ez da gairik izan.

Eta besterik ez dela, 12:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Markina-Xemeinen, 2014ko azaroaren 29an

Jabier Kaltzakorta euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia egiteko, Ageriko bilkura

Markina-Xemeingo Udaletxean, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Jose Luis Lizundia euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, 2013ko uztailaren 19ko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Jabier Kaltzakortaren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste «Battittu» Coyos Jagon sailburua, Aurelia Arkotxa, Miren Azkarate, Andres Iñigo, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Paulo Agirrebaltzategi, Luis Baraiazarra, Antonio Campos, Maite Idirin, Jose Mari Iriondo, Ander Manterola eta Manuel Maria Ruiz Urrestarazu.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Xabier Altzibar, Antton Aranburu, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Sebas Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jacinto Iturbe, Jose Mari Iturralde, Patxi Juaristi, Miren Agur Meabe eta Rosa Miren Pagola.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Asier Bidart Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko kidea.

Lea-Artibai Amankomunazgoko eta Lea-Artibaiko herrietako alkateak eta udal-ordezkariek: Juan Jose Txurruka, Josune Baskaran, Joseba Iraolagoitia, Gorka Fundazuri, Aitor Odiaga, Iñigo Ansola, Alex Aretxabaleta, Sara Gerenabarrena, Patrizia Lazaro, Rakel Alberdi, Xabier Abasolo, Miren Argia Ituarte, Rikardo Beitia, Jon Ander Barrueta, Itziar Hirusta, Jose Luis Azpiazu, Jesus Iriondo eta Jesus Le-kerikabeaskoa.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, Ana Castro Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia, Lorea Bilbao EAJko Euzkadi Buru Batzarreko kidea.

Unibertsitateetako, elkarteetako, erakundeetako eta hedabideetako ordezkariek: Jose Maria Guibert (Deustuko Unibertsitatea, errektorea), Roberto San Salvador (Deustuko Unibertsitatea, errektoreordea), Jon Zarate (EHU, errektoreordea), Rosa Miren Pagola (Eusko Ikaskuntza, presidenteordea), Bingen Zupiria (*Deia* egunkaria, zuzendaria), Jon Etxabe (UZEL, presidentea), Juan Maria Atutxa (Sabino Arana Fundazioa, presidentea), Nerea Mujika (Gerediaga, presidentea), Julian Serrano, Harbil Etxaniz eta Xabier Unanue (RSBAP / EAE, ordezkariek).

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Alkate Soinuak eman dio hasiera ekitaldiari. Jarraian, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak ongi etorria eman die hurreratu diren guztiei, bai eta ekitaldiaren nondik norakoa azaldu ere. Era berean, Euskaltzaindiko Barne-erregelak sarre-hitzaldiaz diotena irakurri du. Idazkariaren hitzen ostean, Juan Jose Txurruka Markina-Xemeingo alkateak halako ekitaldi bat Markina-Xemeinen egiteagatik poza agertu eta zorionak eman dizkio Jabier Kaltzakortari.

Andres Urrutia euskaltzainburuak agur laburra egin du, besteak beste ekitaldiaren garrantzia azpimarratuz. Ondoren, Patxi Urizarren, Jabier Kaltzakorta hautagaitzat aurkeztu zuenatariko bat, eta azken sarrera-hitzaldia egin duen Jean-Baptiste «Battittu» Coyos euskaltzain osoa deitu eta euskaltzain berriaren bila joan daitezela eskatu die.

Bi euskaltzainek lagunduta batzar aretora sartu da Jabier Kaltzakorta *Ahozko literatura hizpide* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Adolfo Arejita euskaltzainak eman dio.

Wilhelm Humboldt-ek Euskal Herrira egindako bigarren bidaiako ibilbidea gida harturik, lekuan lekuko ahozko generoak aztertu ditu Kaltzakortak bere hitzaldian. Humboldt Euskal Herrira bigarrenez etorri zenean, 1801eko udaberrian, Baionatik

Donibane Lohizunera eta handik Donostiara jo zuen eta Donostiatik, Getarian zehar, Ondarroara sartu zen. 1801eko maiatzaren 4tik 5era, Markinan, Juan Antonio Mogelek egon zen. Humboldt Markinan egon zenean, J. A. Mogelek *Loreen kantua* izenarekin ezagutzen den euskarazko kanta baten berri eman zion. Kanta hori, Mogelek Humboldti aditzera eman zionez, kantabriarrek –hots, euskaldunek– Augustoren legioen kontra borrokatu ziren garaikoa omen zen.

1817an, liburuxka batean (*Berichtigungen und Zusätze des Mithridates* erdaraz *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung*) ohar eta iruzkinekin, argitaratu zuen Humboldt. Kantu horrek eragin handia izan zuen Europan zein Euskal Herrian bertan. Markinan J. Antonio Mogelek eta Durangon Pablo Astarloarekin egon zen Humboldt. Bidaiari prusiarraren bidaiaren egunerokoa gida harturik, mugaz bestaldeko ahozko generoak aipatu ditu Kaltzakortak bere hitzaldian.

Mugaz bestaldean, Lapurdin, Baionan zehar Itsasura joan zen Humboldt. Itsasun, Harambillet apaiz zaharra ezagutu zuen eta horrek euskarazko kanta zaharrak erakutsi zizkion. Hala bada, Itsasun ikasitako kanta eta baladen gainean hitz egin du J. Kaltzakortak hitzaldian. Itsasutik Baigorri zeharkaturik, Zuberoa izan zen Humboldt ezagutu zuen azken euskal lurraldea.

Jabier Kaltzakortak emaniko sarrera-hitzaldiari erantzuna Adolfo Arejita Iker sailburuak eman dio. Bere erantzunean, J. Kaltzakortari buruz hitz egin du Arejitak: «Nahiago dut bere bibliografiari so bat egin eta hartako ale bakoitzaren edukiaren trinkotasunari eta sakonerari neurria hartzea, kopuru neurriaz gainera».

Jabier Kaltzakortaren ibilbidea eta lana gogoan izan ditu, beraz: «Beronen liburuetan, baina batez ere aldizkarietan barrena argitaratu dituen ikerlanak ohartsu irakurritz gero, eta berari astiorduetan honez edo hartaz hitz egiten entzuteko betarik izan baduzue, gutariko edozein harrituko da, euskal hizkuntza-literaturez ez ezik, literatura unibertsalaz zein kultura zabalaz beronek duen jakinduria zabalaz. Ezaguera entziklopediko moduko osotasun horretatik literaturaren eta bereziki herri literaturaren barrutia hautatu zuen orain dela aspaldi bere baratz preziatu, eta hori landu du gehienik, baina beste alderdiak ere ahantzi gabe».

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina jantzi eta diploma eman dio Jabier Kaltzakortari.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, opari eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Juan Jose Txurruka alkateak, Udalaren izenean, eta Ander Manterola oho-

rezko euskaltzainak eta Igone Etxebarria euskaltzain urgazleak, Labayru Ikastegia-
ren izenean, opari bana eman diote.

Ostean, hurreratu diren guztiei aho-gozagarri arina eskaini die Udalak, ekital-
diari amaiera emanez, 14:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostia, Luis Villasante Euskararen Ikergunea

2014ko abenduaren 19an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jaber Kaltzakortak ahala A. Urrutiari;

Patxi Salaberrik ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu. Horiek horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren abenduko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

Idazkariordeak eguneko programa azaldu du: Osoko batzarra hamabietan amaitu eta 12:30ean Ageriko bilkura egingo da, Joan Martí Castell ohorezko euskaltzainari Akademiaren ikurra eta diploma emateko.

1. Osoko bilkurako (2014-11-29) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Bi ohar jaso dira: batetik, Jose Luis Lizundiak Osoko bilkuran 11:00etan, ia

bukaeran azaldu zela jaso dadin eskatu du; bestetik, Miren Azkaratek 2. puntuko azken-aurreko paragrafoaren amaieran esaldi bat gehitzeko eskatu du («M. Azkaratek ez du inola ere zalantzan jartzen Hiztegi Batuko lantaldeak prestalana ongi egin duela Hiztegi Batuaren hasiera-hasieratik gaur arte»).

Bi zuzenketak onartu dira Osoko bilkuran.

Gauzak horrela, bestelako oharrak ez denez, bilera-agiria onartu da.

2. Hiztegi Batua.

Urriaren 16an, Mendebalde Kultura Alkartea eta Euskaltzaindiak hiru urteko iraupena duen lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Bilbon, Akademiaren egoitzan. Mendebalderen izenean Kaxildo Alkorta zuzendariak sinatu zuen, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia euskaltzainburuak. Ekitaldian honako hauek ere izan ziren: Mendebalderen izenean, Maribi Unamuno, Eneko Barrutia, Juan Luis Goikoetxea eta Jacinto Iturbe; Euskaltzaindiaren aldetik, Xabier Kintana eta Pruden Gartzia.

Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.

Besteren artean, Mendebalde Kultura Alkartea argitaraturiko euskarazko testu-multzoa Akademiaren eskuetan jarriko duela jasotzen du hitzarmenak, Lexikoaren Behatokia egitasmorako.

Horretaz gain, honako puntu hauek jaso dira hitzarmenean:

- Mendebalde Kultur Alkartek Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexikografia, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak kontsulta horiei erantzuna eman edota bideratuko ditu.
- Bi erakundeok publikatzen dituzten argitalpenak elkarren artean trukatzeke konpromisoa hartzen dute. Era berean, bi sinatzaileen artean argitalpen-egitasmoak partekatuko dituzte.
- Euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeke konpromisoa hartzen dute. Euskaltzaindiak egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera eskaintzen dio Mendebalde Kultur Alkarteari, adosten dituzten ekintzetan baliatzeke.

ONCE

Euskaltzaindiko katalogoetako obra batzuk Braille sistemara edota itsuek soilik erabiliko dituzten beste formatu batzuetara egokituko dira. Helburu horri begira, Akademiak eta Espainiako Itsuen Erakundeak (ONCE) lankidetzatza-hitzarmena sinatu zuten azaroaren 10ean. Egokitu beharreko lanak bi aldeek batera hautatuko dituzte.

Bestalde, Euskaltzaindiak, ONCEekin elkarlanean, gaztelaniazko testu labur zehatzak gaztelaniatik euskarara itzuliko ditu.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Basilio San Gabriel ONCEren lurralde-ordezkariek izenpetu zuten lau urteko iraupena izango duen hitzarmena.

Gabriel Aresti Kultura Elkartea

Gabriel Arestiren lanak, ondarea eta obrak ezagutarazteko asmoz, Euskaltzaindiak eta Gabriel Aresti Kultura Elkartek lankidetzatza-hitzarmena

sinatu zuten abenduaren 4an. Hitzarmenaren testuan jaso zenez, bi erakundeok «Gabriel Arestiren obra osorik edo zatika berrargitaratuko dute, hitzaldiak, erakusketak eta jardunaldiak antolatzeke borondatea dute, bai eta haren obra eta ekarria testuinguruan kokatzeko bestelako adituen ekarpenak bilatuko eta argitaratuko ere». Elkarlan horren lehenbiziko emaitza egun berean bertan aurkeztu zen jendaurrean: *Harri eta herri* liburuaren berrargitalpena.

Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Meli Esteban Gabriel Arestiren alargun eta Elkartearen ohorezko presidentek sinatu zuten hitzarmena. Giro lasaian egin zuten, *Harri eta herri # 50 urte* argitalpena aurkeztu ondoren. Gabriel Aresti Elkartearen eta Euskaltzaindiaren ordezkariak eta liburuan parte hartu duten egileetako batzuk ondoan izan zituzten.



Berriak

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



2014ko albisteen kronika

Sopela, Bizkaiko Uribe Kostako udalerriaren izen ofiziala

Bizkaiko Batzar Nagusiek *Sopelana* izena alde batera utzi eta udalerriari ofizialki *Sopela* deitzea onartu zuten urtarrilaren 29an. Bizkaiko eta Euskal Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialetan argitaratu ostean, Sopela izenari erabateko ofizialtasuna eman zitzaion.

Udalerri horretako izen ofiziala aldatzea prozesu luzea izan zen. Euskaltzaindiak hainbat aldiz adierazi zuen Sopela izan behar zela udalerriaren izen ofiziala, eta hala jasotzen du Akademiaren 145. arauak, 2005ean onartua *Bizkaiko Herri Izendegia* izenarekin.

Udalak eskatuta, 2012an egin zuen Akademiak azken txostena. Harrezkero, 2013ko urtarrilean egindako Udalaren Euskara, Hezkuntza eta Kultura batzordearen bileran Euskaltzaindiak izenari buruzko argibideak eman zituen. Hilabete geroago, 2013ko otsailaren 28an eginiko osoko bilkuran, udalerria Sopela deitzeko prozesua abian jartzea erabaki zuen Udalak.

Ondoren, akordioa Bizkaiko Batzar Nagusietara bidali eta bertako Batzorde Institutuzionalak izen aldaketaren aldeko irizpena eman zuen 2013. urteko abenduaren 3an. Azkenik, 2014ko urtarrilaren 29an, Bizkaiko Batzar Nagusiek onartu zuten aldaketa.

Euskaltzaindia D ereduaren alde Nafarroan

Urtarrilaren 31n, Bilbon eginiko Osoko bilkuran, Euskaltzaindiak honako adierazpena onartu zuen:

«Nafarroako irakaskuntzan iragarri da datorren 2014-15 ikasturtean izena emateko epea. Urtero bezala, gurasoek aukera izanen dute beren umeak D ereduan matrikulatzeko, bai irakaskuntza publikoan, bai ikastolen sarean. Izan ere, ikastetxe horiek aukera paregabea eskaintzen diote Nafarroako gizarteari, gurasoei bereziki, nafar guztionan den hizkuntza eta kulturatik abiatuz, beren seme-alabak mundu zabalera begira hezi ahal izateko.

Euskara babestea, gizartearen maila guztietara zabaltzea eta erabilerara sustatzea Euskaltzaindiaren zeregin berariazkoak dira, legez Euskaltzaindia baita euskararen erakunde aholku emaile ofiziala. Hori horrela, Akademiak xede horiekin bat egitera gonbidatzen ditu Nafarroako haurren gurasoak eta beren seme-alaben heziketarako D eredua (euskarazko irakaskuntza Gaztelania irakasgaiarekin) hautatzera animatzen. Aldi berean, zorionak ematen dizkie eredu hori hautatzen duten gurasoei, bai eta eskerrak eta babes osoa ere, irakaskuntza publikoan zein ikastolen sarean urte luzez, zeregin horri osoki emanak eta emaitza bikainak lortuz lanean aritu diren eta ari diren irakasleei eta gainerako langilei.

Bilbon, 2014ko urtarrilaren 31n eginiko
Euskaltzaindiaren Osoko bilkuran aho batez onartua».

«Euskaltzaindiaren Hiztegia» egitasmoaren zuzendaritza berritu

Euskaltzaindiko Osoko bilkurak, urtarrilaren 31n Bilbon eginiko batzarrean, Andoni Sagarna euskaltzain oso eta Gipuzkoako ordezkaria *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak* egitasmoaren zuzendari izendatu zuen. Bilera berean, Miriam Urkiak, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko Lantaldearen buruak, zeregin horretan lagunduko ziola erabaki zuen Akademiak, eta Jose Antonio Aduriz euskaltzain urgazleak aholkulari lanetan jardungo zuela.

Ordura arteko lantaldearen teknikariak (Elizabet Kruzeta, Ainhoa Otamendi, Ane Loidi eta Gabriel Fraile) lanean jarraitu zuten.

Ibon Sarasola egitasmoaren aurreko zuzendariak, Euskaltzaindiarekin izan zuen zuzendaritza-kontratua 2014. urtean ez berritzeko hartu zuen erabakia idatziz berretsi ondoren, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak proposatu eta 2014ko urtarrilaren 31n Bilbon eginiko Osoko bilkurak berretsi zuen egitasmo horren zuzendaritza berriaren osaera.

«Desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzez eta hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunean» mintegia

Otsailaren 21ean, «Desagertzeko arriskua duten europar hizkuntzez eta hizkuntza-aniztasuna Europar Batasunean» mintegia egin zen Bilbon, eta bertan «Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzez eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena»ren egileek –Csaba Sándor Tabajdi (Europako Parlamentuko Sozialisten eta Progresisten Aliantzaren Taldekoa) eta François Alfonsi (Berdeak-ALEko Taldekoa) eurodiputatuek– parte hartu zuten. Euskaltzaindiak eta Sabino Arana Fundazioak elkarlanean antolatu zuten.

Aipatutakoez gain, beste eurodiputatu batzuk eta Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta euskararen, hezkuntzaren eta euskal kulturaren esparruan diharduten zenbait erakunde eta elkartetako ordezkariak ere mintegian izan ziren. Hala, Izaskun Bilbao EAJ-PNVren eurodiputatuak, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza sailburuordeak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Eusko Jaurlaritzako, Bizkaiko Foru Aldundiko eta euskararen, hezkuntzaren eta euskal kulturaren esparruan diharduten zenbait erakunde eta elkartetako ordezkariak ere parte hartu zuten. Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordea izan zen mintegiko koordinatzailea.

«Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzez eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruzko txostena», François Alfonsi korsikar diputatu eta Europako Parlamentuko Gutxiengoen Talde-elkarteko presidenteki-deak koordinatua, gehiengo handiz onetsi zen Europako Parlamentuan

2013ko irailaren 11n. Aldez aurretik, proposamena Europako Parlamentuko Kultura eta Hezkuntza Batzordeak ere onetsi zuen, aho batez, 2013ko ekainaren 18an.

Txosten hori berori aurkeztu zen Bilbon eginiko mintegian. Aurkezpen horretan, Csaba Sándor Tabajdik datu batzuk jarri zituen mahai gainean, hala nola, Europar Batasunean 255 hizkuntza baino gehiago mintzatzen dira, eta horietatik 128 egoera larrian daudela eta 90, berriz, oso egoera larrian. Horrek biztanleriaren % 8ri –45 milioitik gora pertsonari– eragiten die. Europako Parlamentuko Sozialisten eta Progresisten Aliantzaren Taldeko eurodiputatuaren esanetan, egoerari buelta eman dakiok. Euskararen kasua aipatu zuen, «bizirik irautea ez ezik, aurreratzea ere lortu baita».

Nafarroako egoera ere kontuan hartu zuen, eta hauxe azpimarratu: «40.000 nafarren hizkuntza-eskubideak Foru Gobernuaren esku daude». Eta frantziar estatuari dagokionez, honako hau adierazi zuen: «Ez du aitortzen frantsesa ez den beste hizkuntzarik, eta horrela Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoako milaka euskaldunen eskubideak urratzen ditu». Hori dela-eta, europar instituzioei eskatu zien «presioa egin diezaiotela frantses gobernuari, Hizkuntza Gutxituen Gutuna berresteko konpromisoa bete dezan».

Euskaltzaindiaren webgunearen bertsio mugikorra

Euskaltzaindiaren webgunearen atal erabilienak eskuko telefonoan eskuratzeko, webgunea moldatu du Akademiak. Ondorioz, webgunearen bertsio arruntan ez ezik, Hiztegi Batua, Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Onomastikaren Datutegia eskuko telefonoentzako egokitutako moldean ere kontsulta daitezke. Eskuko telefonotik webgune osoa ikusteko ere aukera ematen du Akademiak.

Lana Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkari-tzaren garatu zen, Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordearen gidaritzapean. Hau guztia aurkezteko, otsailaren 28an prentsaurrekoa eman zuten Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Alazne Gorrotxategi informatikariak.

2013ko Azkue Literatura sariak

Martxoaren 6an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 2013ko Resurreccion Maria Azkue sariak banatu zituzten Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak. Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Hauek dira 2013ko saridunak:

- A mailan, narrazioan: lehen saria: *Mundiala!*, Maddi Aiestaran; bigarren saria: *Zintzoa izateko ipuina*, Olatz Bereziartua; hirugarren saria: *Martinaren ibilbidea*, Anne Agirre.
- A mailan, olerkian: lehenengo saria: *Egunsentia*, Lorea Azpiazu; bigarren saria: *Ezer ez da betiko*, Naia Ordorika; hirugarren saria: *Parkea*, Aiora Amenabar.
- B mailan, narrazioan: lehen saria: *Janis Joplin, sudur gorriak eta arrautza frijituak*, Lourdes Ondaro; bigarren saria: *Lagun minak*, Markel Txasko; hirugarren saria: *Egunari beldur*, Ane Saiz.
- B mailan, olerkian: lehen saria: *Lehertu, atertu, desertu*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Amaraunak*, Inhar Esnaola; hirugarren saria: *Itzaldtu*, Maialen Akizu.

Azkue Sarien helburu nagusia idazle gazteak literatura mundura erakaritzea da. 2013ko epaimahaikoak hauek izan ziren:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B mailan: Joseba Butron, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta.

Euskaltzaindia Amezketan, Fernando Amezketarraren jaiotzaren 250. mendeurrenean

2014an bete ziren 250 urte Fernando Amezketarra jaio zela. Hori dela-eta, Amezketako Udalak «Fernando urtea» izendatu zuen 2014a, eta bertsolariaren omenezko hainbat ekitaldi sustatu zituen urte osoan zehar. Euskaltzaindia ere Amezketan izan zen, martxoaren 19an, ospakizunekin bat eginez.

Hala, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bilera egin zuen Amezketako Udaletxean. Arratsaldean, Fernando Amezketarrari eskainitako plaka bistaratu zuten Kultur Etxean. Honela dio: «2014-3-19. Fernando Amezketarra jaio zeneko 250. urteurrenean eta bere izeneko Kultur-Etxe honetan, herriko Udalak eta Euskaltzaindiak jarritako oroigarria». Ekitaldian, Yolanda Gorostidi Kultura zinegotziak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hitz egin zuten, eta Bixente Gorostidik bertso batzuk bota zituen.

Ondoren, hitzaldi bana eman zuten Pello Zabalak –«Zer izan da Fernando niretzat?»– eta Jose Mari Oterminek –«Zer dakigu Fernandoz?»–.

Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideen agerraldia Eusko Legebiltzarrean

Martxoaren 18an, Eusko Legebiltzarraren Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol batzordearen aurrean agerraldia izan zuten Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako ordezkariak. Guztien izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza eta, besteak beste, Akademiaren sorrera, izaera eta zereginak azaldu zituen. Laster ehun urte beteko dituen erakunde honen erronka eta helburu nagusiak ere aipatu zituen.

Euskaltzaindia zelan sortu zen gogoratu ostean, erakundearen helburu nagusiak gogoan izan zituen euskaltzainburuak: «Euskara ikertzea, arautzea eta haren erabilera sustatzea. Hortaz, bere izaera zientifikoa eta akademiakoa, alde batetik, eta gizartearekikoa, bestetik, azpimarratu behar dira».

Hainbat arlo jorratu zituen Andres Urrutiak bere agerraldian, besteak beste orain arte eman diren pausurik nabarmenenak, bai eta etorkizunari begira Euskaltzaindiak mahai gainean dituen 11 erronka eta 5 ildo nagusiak ere.

Erronkak eta ildo estrategikoak

Erronkei dagokienez, hona horietako batzuk: finantzaketa-bide berriak lortu; egituraz kanpoko erakunde eta profesionalak elkarlana eta lanki-

detza-sistemak hobetu eta areagotu; Euskaltzaindiaren jarduera arauemai-
lea eraginkorragoa egin; hizkuntzaren corpusari buruzko aholku eta kon-
sulta zerbitzuetan, erakunde eta profesionalei zerbitzu-eskaintza hobea
ziurtatzeko urratsak egin; ahozko hizkera-moldeak landu eta hizkuntza
mintzaturiko erregistroak, lehentasunezko gizarte-esparru eta segmentu ja-
kinetara zabaltzeko egitasmoak bultzatu; euskalgintzako eragile eta hizkun-
tzalaritzako profesionalek Euskaltzaindiari eskatutako egitasmoei lehenta-
suna eman, e.a.

Horiek horrela, 2011-2016 aldirako, bai ildo estrategikoak, baita helbu-
ruak ere markatu ditu Zuzendaritzak. Hauek dira helburuok:

- Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren 4 liburuki berri kaleratzea.
- Hiztegi Batuak 63.000 hitz jasotzea.
- Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak hiztegiak 43.000 hitz jasotzea. Bigarren argitaraldia.
- Euskal Hiztegi Etimologikoa argitaratzea.
- Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak lana eguneratzea eta moldatzea. Ondoren, lanaren laburpena egitea.
- Euskara Batuaren Eskuliburua argitaratzea.
- Euskararen Historia Soziala egitasmoa burutzea.
- Lexikoaren Behatokiak 60.000.000 testu-hitz jasotzea.

2013-2016 aldirako bestelako helburuak, aldiz, honako hauek aipatu zi-
tuen:

- Onomastika zerbitzua berrantolatu eta irizpideak ezartzea. Euskal Cor-
pus Onomastikoa gizarteratzea.
- Hizkuntzaren Kalitatearen Behatokia zerbitzuaren sorrera.
- Ikertzaileen figura sortzea eta barruratzea Akademiaren egituraren ba-
rruan.
- Euskaltzaindiaren batzordeek ere lanean jarraitzea eta Euskaltzaindia-
ren zerbitzuak eragingarriak izatea euskal gizartearen aurrean.

- Hizkuntza industriekin, herri-erakundeekin, unibertsitateekin, euskalgintzaren eta euskal gizartearen elkarte eta erakundeekin, hedabideekin eta abar lankidetzaz bideak areagotzea, euskara prestigiatzeko eta are hobeto kokatzeko etorkizunari begira.
- Euskaltzaindiaren ekarria proiektatzea euskal gizartean euskararen lurralde guztietan.
- Kudeaketa gardena eta hurrekoa. Esku artean dauzkan baliabideak ahalik ondoen eta eragingarrien baliatzeko asmo sendoa.

Liburu Azokak: Sara, Durango, Bilbo

Apirilaren 21ean, Pazko Astelehenean, Sarako Idazleen Biltzarra egin zen. Euskaltzaindiak hiru liburu aurkeztu zituen: *Le fondement moral des droits culturels de l'homme* (Kultura eskubideen oinarri etikoak), Piarres Charrittonena; *Amodioaren Martirra. Dolores emazte bat berthutez bethea*, Ernest Daudetena, Xabier Altzibar da edizio kritiko eta modernoa egin duena; eta *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*, Jean-Baptiste «Battittu» Co-yosek paratua.

Sarako Turismo Bulegoak eta Euskal Kultur Erakundeak antolatzen duten biltzarra herriko kiroldegian egin zen, urtero legez. 2014ko edizioak hiru lagun omendu zituen: Erramun Baxok soziolinguista eta ohorezko euskaltzaina, Manex Pagola idazle, kantari eta euskaltzain urgazlea eta Patrice Rouleau marrazkilaria.

Bestalde, abenduaren 5etatik 8ra bitarte, Euskaltzaindia Durangoko Azokan izan zen. Beste zenbait argitalpenez gain, 2014ko nobedadeak izan zituen salgai, besteak beste, *Harri eta Herri # 50 urte. Artikuluen bilduma*, *Euskaldun hazi Nafarroan*, *Euskal Herriko ibaiak* edota *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*.

Horrezaz gain, Xarles Videgain euskaltzain oso eta *Euskararen Herri Hizkeren Atlaseko* arduradunetariko bat, Atlas horri buruzko azalpenak ematen egon zen, Euskaltzaindiaren erakusmahaietan.

Hauetaz gain, maiatzaren 29tik ekainaren 8ra izan Bilboko Liburu Azokan ere saltokia izan zuen Euskaltzaindiak.

euskaltzaindia.eus helbide berria

Abenduaren erdian, Euskaltzaindiak webgunearen helbide berria estreinatatu zuen: euskaltzaindia.eus. Akademiaren helbide elektronikoko guztiak ere .eus-era aldatu ziren.

.eus domeinuak bere ibilbideari ekin zionetik, zazpi urte luze joan ziren. 2009ko urtarrilaren 9an, PuntuEus elkarteak aurkeztu zuen bere burua, agerraldi publiko batean. Lana, baina, urtebete lehenago hasi zen.

Euskaltzaindiak sorreratik bertatik parte hartu zuen proiektuan. Akademiak 2007. urtearen bukaeran izan zuen lehenbizikoz .eus domeinua sortzeko ekimenaren berri. Ondoren, 2008ko urtarrilaren 17an, ekimen horretan partaide izateko deituak izan ziren erakundeetako ordezkariak bildu ziren, eta horien artean Euskaltzaindiaren ordezkaria zegoen, Andoni Sagarna, alegia. Bilkura horretan parte hartu zutenek .eus elkartearen Zuzendaritza batzordea hautatu zuten eta Euskaltzaindiaren ordezkaria batzorde horren buru izatea erabaki zuten.

2012an, elkarteak PuntuEus Fundazioa sortu zuen, egitura juridiko hori beharrezkoa zela ikusi zelako. Urte horretan bertan Euskaltzaindiak Joan Mari Torrealdai izendatu zuen bere ordezkari; ordu ezkerok, Fundazioaren presidentea Torrealdai da.

.eus domeinua duen aurreneko webgunea apirilaren 15ean sarean ikusi ahal izan zen (Domeinuak.eus). Bi hilabete geroago, ekainaren 28an, PuntuEus Fundazioak iragarri zuen egun horretan bertan aktibatu zirela lehen webgunetako domeinuak, 92 aitzindariaren eskutik. Aitzindarien Fasearen ondoren, abiarazte-aldia etorri zen eta, azkenean, abenduaren 3an, .eus domeinuaren fase irekia hasi zen.

Fase irekiaren hasiera ospatzeko, hain zuzen ere, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, aktibatu ziren abiarazte-aldian erregistratu-

tako .eus domeinu-izen, 1.292 guztira. Era berean, domeinu-izenen erregistro publiko orokorraren fasea martxan jarri zen.

Euskaltzaindiak domeinuaren erregistroarekin arazo tekniko batzuk izan zituen, eta, aipatu bezala, abenduaren erdialdera arte ezin izan zuen domeinua erabili, euskaltzaindia.eus, alegia.

Ipar Euskal Herriko euskaltzainen urteko bilera

Apirilaren 29an egin zen Ipar Euskal Herriko euskaltzainen urteko bilkura, Baionako ordezkartizan. Bileran hau urtero egiten da, Frantziako Estatu-ko Elkarte-legeak dioena betez, eta Iparraldeko euskaltzainek –oso, ohorezko eta urgazleek– parte hartzen dute. Iparraldeko euskaltzainez gain, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideak izan ziren.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman zion bilerari. Ondoren, 2013ko ekitaldien txostena aurkeztu zuen Xarles Videgain Iparraldeko ordezkariak, baita Iparraldeko berariazko egitasmo eta argitalpena ere. Bestalde, Joseba Zabaleta kudeatzaileak 2013ko kontuen txostena eta 2014ko aurrekontua aurkeztu zituen. Azkenik, 2013. urteari dagokion aditegi txostena ere aurkeztu zen.

Txosten guztiak aho batez onartu ziren.

12 ohorezko euskaltzain berri

Maiatzaren 30ean, Euskaltzaindiak Donostian egin zuen Osoko bilkuran, 12 ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen. Hauek dira: Paulo Agirrebaltzategi, Angel Aintziburu, Dionisio Amundarain, Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Antonio Campos, Maite Idirin, Mixel Itzaina, Jon Landaburu, Joan Martí, Martin Orbe eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Euskaltzaindiak aldiro-aldi izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, bere arautegiaren arabera, euskarari egindako mesede bikainengatik.

Euskaltzaindiak eta Elantxobeko Udalak Imanol Berriatua omendu dute

Uztailaren 19an, Elantxobeko Udalak eta Euskaltzaindiak Imanol Berriatua omendu zuten, bere jaiotzaren mendeurrenean.

Eguneko egitaraua Gorgonio Renteria Kultur Etxean hasi zen, bertan egin baitzen Imanol Berriatuaren bizitzari buruzko erakusketa birtuala. Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak eta Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendariak eman zituzten azalpenak.

Ondoren, ageriko bilkura egin zen. Hizlariak hauek izan ziren: Koldo Olagibel alkatea, Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazlea, Xabier Kintana euskaltzain osoa eta Andres Urrutia euskaltzainburua. Hitzaldiak entzun ondoren, ohorezko aurrekua dantzatu zuten, eta Talaiako goialdean bistaratu zen Elantxobeko Udalak eta Euskaltzaindiak Imanol Berriatuaren omenez egin duten oroitarria. Honela dio: «Imanol Berriatua Ibieta. Jaiotzaren mendeurrena. 2014. Gure artean hitz egin».

Horren ostean, bi erakundeek beste plaka bat eman zioten Imanol Berriatuaren ilobari. Plaka horretan omenduaren erretratua agertzen da, eta berak 1952an Andima Ibinagabeitiari bidali zion gutunaren zati bat: «Ai, gure Izaro'ko komentu zaharra! Bagagoz emen aski, komentu ori edeki gura dugunok. Baita, euskera errukarria iaso nahi dugunok ere. Erein dezagun gogoz, eta bilduko dugu noizbait fruitua».

Sei kide berri *Euskera* agerkariaren Aholku batzordean

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofizialaren Aholku batzordeak sei kide berri ditu: Mixel Aurnague, Martine Berthelot, Martin Haase, Jose Ignazio Hualde, Xabier Itzaina eta Jon Landaburu. Agerkariaren Idazketa batzordeak proposatu zituen, eta Akademiaren Osoko bilkurak onartu, uztailaren 18an.

Euskera agerkariaren Idazketa batzordearen lehentasunetako bat agerkariaren irekiera instituzionala sustatzea izan da. Horretan sakonduz, Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología (FECYT) erakundeak, aldizkari zientifikoaren kalitatea aztertzeke ebaluazioan, *Euskera* agerkariari

egindako gomendioek asmo hori indartu zuten. Izan ere, besteren artean, agerkariko Aholku batzorderako nazioarteko eta izen handiko erakundetako kideak izendatzea proposatzen zen.

Hala, bada, Idazketa batzordeak, 2014ko uztailaren 8ko bileran, zenbait irakasle eta ikerlariren izenak bildu, horien lanak eta meritua aztertu, eta Osoko bilkurari 6 kideren izendapena proposatzea erabaki zuen. Osoko bilkurak izendapen hauek uztailaren 18an berretsi zituen.

Aholku batzordeko kide guztiak hauek dira: Mixel Aurnague, Miren Azkarate, Joxe Azurmendi, Martine Berthelot, Josu K. Bijuesca, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Ana Etxaide, Jose Ramon Etxebarria, Maite Etxenike, Patxi Goenaga, Ricardo Gomez, Manuel Gonzalez, Jose Ignazio Hualde, Itziar Idiazabal, Joseba Intxausti, Iñaki Irazabalbeitia, Jacinto Iturbe, Xabier Itzaina, Jabier Kaltzakorta, Jon Landaburu, Alberto Loizate, Juan Madariaga, Joan Martí, Eneko Oregi, Jon Ortiz de Urbina, Rosa Miren Pagola, Jose Antonio Pascual, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Joan Mari Torrealdai, Miriam Urkia, Xarles Videgain eta Juan Jose Zubiri.

***Hamalau Heriotzena* lanaren jatorrizko bertsopaperaren kopia aurkitu dute Euskaltzaindian**

Modesto eta Bertol Arrieta aita-emeek *Hamalau Heriotzena* izeneko sortaren jatorrizko bertsopaperaren kopia bat aurkitu dute Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan. Dokumentu berean agertzen denez, Tolosan argitaratu zen, D. Juan Manuel la Lamaren inprimategian, 1826an.

Modesto eta Bertol Arrietak azaldu dutenez, «1965ean J.M. Leizaolak *1808-1814 en la poesía popular vasca* (194-200 or) liburuan argitaratu zituen bertso horiek, baina ortografia garaira egokituta eta izenak ezkatututa. Gero, 1983an, Lakarrak, Bigurik eta Urgellek jaso zuten aldaera hori euren liburuan (*Euskal baladak: antologia eta azterketa*)».

«Dena den –gaineratu dute– bertso-paper hori, Louis Lucien Bonaparte printzeak jaso eta Londresen zeukan liburutegi pertsonalean gordeta egon zen, bere alargunak Chicagoko Newberry Libraryri saldu arte (1900. urte inguruan). Gero, 1980. urte inguruan, Euskaltzaindiaren Bibliotekak Bona-

partek jasotako bertso-paperez osatutako mikrofilm bat erosi zuen, ikertzailerle guztien eskuragarri egon zedin. Kontsultak errazteko bertso-paper horien kopia egin zituen paperean. Guri horien kopia bat iritsi zaigu. (Hilabete eskas geroago, Roberto Kerexetaren laguntzaz, beste mikrofilm bat aurkitu dugu Euskadiko Artxibo Historikoan)».

Bertsopaper honetan, aurkezpen gisa, testu hau azaltzen da: «MENDAROCO SEMEA NAIZ DESGRACIA ASCO EGUIN *dedana, eta noa aditce? ematera canta oiequin ez dedin suertatu Amaren Semeric gueyago ni becela*».

2014ko Nafarroa Oinez dela eta, Euskaltzaindia Zangozan

Urtero bezala, Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festarekin bat egin, eta irailaren 26an Zangozan izan zen Euskaltzaindia.

Goizean, Angel Navallas Zangozako alkateak ongietorria eman zien euskaltzainei. Udalaren izenean, alkateak «Zangozako Udalak Euskaltzaindiari, Zangozako Udaletxean ospatutako bileraren oroimenez. 2014/9/26» dioen oroigarria eskaini zion euskaltzainburuari.

Ondoren, Euskaltzaindiak Osoko bilkura egin zuen, Udaletxean. Batzarra amaitu zenean, 2014ko Nafarroa Oinez antolatu zuen Zangozako ikastola bisitatu zuten euskaltzainek. Ondoren, ikastolako arduradunek operi batzuk eman zizkioten Euskaltzaindiari: «Zugan datza euskararen geroa» esaldia duen oroigarria eta Jose Javier Abadía margolariak egindako Santa Maria elizaren fatxadaren urmargoa. Bestalde, euskaltzain guztiek jaso zuten Zangozako ikastolak 25 urte bete zituenean kaleratu zuen liburua.

Arratsaldean, Zangoza herria bisitatu zuten Juan Cruz Labeaga historialariaren gidaritzapean.

Euskararen aldeko gurasoen jarrera eskatu dute Euskaltegiek eta Hezkuntza ordezkariak

Irailaren 16an, agerraldia egin zuten euskaltegiek eta hezkuntzako hainbat eragilek, Euskaltzaindiaren egoitzan. «Zatoz euskaltegira» kanpainaren

barruan kokatu zen ekitaldia eta gurasoei zuzendu zitzaizkien. Izan ere, umeak euskalduntzeko prozesuan, gurasoen jarrera aktiboa oso inportantea dela aldarrikatu zuten.

Agerraldian hauek izan ziren: batetik, AEK, IKA, Batuz, Elkarlan, Deustuko euskal irakasleagoa, Aurten bai, Bai&By, Maizpide eta udal euskaltegiak; eta bestetik, Koldo Tellitu (Euskal Herriko Ikastolen Federazioa), Mikel Ormazabal (Kristau Eskola) eta Lurdes Imaz (EHIGE) hezkuntzako eragileak. Arantza Aurrekoetxea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburordea eta Joseba Erkizia HABEko zuzendari nagusia ere izan ziren ekitaldian. Azaldu zuten bezala, ohiko ikastaro eta moduluez gain, gurasoei bereziki zuzendutako eskolak eskaintzen dituzte euskaltegiek, gurasoen behar komunikatibo nagusietara eta ordutegietara egokitutakoak.

Euskaltzaindia 2014ko Ondarearen Europako Jardunaldietan

Urtero legez, 2014an ere Ondarearen Europako Jardunaldiak antolatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiak. «Etxez etxe» izenburupean, ekitaldi ugari egin ziren urrian zehar, Bizkaiko herri askotan. Euskaltzaindiak «Euskal Herriko etxeak: etxeen izenak eta esanahiak» izeneko hitzaldi zikloa eta erakusketa bi –bata digitala, bigarrena liburuez osatuta– antolatu zituen.

Euskal kulturaren *etxe* kontzeptuak alderdi anitz dauka eta oso garrantzitsua da. Hori horrela, etxearen eta euskararen arteko lotura hizpide izan zuten hiru hitzaldi antolatu zituen Euskaltzaindiak: «Etxea eta euskalkiak», «Etxeen izenak» eta «Etxea eta euskal literatura». Hizlariak Aritz Abaroa, Mikel Gorrotxategi eta Adolfo Arejita izan ziren.

Hala, urriaren 9an «Etxea eta euskalkiak» hitzaldia eman zuen Aritz Abaroa Euskararen Herri Hizkeren Atlas egitasmoko teknikariak. Euskalkien ikuspuntutik heldu zion gaiari: baserria, borda, aldeatze, laborari etxea eta antzeko kontzeptuen arteko aldea ikusi zen.

Urriaren 16an, Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduradunak «Etxeen izenak» gaia jorratu zuen. Etxeen izenak aztertu zituen: Goikoe-txea, Bengoetxea, Aurrekoetxea...

Urriaren 23an, Adolfo Arejita euskaltzain eta Iker sailburuak «Etxea eta literatura» izan zuen hizpide. Etxearen sinbolismoa euskal literaturan aztertu zuen.

Erakusketari dagokionez, «Etxea XX. mendeko euskal pentsamenduan. Hiru intelektuaren ekarpena: Agirre, Lhande eta Barandiaran» izena zuen, eta urriaren 1etik 31ra egon zen zabalik.

Euskaltzaindia Xalbador Egunean

Urtero legez, Urepelen (Nafarroa Beherea), ospatu zen Xalbador Eguna, Fernando Aire «Xalbador» oroitzeko. Urriaren 18an eta 19an izan zen ekimena, eta ohi bezala, Xalbadorrekin batera, beste pertsona bat omendu zuten. Oraingo honetan, Pierre Bordazarre «Etxahun Iruri» idazle, kantu eta pastoral egilea izan zen.

Xalbador Eguna antolatzen duten Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak egitarau oparoa prestatu zuten. Besteak beste, urriaren 17an, larunbatean, François Rossek eta Mixel Etxekoparrek kantaldia eman zuten. Igandean, aldiz, Etxahun Iruriri buruz aritu ziren, mahai-inguru batean, Jean Mixel Bedaxagar, Allande Etxahun, Luxi Etxekopar eta Mixel Etxekopar. Igandean, honako bertsolariak aritu ziren: Ibai Kanpo eta Joanes Etxeberria bertsolari zuberotarrak, eta horien ostean Amets Arzallus, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Juan Jose Eizmendi «Loidisaletxe II» eta Jose Luis Gorrotxategi. Gai-jartzailea Joxe Mari Iriondo izan zen.

Urepeleko Herriko Etxearen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadi Irratiaren laguntzarekin antolatu zen egitaraua.

Euskaltzaindiak eduki gehiago jarri ditu Creative Commons lizentziarekin

Azaroan, Euskaltzaindiak eduki gehiago jarri zituen Creative Commons lizentziarekin. Ordura arte bost ziren lizentzia horren menpe zabaltzen ziren lanak, eta azarotik aurrera bost gehiago gehitu zitzaizkien. Hauek dira lan

guztiak: Arauak, Hiztegi Batua, Hiztegi Batu Oinarriduna, XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, Orotariko Euskal Hiztegia, Literatura Terminoen Hiztegia, Lexikoaren Behatokiaren Corpora, Hitz-elkarketa, Izen-degiak / Euskal Onomastikaren Datutegia (EODA) eta Jagonet galde-erantzunen datu-basea.

Euskaltzaindiak erabiltzeari eskaintzen dion baimen-mota zehatza honako hau da: Aitortu - EzKomertziala - Partekatu Berdin 3.0 Espainia.

Hortaz, Akademiak argitaratutako material horiek guztiak kopiatu, banatu eta jendaurrean komunikatu ahal izango dira, betiere egilea Euskaltzaindia dela beren-beregi aitortu eta begi-bistan jarriz gero, eta edukiak zabaltzeko lizentzia bera erabiltzen bada. Horretaz gain, ezin da lan horren erabilera komertzialik egin, eta lana aldatu edo lan eratorri bat sortzen bada, sortutako eduki horren banaketa, ezaugarri berberarekin egin beharko da.

Era berean, erabiltzaileak lan baimendunen zatiak barruratu ahal izango ditu lan sortu berrietan, lan berri horiek literatura arlokoak, artistikoak nahiz zientifikoak izan, baldin eta lan sortu berrian ageriko aipamena jartzen badu, aurretiazko lan bat erabili duela nabarmentzeko, eta, horrez gain, baimen honen baldintza guztiak betetzen baditu (Aitortu - EzKomertziala - Partekatu Berdin).

R. M. Azkueren lan argitaragabeen digitalizazioa

Resurreccion Maria Azkueren lan argitaratu guztiak bildu, katalogatu, sistematizatu eta digitalizatzen ari da Jakin Taldea. Egitasmoa Euskaltzaindiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmen bati esker gauzatzzen ari da eta 2015ean amaituko da. *Jakin* taldeak garatuko du.

Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Joan Mari Torrealdai euskaltzain oso eta Jakin Taldeko kideak aurkeztu zuten egitasmoa, abenduaren 1ean. Torrealdaik esan zuenez, «hain da handia Azkueren obra, inork gutxik ezagutzen baitu osorik. Folkloreaz interesatzen dira batzuk, hiztegitintzaz besteak, besteak gramatikaz, besteak linguistikaz, besteak musikaz. Orain, guztia batean

emanda, corpus gisa eraturik, eta interaktibotasunari esker, Azkueren obrak beste dimentsio bat hartuko du, eta ikertzaileei aztergune berriak sortuko dizkie. Digitalizazioari esker –gaineratu zuen– Azkueren ekoizpen intelektual-kulturala gure esku geldituko da oso-osorik eta inolako sekreturik gabe».

Azkue gaitasun handiko gizona izan zen: euskaltzainburua, idazlea, literaturgilea, kazetaria, musikagilea eta musika biltzailea, hiztegiilea, hizlaria, irakaslea, folklorista, herri literaturaren biltzailea, hizkuntzalaria, euskalaria, euskaltzalea.

Torrealdairen hitzetan, «sormen lana eta bilketa lana biak egin zituen, biak oparo. Azkueren obrak sekulako eragina izan du hurrengo belaunaldietan; galtzear zegoen herri ondarea betiko salbatu zuen, eta bazuen azken orduko bilketa zelako kontzientzia».

Kazetari gisa idatzi zituen 713 artikulua, eta 85 liburu burutu zituen. Liburu horietako lau lirateke «enblematikoak»: *Diccionario vasco-español-francés* (Hiztegia), *Cancionero popular vasco* (Kantutegia), *Morfología vasca* eta *Euskalerraren yakintza*.

Joan Mari Torrealdaik azaldu zuenaren arabera, «Azkueren obra ia guztiak bera bizi zelarik argitara emanak dira, horietatik 28 XIX. mendean eta gainerako ia guztiak 1936. urtearen aurretik. Geroztik ere, Azkueren obraren berrargitalpenak gauzatu dira, bai literaturan eta bai linguistika kontutan».

Behin lana amaituta bilaketak katalogoaren arabera eta gaitegiaren arabera egin ahal izango dira. Lan osoko bilaketa eta egituraren bidezkoa ere aurreikusi dituzte.

592 sarrera berri «Euskararen Historia Soziala. Argibide bibliografikoak» atalean

Euskaltzaindiak «Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak» atalaren datutegia eguneratu eta sarean jarri zuen abenduan. Eguneratze horren ondorioz, 592 sarrera berri erantsi ziren. Orotara, orain 5.033 sarrera bibliografiko ditu.

«Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak» atariaren xede nagusia honako hau da: Euskararen Historia Sozialari buruzko tresna bibliografikoak guztion eskura jartzea. Ataleko edukiak euskararen historia soziolinguistikoaz ari dira. Hizkuntzaren iraganaren eta euskal gizartean izan duen bilakaeraren berri ematen da, eta inguruko hizkuntzekiko harremanak ere kontuan hartzen dira.

Euskararen Historia Soziala. Argibide Bibliografikoak lanaren lehen bertsioa paperean argitaratu zen: liburu inprimatua 2011n eman zuen argitara Euskaltzaindiak, eta geroztik, 2012an, Akademiak atal berria zabaldu zuen webgunean.

Aurreko lanak berrikustean, eta erantsi diren 592 sarrera berrietan, lan hauek egin ziren:

1. Hautatutako erreferentziak banan-banan egiaztatu, hainbat liburutegitan (Azkue, Habe, Koldo Mitxelena...).
2. Eremuka bateratu: egilea, izenburua, argitaletxea, etab. Izen-deituretarako Euskaltzaindiko Azkue Katalogoa erabili da eta horra jo behar-ko du irakurleak, zernahi argibide behar izanez gero.
3. Lanak hautatutako liburutegietan aurkitu eta informazio hori kode bidez jaso (ikus liburutegien zerrenda «laburdurak» pdf-an).
4. Sarrera bakoitzari gako-hitzak erantsi, horien arabera ere bilaketak egin ahal izateko.
5. Interneten irakur daitezkeen lanen estekak aurkitu.

Bestalde, aurreko sarreretan berregokitze lan batzuk egin ziren. Besteak beste, liburu edo artikuluen edizio digitalak banan-banan berriz egiaztatu eta behar ziren aldaketak egin ziren. Hala, 250 esteka berri gehitu eta beste 130 ordezkatu ziren.

Omenaldiak

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



2014an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Ziburuko urrezko medaila Janbattitt Dirassarri

Martxoaren 11n, Janbattitt Dirassar ohorezko euskaltzainari urrezko medaila eskaini zion Ziburuko Herriko Etxeak, urte askoan zehar, herriko elkarte eta talde askorekin elkarlanean, kultura eta euskararen alde egin duen lanagatik.

Ekitaldian, Guy Poulou Ziburuko auzapezak eskertu zuen Dirassarrek egin eta egiten duen guztia. Besteak beste, honako hauek aipatu zituen: Ziburutik Donibanerako zubian den afixa-taulan abisu guztiak euskaraz ezartzen ditu; euskarazko itzulpenak ere egiten ditu herriarentzat. Herriko jai-batzordeko kide ere bada, eta bertsolariez eta fandango lehiaketaz bereziki arduratzen da Bixintxoetan. Batzordearen ereserkiaren hitzak berak idatziak ditu, lagun batekin elkarlanean.

Ziburun kokatua den *Jakintza* elkarteko kide ere bada, eta elkarte horrek agertzen dituen herrien monografietan euskarazko bildumak segurtatzen ditu. Ziburuko *Luma* euskal haurtzaindegiko lehendakari ere bada Janbattitt Dirassar.

Egin zuen esker oneko hitzaldian, ironiaz eta umoreaz mintzatu zen Dirassar. Duela bi urte zendu zitzaion Lore bere emazteari eskaini zion urrezko domina.

Erramun Baxok eta Manex Pagola omendu zituen Sarako XXXI. Idazleen Biltzarrak

Apirilaren 21ean, Erramun Baxok soziolinguista eta ohorezko euskaltzaina eta Manex Pagola idazle, kantari eta euskaltzain urgazlea omendu zituen Sarako Euskal Herriko Idazleen Biltzarraren 31. edizioak. Eurekin batera, Patrice Rouleau marrazkilaria ere omendua izan zen. Euskal Kultur Erakundeko Pantxoa Etxegoinen esanetan, omenduak «hiru xinaurri» dira.

Sariak eman ostean, ohiko aureskua eta *Agur, jaunak* kantaz gain, Manex Pagolak idatzitako *Ez dut bilatzen* abestia kantatu zuten.

2013an omendu zuten Jean Haritschelhar zena ere gogoan izan zuten ekitaldian.

Bernardo Atxaga saritua, *Nevadako egunak* liburuagatik

2014an, Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzain osoak irabazi zuen Espainiako Kritikaren Saria, euskarazko narratibaren alorrean, *Nevadako egunak* liburuagatik. Idazleak 2013ko abenduan kaleratu zuen liburua.

Sari hau Espainiako Literatur Kritikarien Elkarteak ematen du urtero. Aurtengo irabazleen izenak apirilaren 25ean eman zituzten jakitera.

Bestalde, urriaren 8an jakinarazi zutenez, Euskadi Literatura Saria, euskarazko narratiba alorrean, irabazi zuen Bernardo Atxagak, liburu beragatik, hots, *Nevadako egunak* lanagatik. Epaimahaikideen esanetan, «hitzaren magia dario Bernardo Atxagaren prosari liburu honetan».

Ur Apalategik, Pello Otxotekok, Jon Kortazarrek, Arantxa Urretabizkaiak eta Lourdes Otaegik osatutako epaimahaikideen aburuz, «testuinguru arrotzaren estimuluen haritik, narrazioan zehar iragana eta oraina, ozeanoaz alde batekoa eta bestekoa, errealitatea eta fikzioa, eta are ametsen mundua, txirikordatuz joango dira, azken orduetako tentsio uneetara heldu arte».

Baionako Euskal Museoa, Jean Haritschelharren omenez

2014. urtean, Baionako Euskal Museoak Jean Haritschelhar omendu zuen. Euskal Museoaren Adiskideen Elkarteak argitaratzen duen aldizkariaren 182. zenbaki berezia plazaratu zuen, oso-osorik Jean Haritschelhar zenari eskainia. Maiatzaren 3an aurkeztu zuten, Museoan egin zuten ekitaldian. Barkoxeko Etxahun elkarteak ere parte hartu zuen omenaldian, eta kanta batzuk abestu zituen.

Aldizkarian parte hartu zuten egileak hor zeudela, Olivier Ribeton Museoko zuzendari izan zenak eta Michel Duvert aldizkaria argitaratzen duen Euskal Museoaren Adiskideen Elkarteko presidente izandakoak hartu zuten hitza. Barkoxeko Etxahun Elkarteko kantariak hauek izan ziren: Jean-Pierre Luro, Jean-Noël Pinque, Dominique Üthürriborde, Jean-Marie Harrichaballet eta Lucien Larrius.

Maritxu Etchandy Euskal Museoaren Adiskideen Elkarteko presidentek aldizkariaren aitzinsolasean idatzi bezala, Jean Haritschelhar «Euskal Museoaren zuzendari izan zen 26 urtez, 1964an Buletina birsortu zuen Museoaren Adiskideen Elkartea lagun. Argitalpenen buru izan zen 32 urtez, 1996 arte, gero Michel Duvert-en esku uzten zituela. Idatz komitearen kide izaten jarraitu zuen 1964tik hil arte, 49 urtez. Horretarako axola handia zuen, artetan bere hautuzko gai batzuk lantzen zituela, azkena 2012an, “Ados, jaunak, ados” erranaldiaz argitasunak emanaz. Aldizkariaren argia eta gidaria izan zen zenbait hamarkadaz. Euskal Museoaren Adiskideen Elkarteak adiskide baino gehiago zuena galdu du, bere aita».

Hala, bada, Museoaren aldizkariaren zenbaki berezia landu eta argitaratu zuten, Elkarteko kideek eskatuta. «Alde guzietarik beren burua eskaini duten kide horien esku-hartzea berez egin da, eta pozik. Heien ekarpenen irakurtzeak erakutsiko dizue zein gogotik, zein sendimendu sarkorrez gogoratzen dituzten haren oroitzapena, haren engaiamendua, haren lanak, eta zenbatetaraino markatu dituen ezagutu dutenak».

Ander Manterolari omenaldia, Zeanurin

Ekainaren 1ean, Ander Manterola antropologo, ikertzaile eta ohorezko euskaltzaina omendu zuten Zeanurin, bere jaioterrian. Zeanuriko herriak eta parrokiak antolatutako omenaldi horretan, bere herriaren esker ona jaso zuen egindako lan guztiengatik.

Opari batzuk ere jaso zituen: herriko umeek parrokiako Andra Mariaren irudia eta Arratiako irudien liburua eman zizkioten, eta Udalak Vicente Larrea eskultoreak egindako burdinazko eskultura bat.

Ekitaldian hauek mintzatu ziren: Anton Erkoreka Etniker Bizkaia taldeko kidea; Jon Elorriaga Labayruren Euskal Bibliotekako liburuzaina; Adolfo Arejita Labayru ikastegiko zuzendari eta euskaltzain osoa; eta Izaskun Sargarna Zeanuriko alkatea. Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuaren gutuna ere irakurri zen ekitaldian.

Meza batekin eman zitzaion hasiera omenaldiari. Ander Manterolak berak eman zuen, alboan Anastasio Azkarai, Gaspar Martínez eta José María Kortazar parrokoa zituela. Meza amaitu ostean, omenduaren bizitza eta ibilbidea biltzen dituzten bideo bi erakutsi zituzten.

Bilboko Liburu Azokaren «Zazpi Kale» saria Miren Agur Meaberi

Ekainaren 5ean, Miren Agur Meabe idazle eta euskaltzain urgazleak «Zazpi Kale» saria jaso zuen, aurreko urteko Bilboko Liburu Azokan –2013koan– *Kristalezko begi bat* liburua izan baitzen gehien saldu zena. Lekeitioko idazleak, Sabin Anuzita, Bilboko Udalaren Euskera, Gazteria eta Kirola Sailaren zinegotziaren eskutik jaso zuen saria eta berriki hildako aitari eskaini zion.

Meabek 2013an argitaratu zuen *Kristalezko begi bat*, Susa argitaletxearen eskutik.

Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria Jean-Baptiste Orpustanentzat

Azaroaren 12an, Jean-Baptiste Orpustan hizkuntzalari eta ohorezko euskaltzainak jaso zuen 2014ko Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien saria, Donostiako Miramar jauregian egindako ekitaldian. Orpustanek ez zuen ekitaldira joaterik izan, hortaz, Xarles Videgain euskaltzain eta Euskaltzaindiko buruordeak jaso zuen, bere izenean. Bigarren saridun bat ere izan zuen sariak: izan ere, Orpustanek eta Maria Asun Landa idazleak *ex aequo* jaso zuten.

Iñigo Urkullu lehendakaria izan zen ekitaldiaren buru eta berarekin batera Iñaki Dorronsoro eta Txomin Garcia Eusko Ikaskuntzako eta Laboral Kutxako presidentek eman zituzten sariak.

Andolin Eguzkitza gogoan, Mendebalde Kultura Alkartearen XVIII. Jardunaldietan

Urriaren 16an eta 17an, Mendebalde Kultura Alkartearen XVIII. Jardunaldiak egin zituen «Hibridismo dialektala» gaiaren inguruan. Jardunaldien amaieran, Andolin Eguzkitza idazle, hizkuntzalari eta euskaltzain osoa omendu zuten.

Jardunaldiok Euskaltzaindiaren egoitzan egin ziren. Hori dela-eta, Andres Urrutia euskaltzainburuak ongietorria eman zien Mendebalde Alkarteko kideei, eta Kaxildo Alkorta zuzendariaren ondoan izan zen jardunaldion aurkezpena egiteko unean.

Bi egunotako hitzaldi eta gogoetek osatu zuten egitaraua eta amaieran egin zen Eguzkitza gogoratzeko ekitaldia: Iñaki Sarrugartek gorazarre egin zion Andoni Eguzkitzari eta ondoren Kaxildo Alkortak oroigarria eman zien Edurne eta Iñaki Eguzkitza Andolinen neba-arrebei.

Joseph Camino saritua «Parrapean - Komiki Egunak» jardunaldietan

Joseph Camino idazle eta ohorezko euskaltzaina saritu zuten Bilbon, «Parrapean - Komiki Egunak» izeneko jardunaldietan. Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak antolatuta, ekimenak euskarazko komikia izan zuen protagonista eta azaroaren 27tik 29ra egin zen, Begoñako barrutian. Larunbatean, azaroaren 29an, *Pan-pin* aldizkaria sustatu zuen Joseph Caminori «Parrapean» saria eman zioten.

Pan-Pin hilabetekaria *Zeruko Argia* aldizkariak argitaratu zuen, 1960tik 1970era bitartean. Haurrentzako komiki aldizkaria izan zen eta Joseph Camino izan zuen sustatzaile nagusia. «Parrapean Komiki Egunak» ekimenaren antolatzaileek azpimarratu zuten, «garai horretan, euskara hezkuntza sisteman baztertuta zegoen eta komunikabideetan ia ez zen ikusten. Beraz, traba asko gainditu behar izan ziren, komiki hark argia ikus zezan».

«Parrapean-Komiki Egunak» jaialdiaren lehen edizioak hizkuntza gutxituetan argitaratutako komikiak izan zituen ardatz.

Daniel Landartek Eusko Ikaskuntza - Baiona Hiria Ohorezko Saria jaso

Daniel Landart idazle eta euskaltzain urgazleak jaso zuen 2014ko Eusko Ikaskuntza - Baiona Hiria Ohorezko Saria, bertoko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak emanda. Sari-emate ekitaldia abenduaren 18an egin zen, Baionako Herriko Etxean.

Eusko Ikaskuntza-Baiona Hiria Ohorezko Sariaren xedea Ipar Euskal Herrian euskal kulturaren edo zientziaren aldeko jardueragatik edo obren-gatik bereziki nabarmendu diren pertsonak ohoratzea da.

Bestalde, Euskal Kultura saria Lontzi Amado Borthayrek eskuratu zuen, eta Bideo Dokumental saria Enara Goikoetxeak, Miren Juaristik, Iure Telleriak eta Monika Zumetak.

Hilberri txostenak

Euskera. 2014, 59, 1. Bilbo
ISSN 0210-1564



Jose Antonio Retolaza Ibarguengoitiaren hilberria (1929-2014)

BARAIAZARRA, Luis
Ohorezko euskaltzaina

Ez da erraz lerro gutxitan aditzera ematen hain bizitza oparoa. Goiko izenabizenen atzean Euskal Herriaz eta euskaraz maiteminduriko, euskaltzaleok nekez ahaztuko dugun, gizon bat dago. Gogoan dugu haren izaera fina, harremanetarako atsegina, leiala, besteen errespetatzen eta bereari (gureari) tinko eusten zekiena. Gogoan dugu batez ere zein ongi konpontzen zen haur eta gaztetxo euskaldunekin. Haiekin elkarlanean eraiki nahi zuen etorkizuneko gizarte berria, euskalduna, gure letretan jantzia, eskolatua.

Euskaldun eta abertzale izatearen ederra txikien bihotzean txertatu nahiak, beren nortasuna ederresten ikas zezaten haiei hainbat gauza esan nahiak, egonezina sortu zion eta amets politikak eragin. Amets horien artean, hauxe zen bere buruari behin eta berriro egin ohi zion galdera: nola esan nik txikitxo hauei barruan dudan hau? Eta hona erantzuna: haurrentzat egingadako aldizkaritxo baten bitartez. Baina horretarako haurrekin haur egingo zen pertsonaia bat asmatu behar eta horra *Kili-kili!*

Itzuliko naiz *Kili-kili* eta honen osabagana, baina orain joan zitzaigun uneaz oroipen arin bat:

Udaberria bere seinaleak agertzen hasi zeneko, haren bisita ofizialaren ordua baino pixka bat lehenago, martxoaren 12an, itxi zituen begiak gure Jose Antoniok. Begi nekatuak, hainbat buruhauste berari emanikoak. Baina artean, ume euskaldunen irribarreak liluraturiko begiak; Euskal Herria batetik bestera ikusi eta arakaturikoak; bere Abandoko, Muxikako eta Arrazolako, Anbotoko... irudiak izango zituen bere bihotzeko gomutetan gozo-

gozo gorderik. Espiritu argi, fin, ameslari eta ekintzaile baten ispilu izaniko begiak itxi ziren betiko mundu honetarako, eta haiekin batera, apurka-apurka agortuz eta amatatuz joaniko arnasa eta bizia. Berak eta gutariko askok eta askok sinesten dugunez, *betiko argiak argi egin biezaio*.

Hemen gauza asko eta ederrak utzi dizkigu. Kili-kili pertsonaiagan hustu zuen berak zuenik hoberena: Euskal Herri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Hor geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Hor geratzen da batez ere, agerian ikusten ez dena: orduko haurrengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak direnengan, oparo erein zuen herrigintzako eta euskalgintzako hazia. Multzo harri-garria da, asko da, utzi diguna, baina ziur asko gehiago izango da asmoen, ametsen, desiren bizkar-zorroan eginkizun geratu zaiona. Hori izango da, beharbada, ekintzaile handi eta idealista fin guztien zoria.

Biografiaren harian

Jose Antonioren bizitzaren berri alde askotan irakurri dut. Berberak idatziriko lan autobiografiko nahiko zehatz eta osoak, *KILI-KILI ETA BIOD* izenekoak, 2014ko amaiera aldera ikusi zuen argia. *Kili-kiliren* ale batzuetan haren hainbat argibide biografiko aurki daitezke, baina gehienbat euskararekin zerikusia dutenak; beste iturri garrantzitsu bat *Bidegileak* saileko liburuxka da, Asier Astigarragak idatzirikoa. Azkenik, Jose Antoniok berak *Kili-kiliren* 163-164. alean idatzi zituen bere bizitzako hainbat gauzatxo. Labayruk 1993ko abuztuaren 16an egin zion omenaldirako idatziriko hitzalditik hartuta daude. Gorago aipatu dugun lan autobiografiko ederraren antzera, Labayruren omenaldiko hitzaldi honek ere «Kili-kili eta biok» du izenburua. Ikus dezagun lehenik, *Bidegileak* liburuxka. Honela hasten da:

Jose Antonio Retolaza Ibarquengoitia, Kili-kiliren eta euskararen aldeko ekinbide askoren aita, 1929ko ekainaren 6an jaio zen, Bilbon. Manuel zuen aita; ama, Teresa. Hiru anaia ziren etxean: Juan, Luis eta Jose Antonio, gazteena.

Labayru Ikastegiak egin zion omenaldian egin zuen hitzalditxoan honela agertzen du bere burua:

Bilbon jaio nintzan. Nire ikastola: etxea. Nire andereñoa: ama.

Ni jaio nintzanean, 1929an, ez zan oraindino ikastolarik Euskal Herrian. Handik urte batzuetara Errotatxueta ikastola sortu zanean, amak eskutik oratu eta bertara eroan ninduan. Bidean, nahiz eta amak txokolatina erosi, negar egiten neban. Ikastolan ere negar eta negar... Azkenean amak, beste bide bat harturik, Santiago Apóstol ikastetxera eroan ninduan, nire anaia bien ondora. Han «Retolazita»k (halan deitzen eus-tien nire anaien lagunak) erderaz ikasi eban.

Jose Antonioren beste zaletasun handietako bat euskal dantzena izan da. Santiago Apóstol ikastetxean hasi zen ikasten eta lantzen. *Bidegileak* liburukak hau dakar:

*Han ikasle zela fraide batek lehenengo eta Víctor Olaetak gero, gazte-
txoekin dantzari-talde bat prestatu zuten. Olaetak, bere akademia eratu
aurretxoan, bertoko dantzak eta gerra zibileko atzerrialdian Ipar Euskal
Herriatik ikasita zekartzan Zuberoako maskaradakoak irakatsi zizkion.
Irakasle handiarekin hasi zen, bada, lehenengo. Gero, dantzari-taldeko
beste lagun batzuekin elkartu eta San Anton elizara joan zen beste talde
bat eratzeko.*

Kili-kili eta biok

Pertsona eta berak sorturiko pertsonaia bat eginik geratu ziren betiko; horregatik, *Kili-kili eta biok* du izenburua autorea hil ondoren argitaratu den lan autobiografiko bikainak. Izan ere, Jose Antonio Retolaza ez litza-teke berbera bere bihotzeko mutiko jator hori gabe. Irudiz eta moldez guztiz ezaguna. Betiko Kili-kili dela esan genezake: janzkera ezaguna du, euskaldun haur eta gaztetxo laguna da; hangoei hango erara eta hemengoei hemengo erara hitz egiten ongi jakin arren, hemen bere-berean egiten duena, herriko doinu eta guzti, baina ez hitzak moztuz eta ahopean esanez, osorik eta garbi ahoskatuz baizik. Lerro laburretan idatziko du, bertsoak idazten balebil legez. Egia esan, Kili-kilik beti idatzi izan du era horretara. Beraren laguntxoak errazago uler diezaioten izango da? Bi atal ditu liburukak: 1.an, *Kili-kili* agertzen da; 2.ean *Kili-kiliren* osaba: Jose Antonio Retolaza.

Gure pertsonaia

Jose Antoniok, Madrilen psikopedagogia ikasten ziharduenean, une askotan, era berean han eta hemen sumatzen zuen bere burua; gorputzez han zen, baina haren bihotza Arrazolaz eta Euskal Herriaz ametsetan. Amets horien artean *Kili-kili* zebilen, haren gorputzea, erditzea euskaldun haur eta gaztetxoak eskolatzeko.

Kili-kili alai-alai agertzen da, ameslari, haur euskaldunen maisu izateko. Baina ez betiko maisu erdaltzale eta bekozkodunen antzeko, haurren adiskide eta jolas lagun izateko baizik. Bere burua era honetara agertzen du:

Kili-kili naz, Bilbon, San Anton-go zubi ondoan, jaio nintzan 1966. urtean –Franco-ren garaian– eta bertako eleizan «Kili-kili» izenaz bateatu ninduan nire Osaba abadeak.

Kili-kili egiteko ekarri ninduen mundura, ume eta gaztetxo euskaldunei buru-bihotzetan kili-kili egiteko, hau da, euskaldunak dirala esanez EUSKAL KONTZIENZIA biztuteko.

Bere izeneko aldizkaria sortu zuen horretarako. Agintariek baina ito egin zuten, debekatuz. Aldizkaria ezin atera eta, LAN TA LAN koadernoak sortu zituen teila gabeko ikastolan. SARIKETA izena jarri zion, SARIKETA NAGUSIA. Ahoz zekitenetik idatzizkora bidea egiten irakastea zen jomuga, hau da, euskaran eskolatzea, alfabetatzea:

Alfabetatze bidean gainditu beharreko hiru mailak azaldu ondoren, hau dakar *Kili-kilik*:

Horrez gainera, Ikastola edo Sariketa horretan euskal kultura –Geografia, Historia, Folklorea...– zabaltzen neban. Horrez gainera, tokian tokiko euskera erreza erabilten neban, maisurik bage, zigorrik bage, azterketarik bage... Horrez gainera, joko eran eta sari bidez, euskerea POZGARRI bihurtu.

Ikastola hori edo Sariketa Nagusia Euskal Herri OSOan zabaldu zan.

Isilpekoaldi ilunetan, euskal usaineko guztia debekupean jarri nahi zenean, beldurra nagusi zenean, hesi horretan zirrikituak bilatu eta hainbat gauza egiten ahalegintzen zela diosku:

«Ezin da ezer egin» esaten zan garaian, ba, guk –isilik, zaratarik bage, ilunpean– egin egiten genduan zeozer.

Egoera politikoa aldatu zanean, ilunpetik argitara urten genduan.

Euskal Herriko lau bazterretako ume eta gaztetxo euskaldunok, mila-ka, kalera urten genduan –Bilbon, Donostian, Iruñean– KILI-KILI EGUNAN «Kili-kili bat, Kili-kili bi, milaka ume dantzatan, alfabetatzen, Teila bako ikastolan...» abestuz.

Politikariak inbidiatan zeuden, baina berak dio:

Politika baina, ez zan Kili-kilirena. Kili-kilirena, EUSKERA eta HERRIA zan. Herriak bizirik iraun egiala.

Herriak bizirik irauteko EUSKERA –arnasa– eta BURUJABETZA –Askatasun Osoa– behar ditu. Bata eta bestea eskubideak dira, berezko eskubideak. Politika beste arazo bat da, «Herria gobernatzeko era».

Egoera berri hartan euskara eskoletan sartu zela dio Kili-kilik. Bera ez dator bat han erabili ohi zen euskara eta metodoekin eta protesta egiten du. Baina goazen aurrera, euskaltzaleok batzen gaituena sendotzea komeni da-eta. 1986an Aramaion egin zen Kili-kili Egunean, Olinpiadetako zuzia pizturik duela agertzen da Kili-kili eta pankartak hau dio: *euskera etxean ikasi, eskolan landu, kalean erabili*. Eta goialdean hau dakar: *KALEAN, euskeraz kalean egiteko ohiturari eutsi behar jako. Horra hor, euskeraren salbamena*.

Kili-kili zorrotza da bidegabekeriaren aurrean ahotsa jasotzeko. Kritikak ez eze, salaketak egiten ere ez da beldur. Hizkuntzaren eta herriaren aurkako erasoak batez ere ez ditu onartzen, ez barkatzen. Orduan kritika zorrotzak izaten ditu luma-puntan. Hizkuntza kontuan iritzia emateko gai da; esaterako, euskara batuaren kontuan Kili-kilik berea esaten du, ez da isiltzen:

Sekulako eztabaida sortu zan. Eztabaida horretan asko ekienak gitxi ziran; gitxi ekienak, asko; ezer ez ekienak, hainbat. Guztiak hartu eben parte.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei eginiko kritikarik be ez da falta orrialde hauetan:

Geroago –egoera politikoa aldatu zanean–, Admisnistrazio barrira jo neban –itxaropentsu– ondo hartu eta bere magalpean hartuko ninduala-

koan. Baina guzurrak urten eustan... Ondo hartu bai, baina ondo ulertu ez, bere magalpean hartzeko.

Kili-kiliren osaba

Berez aita izan behar zuenari osaba deritzo; izan ere, bera apaiza izanik, Erromako Elizaren tradizioan apaizak ez dira ezkontzen.

Liburuaren bigarren parte honetan, Jose Antonioren biografiak hartzen ditu orrialderik gehienak. Ohar batekin hasten da: *Nire biografia ez jako inori ardura, baina «Kili-kili» sortzera eroan ninduen gorabeherak baliteke bati baino gehiagori ardura izatea. Horreexek dakartsudaz.*

Bere burua aurkezten digu, lehen *Kili-kilik* egin duenez: *Kili-kiliren osabea naz. Jose Antonio RETOLAZA nire izena. Urte asko ditut. Bilbon jaioa. Euskalduna naz: etxean ikasia, herrian hobetua, neuk neure burua alfabetatua. (...) Erdera estimatzen badot, euskera maite dot. Nirea, euskera da.*

«EUSKERA eta HERRIA» da Kili-kili eta bion goiburua. «Jaungoikoa», nire-nirea.

Umetako urteak eta gerratearen lekuko

Gerra piztu zenean, 1936. urtean, Muxikara, amaren herrira eramán zuten. Gerrari iheska Bilbotik hara aldatu eta bertan bizi izan zituen gerrako unerik latzenetakoak; Gernikako bonbardaketa kontatzen digu, bizi-bizi. Gertaera triste eta dramatikoak. Gerrako une hauek, seminarioan sartu aurreko hainbat jarduera eta seminarioko hainbat kontaera dira gogotsuen irakurri ditudanak. Batzuk antologikoak direla esango nuke. Hona Gernikako bonbardaketaren eta gerraren pasarte batzuk:

Gerratik ihesi Muxikara eroan ninduela esan dot. Alperriko ihesa. Muxikan ikusi neban eta bizi nik gerrea.

Gerrea, nire inguruan, holan hasi zan: Astelehena zan. Arratsaldeko hirurak-laurak aldera Oiz aldetik zeru goian –broum, broum, broum–

aeroplanoak. Hiruko hiru talde lehenengo, gehiago, gero. Kanpai hotsa hurrengo, dunbotsa, gero... Gernikan bonbaketa zan. Gu –mutiko koskorak– olgetari itzi eta zerura begira jarri gintzazan. Geure buruen gainean hara eta hona, gora eta behera –elaiak bailitzazan– «caza» eritxoan aeroplanoak.

Handik urrun ez –autobidean– oinez Gernikatik etxera, buruan otzarea ekarrela, etorran andrea luze-luze itzi eben hareek, balaz josita, lurrean odola eriola... hilda.

Honetan, danbada handi bat, 300 metrora edo, Eleizalden. Gero beste bat... Gero, gehiago. Eleizan, Pelizianonean eta, jausitako bonbak ziran. Gero eta hurrago... Noiz gure gain jausiko ete ziran... –dardaran– izuak hartuta gengoan.

Iluntzean, autobidean hildako andraren gorputua –izara zurian batuta– kanposantura eroiela ikustean, ikara egin eustan bihotzak, ikara handia.

Gauetz gorri egoan zeru goia. Sutan Gernika. Ke multzo baltzak lurretik zerura.

Gizonezko batzuk –gure aita eta beste batzuk– harako bidean jarri ziran. Gu, gure ama eta hiru anaiok, ohera... lo egitera. Nik, ezin. Tristea, oso tristea.

«Gerrea zer da?» itaundu neutsan behin amari. Laster jakingo naban... zoritxarrez!

Ez dot hareen gomuta onik. Don Severiano, egun batzuk aurretik niri Gure Jauna lehenengoz emon eustana, gaixo bati eleizakoak eroaten joiala –bidean– hil egin eben. Hareetariko bat gero, buruan abade kapelea ekarrela agertu jakun abade-plantak eginaz... Batera eta bestera –ziztuan– balak ebiltzan. Batean, dum-dum... bestean, pak-um...

Bala batek Ibarretxebarriko Juanito –nire adineko eta laguna– etxeko leihora urten eban baten jo eta bertan garbitu eban.

Egunez: tzuuum hotsa obusak. Egunez eta gauetz: tarra-ta-ta-ta... metrailadoreak.

Gu, babeslekuan –enborrez eta mokilez estalitako leize zuloan– egun osoan, seguru gengoazalakoan. Seguru, barriz, inon ez. Buluku baserria, obusen eraginez, sutan agertu jakun goiz baten.

Gogorra, oso gogorra, izan zan Bizkargiko gudaketea. Nazionalak eguraldi onaz eskuratzen ebena, eguraldi txarraz galtzen eben; egun argiz eskuratzen ebena, gau ilunez galdu.

Bizkargiko gudaketak Muxikako Eleizaldea –etxe, eleizpe, zelai– eritegi bihurtu eban. Han, hor... «ene ama!» entzuten zan. Ama... urrun baina!

Bizkargiko gudaketak Muxikako kanposantua bete egin eban. Gainerako gorpuak –ate ondoan pilatuta – ez erosta, ez protesta... mutu. Kanposantuan esangura handiko isiltasuna entzuten zan.

Kanposantura bidean gorpu bi buruak triskatuta mando gainean eroiezala ikusi nebazan behin. Anaiak ziran, bikiak. Naparrak.

Hilak kanposantura iragoten ikustea tristea bada, biziak kanposantura hiltera eroaten –oinex joaten– ikustea tristeagoa da; tristea, gogorra, la-tza... Hori ere ikusi egin neban! Ikusi eta..., tiro hotsa entzun.

Joan ziran Euskal Herria erdibituta, txikituta, lotuta itzirik Espainia «Una, Grande y Libre» egitera etorri ziranak.

Joan ziran etorri ziran moduan: tiroka, bonbaka, indarka... Baina Unamunok esan ebana: «Venceréis pero no convenceréis».

Gerra ostea eta ikasketak

Gure Jose Antonio eta etxeokak Muxikan geldituko ziren harik eta Bilbo «liberatu» arte. Familiako besteak joan arren, ama eta biak han gelditu ziren.

Muxikatik gerrako frontea kendu zenean, eskolak zabaldu zirela diosku, eta bera hara joaten hasi zela. Han, horman agertzen zen lehenengo irudia Francorena, Espainiako bandera, «Cara al sol», «Viva España», «Por Dios, por la Patria y el Rey» kantak ikasi behar eta abar eta abar. Hau dio ondo-rengo lerroetan:

Bilbon, Muxikan, Gernikan... asko ikasi neban. Baina eskolan baino etxean, kalean, herrian gehiago.

Muxika euskaldun-euskalduna. Asko aberastu zuen han bere euskara. Bigarren ikastola bihurtu zen Muxika; lehenengoa bere etxea izan zuen

amaren bidez. Gerra amaitzean, Bilbora berriro. Honela kontatzen digu berak:

Gerrea amaitu eta gero Bilbora joateko eguna heldu jatan. Pozik... eta triste. Lagunak, txakurra... etxe, solo eta zelaiak; Bizkargi mendia eta inguruak bertan izten nebazan... Betiko?

Bilbokoa nintzan, baina Muxikar bihurtu nintzan. Negarrez... ni-noian.

Fa, fa, fa... trena -ikatzaz eragindako trena- aurrera joian. Tunelean, ihuntasuna eta kea... eztula eta arnasestua. Zornotzan Donostiatik etorran trenari itxaron beharra... Bilbora orduko, gaua. Gaua zan baina kalean... ikusi egiten zan.

Gerra osteko Bilbo agertzen digu ondorengo lerroetan. Irabazleen oilar-keria eta galtzaileen negar eta beldurra:

Biharamunean begiak zabaldu eta... Bilbon! Bilbon... gerra ostean. Ene Jaungoikoa!

Kalean «Franco, Franco, Franco» horma guztietan. Haren irudia bazter guztietan. Desfileak eta, txitean-pitean. Espainiako bandera, non ez? Haren aurretik igarotean... besoa gora. «Cara al sol», edonon: zine amaieran, eskola hasiera eta amaieretan. «Marcha Nacional»...

Etxe asko... hutsik, etxeokak ihes eginda egozalako. Etxe-ganbara batzuk, ostera, beterik, ezkutaleku bihurtu ziralako. Kartzelak beterik. Ene Herria!

Euskera, inon ere ez. Kalean, eskolan, eleizan... erderaz. Bilbon debekatuta egoan baita «agur» esatea be. Agur esan eban bati atari baten sartu eta emon-emonak egin eutsoezan.

Hori zan Bilbo gerra ostean, ni hara joan nintzanean.

Aita, ama eta hirurok pasean joan ginan baten tiro-hots sail luzea entzun genduan Begoña aldean, Larrinagan. Nire gurasoak alkarri adi-adi beginaturik, berbarik bage, zeozer esan eutsoen alkarri. Zer? Niri tiro-hots harek Muxikako fusilamendu hotsa ekarri eustan gogora. Larrinaga, aldi haretan, Bilboko kartzelea zan. Hori zan Bilbo, gerra ostean, ni hara joan nintzanean.

Santiago Apostol ikastetxera bidali zuten eskolan hemen eta han eginiko ikasketak jarraitzera. Han ere, jakina, goian aipatu den giroa zegoen. *Aita hil eta gero «Bachiller»etik «Peritaje Mercantil»era aldatu ninduen, dio. Ikasketetan aurrera egin ahala, bi idealismo handi sortzen zaizkio: JAINKOA eta HERRIA. Horra hor nire idealismo biak, sasoi haretan sortuak eta gaurdaino mantenduak. (...) Euskaltasunak eraginda ikasi, egin eta irakatsi nebazan euskal dantzak.*

Seminariora begira

Don Klaudio Gallastegirekin topo egingo du: *Horra hor Don Klaudio handia –danean handia– nire lagun HANDIA. San Antongo Ekintza Katolikoan, katekesian, jarduten zuenekoak kontatzen ditu. Igande arratsaldetan La Peñako ume behartsuekin, haiek pozteko, eratzen zituen futbol partidak. Nazaretoko Jesusegaz topo egin neban dio gerotxoago.*

Banaz, jauna, abade izateko gauza? –itaundu neutsan D. Klaudiori– Eta harek besarkada handi bat emon eustan erantzunex. Seminarioan sartzen da. Barruko borrokak, isileko negarrak, bakardadea. Honela kontatzen du berak:

Handik hilabetera Gasteizko Seminarioan nengoan sotana baten barruan. Baina hara joan orduko, negar egin neban behin baino gehiagotan neure bakardadean.

Amari agur samur bat eginik, lokarri bage, libre joan nintzan. Baina negar egin neban.

Gabonetan lehenengo oporrak iritsi zitzaizkion. Etxera joateko trajez jantzirik jantokira, gosaltzera joan zenean, hau esan zion Prefektuak: «*Cuando regreses te quiero ver con el traje teñido y el pelo cortado como es debido*».

Opor haietan, behin San Antonen, Bittor sakristaua etorri omen zitzaion esanez:

«Hay un cura forastero. ¿Quieres ayudarle a Misa?»

Ai, ene! –dio Jose Antoniok– Ez nekian oraindino Mezea erasoten...

«¡Qué vergüenza! ¡Vaya seminarista!» esanez alde egin zuen.

Ez neban abadegai itxurarik... «Hori ez da abade egingo» egin eben postura Gran Víako nire lagun neska batzuk.

Gabonak egindakoan traje baltzaz eta ulea moztuta, Mezea erasoten ikasita –abadegai bihurtuta– nentorran barrero Seminariora. Hara heltzean, arkitekto eta abade izandako D. Pedro Asuagaz gogoratu nintzan. Seminarioko eleizea egin ebanean, abadegaia zala, sakristia egiteaz ahaztu zan... «iVaya seminarista!». Baina abade egin zan.

Eta nik diot: ez bakarrik abade egin; orain dela gutxi, Elizak beatifikatu ere egin du.

Seminarioko bizitza kontatzen du, giroa, ikasketak. Euskararen kezka jarraitu zuen; han inon baino kezkatuago, beharbada, latina eta grekoa bai, baina euskararik deskuiduan ere ez zelako entzuten, euskaldunik ba ote zen zalantza sortzeraino. Hona berak dioskuna:

Euskeraz ba ete ekian, gero, han inork? Jakin bai, baekien. Hara: etxe-koak bisita egitera etorten ziranean euskeraz egiten eben ia gehienak.

Eta berari jazorikoa kontatzen digu eta halako bisita batean izan zuen lotsaria euskara trakestua zuelako:

Behin Floren Barandikako etorri zan Muxikatik bere seme Iñaki ikus-tera; bide batez neu. Ha lotsaria! Hareek fara-fara... berbetan; ni, ostera, tikili-takala euskeraz egin ezinik. Ha, egundoko lotsaria! Euskalduna bai banintzan, baina buruko zein baztarretan neukan euskerea?

Euskaldun oso bihurtu nahi eta ikasteari ekin zion bere kabuz eta erdi isilpean:

Euskal liburu bila hasi eta ozta-ozta hiru eskuratu nebazan: Zamarriparen Gramatika, Lopez Mendizabalen hiztegi txikia eta Altunaren Ipui-nak. Gero, ikas aretoan, gure zaindariak, gure prefektuak, harantz egiten ebanean, nik latin liburupeketik Zamarriparena ataraten neban, kukuka, pornografi liburua bailitzan...

Bestalde, euskal dantzak ez zituen alde batera utzi seminarioan. Seminarioan eta beste toki batzuetan euskal dantzak irakasten jardun zuen. Hainbat pasadizo eta kontu agertzen ditu euskal dantzekin zerikusia dutenak.

Apaiz

Handik laster abade egin nintzan. Nire amesa bete egin zan, behin betiko bete ere. Betiko abade. Nazareteko Jesusen oinordeko betiko. Arrazolara bidali zuten

ustekabeen; munduko bazterra begitandu zitzaion handik zehar eginiko ibilaldi batean.

Munduko bazterrera joan aurretik mundu zabalera joan nintzan –dio berak. D. Klaudiorekin eginiko ibilaldi alaiak, pasadizoz betekoak kontatzen ditu. Arrazolan eta Euskal Herrian gaztetasunaren indarrez jo eta ke ekin zion bere zereginari: guztien lagun egin zen, zaharren, gazteen eta batez ere gaztetxo eta haurren lagun. Arrazola bihotzean sartu zitzaion. Anbotopean euskara zen nagusi, euskaraz egiten zuten guztiek, euskaraz abereak, txoriak, haizeak, Arrazolari euskara zerion. Muxika etxeko euskara sendotzeko bigarren ikastola izan bazen, Arrazola unibertsitatea izan zela esango digu.

Arrazolan izan zan, Euskal Herrian –Munduan– Euskeraz Mezea lehenengoz. Ekialdeko errituan izan zen hau; Erromako errituan ezin zitekeen oraindik. (...) *Kristau Dotrinaz batera euskeraz alfabetatzen eta euskal kontzientzia sortzen ahalegindu nintzan.*

Egoera irregularrean

Eliz Hierarkia Erregimen ankerra babesteko eta euskaltasuna zapaltzeko prest ikusi zuen. Eta dena utzirik, bere etxera joan zen lehenengo eta gero Madrilera, psikopedagogia ikastera.

San Antongo euskal mezaren hasiera: *Meza –Erromako errituan– herriko hizkuntzan lehenengoz. Kili-kiliren jaiotza kontatzen digu ondoren: Aldizkaria sortu neban. Aldizkaria eta Pertsonaia.* San Anton eta «Euskerazaleak» erakundea *Kili-kiliren* babesak izan ziren. Bizkaiko abadeen itxialdia, «Gogor» mugimendua, isilpeko diskoa etab. agertzen dira. Hauek guztiak eta askoz ere gehiago haren biografiari itsatsiak geratuko ziren betiko.

Kili-kili eta biok S. Antonetik kaleratu ginduzan dio geroxeago. *Kili-Irratiaren* jarduna, *Kili-kili eguna*. Ilunpetatik argitara irten zenekoa. Agintearen aldetiko babesik eza salatzen du: *Kili-kili bakar-bakarrik. Kili-kili egoera larrian.* Dena dela, ia bertan behera utzia eta batzuen aldetik gogor jazarria zen unean, Euskaltzaindiak ohore egiten dio eta haren osaba OHOREZKO

EUSKALTZAIN izendatzen du. 2000. urtean izan zen hori eta Jean Haritschelhar orduko euskaltzainburuaren eskutik jaso zituen ikurra eta agiria.

Kili-kili erakundeak Bizkaiko Ikastolen Elkartearekin hitzarmena egiten du eta aldizkaria argitaratzea BIEren esku geratzen da. Bizi laburra izan zuen. Aldi horretan Andres Osa «Sakona» izan zuen zuzendari. Hamahiru ale argitaratu ziren guztira: 234. aleaz hasi eta 247.az amaitu. 2001eko maiatzean ekin zion bide berriari eta 2002ko abenduan amaitu. Etsaiek gogor egin zuten jabe berriei beldurra sartu nahian. *Heldu jaken bildurra Eusko Erakundekoei. Bildurrak agortu ebazan diru-laguntzak* dio berak. Azken alean tristurazko ohar hau dator: «Dagoeneko bi urte igaro dira *Kili-kiliren* ardura hartu genuenetik, eta esku artean duzuen ale honekin, bihozminez eta tristuraz, amaitutzat ematen dugu aldizkari honen kudeaketan izan dugun erantzukizuna». Aldizkaria mututu zen.

KILI-KILI ETA BOK liburuan albiste ugari dator, Jose Antonioren biografiari dagozkionak eta honezkero Euskal Herriaren historiaren zati bihurtu direnak. Estilo bere-berean idatziak, baina era askotako testuak daude: gozoak, gaziak, ederrak. Bigarren atalaren amaieran hau dakar: *Idazki honetan ez dodaz egia guztiak esan, baina esan dodazan guztiak egiak dira. Agur.*

Joan zitzaigun Jose Antonio, *Kili-kili* isildu eta urte gutxira, baina hemen geratu da haren lan oparoa; hemen geratu dira emaztea: Mila Arrieta eta seme-alabak: Uxuri, Igotz, Asier, Ismene eta Beñat; adiskide eta laguntzailerak: Pili Zuazo, Iñaki Egurrola; Lander Gallastegi *Kili-kiliko* marrazkilaria eta Jose Antonioren adiskide mina ez dugu geure artean; Jose Antonio hil eta laster joan zitzaigun, baina hemen dugu haren emaztea: Paule Sodupe; hemen geratu da Jose Antonio bera gure oroimenean betiko.



Xabier Aranburu Sagarzazuren hilberria (1931-2014)

IRIONDO, Joxe Mari
Ohorezko euskaltzaina

2014ko uztailaren 10. eguna zen. Felix Maraña kazetari eta lagunak hots egin zidan lehenengo; gero, Euskaltzainditik abisua, Xabier Aranburu Sagarzazu kazetari eta euskaltzain urgazlea hil zela, 82 urterekin. Donostiako Groseko San Inazio parrokian egin zen hileta elizkizuna, uztailaren 11n.

Aspaldiko ezagun eta adiskidea nuen Xabier, ofizio berdintsuan ari baidin, bera Donostiako *La Voz de España* egunkarian eta ni Loiolako Herri Irratian. Harremanak sarri izan genituen, 61eko udazkenetik aurrera. –Euskaltzain urgazle ere egun berean egin gintuzten, 1975eko ekainaren 27an–.

Euskal kulturaren alorreko edozein albiste zabaldu behar zenean, hala nola iraileko Euskal Jaiak Donostian, Urolako Jardunaldiak Azepeitian, Iztueta omenaldia Zaldibian, Euskaltzaindiak bi-hiru urtez behin antolatu ohi zuen Bertsolari Txapelketa Nagusian eta abarretan, albisteak eman/eskatu trukean ibili ginen behin baino gehiagotan, batak besteari mesedeak eginez, lanak errazteko.

Diktadura garai hartan ez zen erraza, baina Euskal Herriko gizartean gertatzen zen alderdi eta ikuspegi asko ukitu zuen bere eguneroko zereginetan. Euskal gizarteari eta kulturari lotutako kazetaritza lantzen saiatu zen bereziki, Bidasoa inguruaren, Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren historia, kultura, gizartea eta euskara bera gai zituela gehienetan.

Halaxe behartzen baitzuen lana egiten zuen periodikoak, gaztelaniaz idatzi zuen gehienetan, baina egunero berritzen den herri zahar hau buruan eta bihotzean zeramala beti.

Euskera. 2014, 59, 1. 411-423. Bilbo
ISSN 0210-1564

Belaunaldi gazteagoetara holakoak transmititzen asmatu ez badugu ere, garai bateko jendeak nekez ahaztuko dugu Xabier Aranburu langile porrokatuak utzi zuen arrastoa gure inguruneko kazetaritzan, 1961ean hasita.

Urteek ez dute barkatzen ordea, eta badakigu sortzeak hiltzea duela ondorio, askotan gogoratu izan diguten bezala. Hala ere, penatxoa eman zigun haren heriotzak, 2014ko uda lainotsuko egunetan.

Sinesmen handiko gizona zen, zuzena eta jatorra, eta goietan gertatuko ahal da, goirik bada behintzat. Holaxe opa diot, benetan.

Ikasketak eta lehenengo lanak

Oraingo aukerarik ez, eta garai hartan zerbait ikasteko egokiera izan zuen beste edonor bezalaxe, bere sorterritik hurbilena zeukan apaizgaitegi batean ikastera bidali zuten, mutikotan. Gasteizko Seminario zahar eta lege zorrotzekora, hain zuzen.

Lagun on asko egin omen zuen han, eta bertantxe ezagutu zituen, adibidez, irakasle eta zuzendaritza lanetan ziharduten on Manuel Lekuona eta Jose Migel Barandiaran handiak, eta behin betiko lagun egin haiek ere.

Humanitateak eta Filosofia ikasketak burutu eta berehala utzi zuen Seminarioa, eta Madrileko Kazetaritza Eskolan ikastera joatea erabaki zuen, kazetaritza eta komunikazio mundua erruz gustatzen eta –arteaz ez baitzen horretarako aukerarik Euskal Herrian–. 1957an lortu zuen lehenengo bere kazetari titulua. Baina hori ere nahiko ez nonbait, eta Euskal Herriko Unibertsitatean berritu zuen gero titulu hori, 1989an.

Euskaldun gazte baten kezka buruan, heziketa akademiko eta kulturala landu eta sakondu nahi eta beste ikastaro bat egin zuen Donostiako Zuzenbide eskolan; eta beste bat gehiago Pariseko Unibertsitate Katolikoan, garaiko gaiez, 1972an.

Kazetaritza ofizio eta lanbide

Ez zen batere erosoia izango garai bateko haren lantokiko giroa eta egin-kizuna, Euskal Herriko gizarteari zegozkion gaiak baitzituen eskuartean 1961-1974 garai bihurri hartako zereginetan. Hala ere, bokazio betez behin hartu zuen bideari tinko eutsi zion.

Lanean hasteko garaia heldu eta Madrilen egin zituen lehenengo praktikak. Non izango eta *Informaciones* egunkarian hain justu. Aldi berean, ordea, Donostiako *El Diario Vasco* egunkarira ere bidali ohi zituen idazlanak, gerorako bideak ireki nahita.

RNE irratirako saioak ere prestatu zituen garai hartan; besteak beste, irрати-kate horretan eman eta zabaldu zuten Santiago Ramón y Cajal jaunari buruz idatzi zuen bere lehenengo seriea.

Nola esan garai hartako prentsaren eta hedabideen jarrera eta morrontza nolatsukoa zen, salbuespen txiki batzuk izan ezik. Gainera, argi eta garbi zegoen Aranburu jaunak lana egiten zuen Donostiako *La Voz de España – Diario Tradicionalista* egunkaria noren eta zeren eskuetan zegoen, onenean ere. «POR DIOS, POR ESPAÑA Y POR FRANCO» goiburu eta lema zerraman hark lehenengo orrialdearen goiko aldean, bere ibilbidea ongi markatuz. Handik aurrera, ahal zena ahal zen bezala.

Aranburu gazteak jakin zuen, ordea, zezen koskorak ongi toreatu eta zentsurak uzten ziona ahal zuen neurrian argitaratzen, hemendik kendu, handik erantsi, eguneroko zeregin horixe zen-eta bere helburu eta bizibide.

Haren lana ezagutu zuen edonork esango du garaian garaiko kazetaritza lana zuzen eta zintzo bete zuela, beti geroaldi hobe baten esperantza eta ametsez.

Prosa eta poesia esparruetan bietan egin zituen sartu-irtentxoak, lehen esan bezala, erdaraz gehiago idatziz euskaraz baino. *Elkano* eta *Agreda* sariak eman zituen, egunkarian eta aldizkarietan idatzitako bere lan asko goraiapatuz.

Tolosan, Gasteizen eta Irungo poesia norgehiagoketan esku hartu zuen inoiz.

Familiako gizona

Ezagutu izan ditugu herrizaleak, nahitaez jaioterriari lotuta eta bere nongotasunaz harro sentitu izan direnak; baina Xabier zen baino herrizaleagorik nekez izango dela pentsatu izan dugu beti. Huraxe zen hondarribiar hondarribiarra, benetan.

Madriren ikasten ari zen garaian ezagutu zuen Mari Carmen Puente eriazain gaztearekin ezkondu zen, 1961ean, Santiago de Compostelan, hangoa baitzen emaztegaia. Bera, berriz, herri horren eta Galizia osoaren maitale eta mireslerik sutsuenetakoa, lurralde hura ezagutu zuen unetik. Hala ere, lurralde hori ezagutu zuenez geroztik beti buruan zeraman «*Lo vasco en Santiago de Compostela*» liburua egiteke gelditu zitzaion azkenean, bere alargunak esan digunez.

Ezkondu eta Donostiako Mirakruz kalean jarri ziren bizitzen, eta bost seme-alaba izan zituzten: Xabier, Karmele, Monika, Ainhoa eta Iñigo, eta biloba bat gero, Maialen.

Inork ez zuen jarraitu aitaren profesio bidean, baina denak dira jende ikasi eta hezia euskal munduan: Euskal Filologia, Historia eta Geografia, Arte dramatikoa (gaur egun ETBko *Goenkale* saioko antzezleen artean ikus daiteke alabetako bat) eta abar ikasi dituztelarik.

Aitortu didatenez, ez dute gogoan aitak inoiz etxean kazetaritza konturik aipatzen zuenik. Bai ordea Euskal Herriko bazter ederrak, aztarnategiak, hemengo bizimodua, euskal gizartea eta kultura, bertsolariak eta abar sarri aipatzen zizkiela bai txikitan eta gaztaroan ere.

Donostian lanean

1961ean ezagutu nuen Xabier Aranburu jaun kazetaria. *Javier de Aranburu* izenez sinatzen zituen eguneroko idazlanak. Beste asko, ordea, sinadurarik gabe ematen, sail askotako arduradun izan zen-eta eguneroko horretan, geroxeago ikusiko dugunez. Euskara-gaztelania borroka bizi hartan, euskal kulturaren munduan sartuta zebilen edonork maite zuen hondarri-

biarraren ahalegina, 1960an hasi eta 1977an hango zeregin eta karguak utzi zituen arte.

Denetarik egin behar izan zuen. Zuzendariak halaxe eskatuta, nazioarteko saila jorratu eta zaindu behar izan zuen aldi batean. Egunkariak herrietan zabalduta zituen korrespondentsalen kronikatxoak jaso, banan-banan orraztu/zuzendu eta argitara eman, eta kultura orrietan zabaltzeko jasotzen zituzten idazlanak bateratu eta zuzentzeaz arduratu...

Lanean hasi eta berehala Euskal Herriko gizartea eta kulturaz egunero zutabe bat idatziko zukeela esan omen zion behinola egunkariko zuzendari jaunari, eta hark, «Baina nahiko gai izango al duzu gero Donostian egunero zure zutabe hori betetzeko?» erantzun.

Ez zuen asko ezagutzen hemengo iturrien emana eta hondarribiar gaztearen lanerako ahalmena.

Garai horretan bere izen-abizenak erabiliz zertsu argitaratu zuen begira hasi, eta harri eta zur geldituko litzake edonor. Hondarribia, Donostia, Gipuzkoa eta Euskal Herrian orotariko gaiak jorratu eta idatzi baitzituen. Erreportaje luze-zabalak eta elkarrizketak egiten zituen. Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena, Jorge Oteiza edo Jose Maria Busca Isusi bezalaxe elkarrizketatuko zituen Manuel Benitez *El Cordobés* toreroa edo udaldia pasatzera Donostiara zetorren fama handiko beste edonor.

Horrez gainera, kritika literarioak eta argitara ematen ziren liburuen aipamenak egiten zituen. Euskal Herriko musikagileak, edota hasi Irundik eta Arrasatera bitartean egiten ziren musika-jaialdiak aipatzen, eta herrietako ospakizun kulturalak eta omenaldien berriak hedatzen. Sarritan joan ohi zen Donostian nahiz herrietan egiten ziren bertso jaialdietara ere, bertsolarien miresle eta laguna baitzen. Uztapide, Basarri¹, Lazkao txiki, Lasarte, Lizaso, Mitxelena eta abarren lagun mina. Ikusi besterik ez dago Bertsolari Txapelketa Nagusikoan egiten zituen aipamenak, edota 1967ko azaro-abenduan Joan Inazio Iztuetari Zaldibian egin zioten omenaldikoa nolako mimo eta maitasunez tratatu zuen *La Voz de España*

¹ *La Voz de España*-n egunero idazten zuen.

egunerokoan² argazki ederrak eta Iñaki Linazasoreoren idazlan luzeaz baliatuta, adibidez.

Bere langintzaren beste lekuko batzuk gogoratu nahi eta egunkari horretako orrialdeetan begira ibili gara, besterik ezean urte bat (1965) eredu hartuta. Hantxe ikusiko dituzue José de Arteche, José M^a Mendiola, José M^a Busca Isusi, José M^a Donosty, Ignacio Linazasoro, Miguel Vidaurre, Agud Querol eta zenbat holako kolaboratzaile bereziren idazlanak! Tartean, sarri-sarri, *Javier de Aramburu* sinaduraz, «*Iguñiz, el pintor irunés con cuatro épocas en su quehacer poético*», «*Miguel Pelay Orozco, el escritor y su brújula*», «*Isidoro Fagoaga: Unamuno a orillas del Bidasoa*», eta antzekoak gai hartuta.

Baina, honetara garen ezkeror, hauxe ere aitortu beharrean nauzue, ordea. *Hil berria* txosten hau prestatu behar eta, haren lana eta ibilbidea ondo ezagutzen nuela uste banuen ere, bere alarguna eta seme-alabekin izan nuen bileran³ harri eta zur utzi nindutela esan behar, alegia. 1961ean ezkondu zirenean hasi eta 1974ra bitartean, senar zenak *La Voz de España* egunkarian idatzitako gehienak jaso eta ondo gordeta baitauzka alargunak, egunez egun eta urtez urte, txukun asko liburuetan josita, mimoz eta maitasunez gainezka. *Zeruko Argia* astekarian argitaratu zituen idazlanak ere bildu eta sailkatuta dauzka bestalde. Inoiz denak argitara eman nahi izanda ere, ez da altxor makala, alajainkoa!

Behin eta berriz ohartu naiz hondarribiarra ez zela sail bateko larreaz asebetetzen zen horietakoa. Euskal kultura eta gizartea ez ezik, langileria, gure arrantzaleak, idazleak, musikagileak, emakumea euskal gizartean, eta orotariko gaiak luze-zabalean maite zituela hark, alegia.

Baina aukeratzen zuen gaia aukeratzen zuela, bere/gure herriaren berezko izatea eta nortasuna gogoratu eta errespetaraziz idazten zuen, disimuluz eta zeharka bederen, egunkariaren inguruko liztor-habiak aztora ez zitezen, petralkeriak gauza onik ez duela ekartzen-eta.

² Ikus *La Voz de España*, 1967-XII-5.

³ Donostia, 2014ko azaroak 1.

Zezenaren aurrean jarri gabe ez omen dela ikasten ondo toreatzen, esaten dute, eta horixe egiten saiatu zen. Lana erruz egin eta, behar zenean, zezenak txukun toreatu, espantu eta harrokeria handirik gabe.

Gizon irekia zen, nonahiko euskalduna, inguruetako kulturak ere erruz maite zituen.

Lan asko eskuartean bai, baina ez zen egunerokoan gelditu nahi izaten zuen horietakoa. Urteak joan ahala, eguneroko kazetaritza lanak osatu eta edertu nahi eta Parisen eta Europan zehar ibili zen inoiz; Ameriketara, berriz, Montrealgo (Kanada) Nazioarteko Erakusketa bisitatu eta ezagutu zuen, bertatik bertara; edota ONU-ko egoitza handian ordu batzuk iragan, 1967an.

Arrantza eta arrantzaleak

Kostako semea izaki, arrantza eta arrantzaleen bizitza eta egoerak bereziki kezkatu ohi zuen. Bere haurtzaro-garaian oso hurbilean ikusi baitzuen Hondarribiko portuan sartu-irtenean zebiltzan arrantza-ontzi eta arrantzaleen bizimodu zail eta neketsua, eta horrexek kezkatzen.

Besteak beste, bere omena eta esker ona erakutsi zien arrantzale horiei irratsaio bereziak antolatuz, Donostiako RNE irratian, 1976-1977 urteetan zehar.

Lehenago, ordea, beste abentura txiki/handi batean buru-bihotz sartu zen, 70eko hamarraldi hasieran. Aspalditxotik buruan zerabilen ametsak bultzatuta edo, Ternuako lurralde-itsasalde hotzak ezagutu nahi izan zituen, batez ere euskal arrantzaleen egoera eta lanaren latza zuzenean ezagutu beharrez.

Halaxe, egunkariko bere nagusiekin hitz egin, eta Pasaiako Lasa enpresaren itsasontzian sartu eta han joan zen, itsaso zabalean barrena, zer ikusi eta zer jasoko. Egunkarirako idazlanak bidaltzea zen bere eginkizun nagusia; baina, zer egingo eta, periodikora idazlanak bidali ez ezik, ehunka argazki eta diapositiba egin zuen, eta ikus-entzunezko bat ere bai Super-8an, Euskal

Herrira itzultzean herriz herri hitzaldiak eman eta itsasgizonei merezitako omena eskaintzeko⁴.

1972an argitara eman zuen *Terranova. La ruta del bacalao* liburua egiteko materiala ere joan-etorri hartan bildu zuen, lan laukoitza eginez, esan bezala: eguneroko kronika, argazki/diapositibak, ikus-entzunezko bat eta liburu eder bat osatzeko gaia, alegia.

DEIA egunkarira

Urte askotako lana eta esperientzia zuen, eta ordainez kargu eta irtenbide berriak esku-eskura eman zizkioten 1977an, hainbat aldiz amestu/desiratu zuen euskal kazetaritza landu eta bideratzeko askatasunaz batean. Ondo jakina denez, *Deia* egunkaria sortu zen urte horretan, Bilbon; eta Gipuzkoako ordezkari izateko aukera eskaini zioten Xabierri, Donostiako ordezkariaren erredaktoreburu izanez aldi berean.

Ordurako urte asko zeraman kazetaritzan, baina sekulako suspertua eta berriua hartu zuela esan ohi zuen. Kazetari euskalduna eta euskaltzalea izaki, garai hartan ikusi zuen bere ahaleginen egiazko ondorioa. Frankismo garai zailtako *La Voz de España*-ko hamazazpi urtetako saiakera astunak merezi zuen hainbeste, eta aitorten hori garaiz egiten jakin zuten, zorionez.

Punto y Hora de Euskal Herria (Iruñea, 1976) aldizkariaren sortzaile eta sustatzaileetakoa izan zen, eta aldizkari horretako erredakzio-kontseiluko kide.

Lanbide askotan saiatua

Langilea, kezkatia eta aspergaitza izaki, ez zuen izan inolako nagikeriarik lan bati eta besteari atzaparrak eransteko. Egunerokoan argitara ematen zituenez gainera, edozeri heltzeko gertu zen beti, berehalaxe ikusiko dugunez.

⁴ Gipuzkoako Itsas-museoari eman zion gero ikus-entzunezko hori.

Kargu eta aitopenen ez dira egiten inoiz hutsaren truke. Horrexegatik, ondorengo ohore eta ardura hauek beregain hartzeko aukera izan zuen, kontuak oker egin eta zerbait bidean ahaztu ez badugu behintzat:

- 1960: Donostiako Zinemaldiko *Festival* aldizkariaren zuzendari izan zen.
- 1966: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais/Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko bazkide izendatu zuten, eta adiskide «super-numerarioa» gainera.
- 1966: Legez eta artez Baionan sortu zen Euskal Dantzarien Biltzarra – Federación de Danzas Vascas elkartearen sortzaile, eragile eta presidenteorde izan zen aldi luzean.
- 1968: Donostiako Aurrezki Kutxaren babesean zegoen Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones elkartearen sustatzaile, eragile eta zuzendari.
- 1974, 1975, 1976: Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren prentsa bulegoko buru hiru ediziotan.
- 1975: Euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak⁵.
- 1975: Espainiako Prentsa Federazioaren Biltzarretan partaide. Baita Prentsa Federazio horrek Donostian antolatu zuen Biltzarrean ere.
- 1975: Euskal kultura, historia, folklorea, arrantza eta abar gai eta ardatz hartu eta Euskal Herrian zehar ibili zen hitzaldiak ematen. Madrileko Ateneoan ere izan zen inoiz, euskal historia eta kulturaz hitz egiten.
- 1978: Eusko Ikaskuntzako kide izendatu zuten.
- 1978: Gipuzkoako Ozeanografia elkarteko kide egin zuten.
- 1981: E. J. Kultura sailak antolatu zuen *Iparragirre urtearen* zuzendari.
- 1982: Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak antolatu zuen *Los Vascos en América/Euskaldunak Ameriketan* Biltzarrearen zuzendari.

⁵ Okondo (Araba) 1975eko ekainak 27.

- 1982: Euskal Irrati-Telebistarako langileak prestatzeko Kultura sailak Donostian eta Bilbon antolatu zituen ikastaroetan irakasle –elkarlana egiteko aukera izan genuen ikastaro haietan ere–. Bere jakinduria eta gaitasuna gazteei transmititzen saiatu zen, lanbide berrian gogotik has zitezen.
- 1983: Eusko Ikaskuntzaren IX. Biltzarreko prentsa arduradun izan zen.
- 1984: Bilbon egin zen *Vizcaya en la Edad Media* historia-azterketa Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun.
- 1984: Euskaltzaindiak Iruñean egin zuen bere X. Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun.
- 1985-1991: Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko komunikazio arduradun sei urtez, Luis Maria Retolaza jaunarekin hasi eta Juan Lasa jaunak bere kargua burutu zuen arte.
- 1991-1995: Eusko Legebiltzarrean Lehendakariartzako prentsa-kabine- teko arduradun, lau urtez.
- Donostiako Industrias Gráficas Valverde irarkolako prentsa eta harre- man publikoetarako arduradun, enpresarekin batera liburu eta argital- penen edizioaz arduratuz.
- Irungo udalak eta Gipuzkoako Kutxak antolatu ohi zuten Irun Hiria poesia sariketan epaimahaiko, hasieratik. Baita Hondarribia Hiria sari- ketan ere, fundatu zenetik.
- Hondarribiko Bordari eta Satarka literatur lehiaketetan epaimahaiko, hasieratik.
- Herriko Euskal Jaien 50. urteurreneko ospakizunetan buru-belarri saia- tu zen, herriko erakundeekin batean.
- Gipuzkoako Kazetarien Elkarteko buru, aldi batean.
- Galiziarrekin harreman onak zituen, eta ohorezko izendapenak egin zizkioten esker onez. Besteak beste, honako hauek: Cofrade de Honra da Enxebe e Pelingrina, Cofradia de Queimada no Pais Vasco, eta Amigo de las Casas Regionales, adibidez.

- Ikastolekin ere bazuen harremana. Besteak beste, Donostiako Santo Tomas lizeoaren⁶ sortzaile/bultzatzaileetariko bat izan zen; eta bigarren ikastaroko neska-mutilei Geografia klaseak eman zizkien.

Idazle joria

Xabier Aranbururen idazlanak irakurri nahi dituenak, Donostiako *La Voz de España* egunkarian ez ezik, *El Bidasoa* (Irun), *Hoja del Mar*, *Dantzari*, *Zeruko Argia*, *Oleri* eta abarretan aurkituko ditu.

Baina baditu banan-banan aipatzea merezi duten beste idazlanak ere.

Betidanik halakoxe giro berezia ezagutu herrian, eta Hondarribiko historiari buruz aditurik nagusienetakoa bera izan zela esan daiteke gaur. Bere jaioterriari buruz hainbat liburu eta artikulua idatzi zuelarik, herriko historia, kultura, ohiturak eta gizartearen izateaz kezkatu baitzen, herritar guztiei inguru hurbilekoei bertoko historia jakinarazten ahalegindu zen. Hain hondarribiar sentitu zelako aztertu zuen bere herriko hainbat ikuspegi, gai eta pasarte, hala nola:

Liburu formatuan

- *Alarde de Fuenterrabia – Ondarribiko alardea* (F. Garridoren irudiak – Caja de Ahorros de Guipuzcoa, 1976).
- *Terranova. La ruta del bacalao*. (Caja de Ahorros de Guipúzcoa 1972).
- *Juan Ignacio Iztueta*. (Caja de Ahorros de Guipúzcoa 1972).
- *Personajes Guipuzcoanos*. I tomoa (1974).
- *Personajes Guipuzcoanos*. II tomoa (1975).
- *Sitio de Fuenterrabia* (1976).
- *Euskadi* (1981).

⁶ Amarako soto batean hasi zen Lizeo hau, 1960-61ean, K. Santamaria, K. Mitxelena, J.M. Zumalabe, J. M. Lasarte eta beste euskaltzale askori esker.

- *Pakea, 50 urte* (1984).
- *Paseos por la ciudad de Hondarrabia* (X. Sagarzazuren ilustrazioak. Hondarribiako Udala, 2006).
- *Paseos por la Ciudad de Irun* liburua idatzi zuen aurreko horren jarraipen modura, eta Irungo udalari eman; baina argitaratzeko dago oraindik, dirurik ez omen dutela-eta.

Artikuluak

Xabier Aranburu Sagarzazuren ehunka idazlan aipatu beharko genuke sail honetan, baina bereziki azpimarragarria da, adibidez, honako hau:

- *El Txakoli en el Fuero de Guipúzcoa* – Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián. San Sebastián, nº 16-17 (1982-1983), J. Inazio Telletxea Idigorasen omenez argitara emana (Sancho el Sabio Fundazioa).

Elkarlanean

- *Euskal Herria. Realidad y Proyecto (Medios de comunicación social (1939-1984) – 1985ean* argitara emana.
- *Euskal Herria* – 1987an argitara emana.
- *Exti-lanak*, Klaudio Sagarzazu *Satarka*-ren hirugarren poema liburua, Joan Mari Lekuona, Joan San Martin eta Txomin Sagarzazurekin batera egina.
- *Herriko Euskal Jaien 50. urteurrena*, herriko erakunde eta herritarrekin batera, 1975ean.

Web orrialde irekian

- *El camino de Santiago por Hondarribia*, <<http://www.euskalnet.net/jmira/caminosantiago/>>

- *Arqueología en el Jaizkibel. Un Hondarribiarra de 6000 años*, <<http://www.hondarribia.com/jaizkibel.htm>>
- *Hondarribia. Ciudad amurallada*, <http://www.bidasaturismo.com/index.php?option=com_content&view=article&id=13&Itemid=287&lang=es>
- *Hondarribia ya estaba habitada desde hace 800 años*, <<http://www.hondarribia.com/j-aramburu.htm>>

Amaitzeko

Xabier Aranburu Sagarazuren hilberri hau ematean, beste hainbat eta hainbat gauza erants geniezaioke lantxo honi; baina ezer gehiago eranste-kotan, honako hauxe, laburki:

Burutik hanketarainoko gizona zela, euskaldun petoa eta euskaltzalea, jakinduriaz ondo jantzitako gizona, Euskal Herriko historiaz, kulturaz, arteaz eta kazetaritzaz asko ere asko zekiena, eta oso irekia. Nonahitik zetoz-keen aire berriak onartzen zekien, nori berea emanez bakoitzari zegokion neurrian, bertokoa inoiz ahortzi gabe, oinak lurrean.

